

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura

Eguna: 2018ko ekainak 7

Ordua: 09:05 – 12:00

Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta

Inmaculada Vivanco Retes

Miren Izaskun Perez Barragan

Joseba Mirena Vivanco Retes

Arkaitz San Jose Martinez

Unai Gotxi Kastrexana

Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Maria Lorente Burgos eta Alazne Lafragua Ureta, ez bertaratzearen arrazoa azaldu dutenak.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

Alkatea: EAJ eta EH Bildu taldeek premiaz aurkeztutako mozio baten sarrerarekin hasiko gara, Altsasuko udalerrian hainbat pertsona kondenatzeari buruzkoa. Beraz, lehendabizi premiazko bozka egingo dugu mozio hori sartzeko.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderditik (3);

Gai-zerrendan sartzea onartzen da.

1. 2018ko apirilaren 12an eta maiatzaren 13an egindako Saioetako Aktak onartzea.

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue?

Arkaitz San Jose Martinez: nik, apirilaren 12ko bilkuran, aurrekontuak onartzeko Saioan, agerraldi bat egin nuen euskaraz, hasiera batean horretarako eskubidea baitut erkidegoko hizkuntza ofiziala izaki, eta aktan jasotzen den moduan ez dago irakurtzeko moduan. Ez dakit hori nola idatzi den, baina hitz guztiak batera daude, eta zera pila bat dago... beno, irakurtzezina da.

Alkatea: bai, guztia segidan agertzen da, ez dago tarterik.

Arkaitz San Jose Martinez: tira, inork ez du euskaraz berrirakurri, funtsean.

Alkatea: azalpena ongi dago, uste dut ongi dagoela, baina ez dago tarterik hitzen artean. Orduan hori egin beharko litzateke.

Ascension Hormazabal Meabe: tira, baina hori ordenagailuak egingo zuen, ezta?

Arkaitz San Jose Martinez: tira, baina nolabait sartu da, ez dakit nik. Azken finean irakurri, tarteak sartu eta zenbait gauza zuzentzea da kontua, izan ere...

Joseba Elejalde Ribacoba: nik apirilaren 12ko bosgarren orrialdean, aurrekontuen gaiari buruz, Aiaraldeako partidako 1.500 euroen kontuari buruz hitz egiten ari ginen, 14. lerroan 1.500 agertu beharrean 2.500 agertzen da.

Alkatea: Apirilaren 12ko saioaren bozka egingo dugu.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

Alkatea: eta 2018ko maiatzaren 13ko saioari dagokionez.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

2.- Artea Elkarte Etnografikoarekin sinatutako Hitzarmena, Etnografia Museoa irekitzekoa, aldatzea.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Unai Gotxi Kastrexana Saiotik atera da Artea Elkarte Etnografikoko Idazkaria delako.

"OSOKO BILKURAREN AKORDIO-PROPOSAMENA

GAIA: Artea Elkarte Etnografikoaren eskaera, Artziniegako Etnografia Museoa hartzeko asmoz udal eraikina lagatzeko sinatutako hitzarmena aldatzekoa, 2018ko ekitaldiari dagozkion sarreraren diru-bilketaren ondorioz diru-sarrerak baimenduz.

Ikusirik 2004ko urriaren 21ean Artziniegako Udalaren eta Artea Elkarte Etnografikoaren artean sinatutako hitzarmena, zeinaren bidez Udalak egungo Arteko Aldapako 12. zenbakian kokatzen den antzinako Karmeldarren Ikastetxe zaharra modura ezagutzen zenaren udal jabetzako finka lagatzen baitu, Artziniegako Etnografia Museoa berrireki dadin, Udalak beregain hartzen dituelarik eraikin multzoaren eta finkako gainerako sailaren mantenu- eta kontserbazio-lanen gastuak.

Kontuan hartuz Artea Elkarte Etnografikoak Hitzarmenaren arabera Museoan burutzeko jardueren kudeaketa osoa beregain hartzen duela, haren funtzionamenduaren arduradun izanik, Museoaren kudeaketatik eratorritako gastuak osorik beregain hartuz eta Udaletxean hilero saldutako sarreraren eta bildutako diruaren zenbatekoari dagozkion diru-sarreraren zerrenda entregatzeko betebeharrarekin. Udala, bestalde, "diru-laguntzak" izeneko hirugarren klausulan beregain hartzen du, ekitaldi ekonomiko bakoitzean esleipen ekonomikoa eginez, Elkarteari diru-laguntza bat emango diola baitaratzen duen osoko kudeaketa burutu dezan. Adierazten da klausula hori 2004ko abenduaren 31n berrikusiko dela eta data horretatik aurrera, urtero, bisitari kopurua egiaztatu eta, horrenbestez, langileak kontratatzeko gastuak finantzatzeko diru-laguntza finkatze aldera, hura planteatzen diren beharrezan arabera gauza dadin. Horretarako, Artea Elkarte Etnografikoak diru-laguntzaren xede den burututako jarduera bakoitzari dagozkion gastu eta diru-sarreraren laburpena eta fakturak aurkeztuko ditu sei hilean behin, dagozkion egiaztagiriak atxikiz.

Kontuan hartuz, 2018ko otsailaren 28an aholkularitza juridikoak horretarako lagatako udal higiezinan garatzen den Etnografia Museoaren jardueratik Artea Elkarte Etnografikoari Udalak ematen dion diru-laguntza areagotzeko egokitasunari buruzko txostena eman zuela, soldata-igoerari aurre egin ahal izateko ARTADI sozietate zibilak proposatutako Hitzarmenera egoki dadin, harekin baitu Elkarteari kontratatuta Museorako gidarien zerbitzua. Txostenean desegokitzat jotzen da Artea Elkarte Etnografikoak soldata-igoera beregain hartzea, izan ere, esleipenerako aurkeztutako proposamenean, langileak Enpresa kontratatzailearen baitan daude eskusiboki, azken horrek indarreko legeria betetzeko konpromiso hartzen duelarik, jarduera bere kontu eta arriskura izanik (gidarien zerbitzuaren kontratazioko 5. oinarria). Desegokitzat jotzen da Elkarte kontratatzaileak kontratatutako langileen soldatatik eratorritako kostua beregain hartzeko eta bazkide autonomo jakin batzuentzat gerente baten soldata zehazteko (kasu honetan, bi



bazkiderentzat) asmoa, autonomoen ordainsariarekin eta kotizazioarekin lotutako gastuekin batera. Helarazitako dokumentazioa ikusirik ikus daitekeenez, Artea Elkarte Etnografikoak 2005eko otsailaren 26an urtebeteko epez sinatutako gidarien zerbitzuaren kontratuak (urtero berritu zitekeena, 10 urte bete arte) 2015. urtean amaitu zuen bere indarraldia. Horrenbestez, egoki da kontratazio berria gauzatzea.

Kontuan izanik 2018ko martxoaren 23an Idazkari - Kontu Hartzailleak aurkako txostena igorri zuela Artea Elkarte Etnografikoak 2018ko martxoaren 1ean eskatutako diru-laguntza jasotzeko egindako eskaerari (572. sarrera-erregistroa) buruz, 2004ko urriaren 21ean sinatutako Hitzarmenaren hirugarren (diru-laguntzak) eta laugarren (eskubideak eta betebeharrak) klausuletan ezartzen dena ez dela betetzen ari adieraziz. Hurrengo alderdiak adierazten dira:

- Hitzarmena betetze aldera, Artziniegako Udalak 2018ko gastuen aurrekontuan, 2017. urtetik luzatutakoan, hurrengo aurrekontu-aplikazioak dituela kontsignatuta: 333.480.001 zenbakiduna 29.000 euroko zenbatekoaz eta Artea Elkarte Etnografikoarekin hitzarmenaren kontzeptuan egunero ireki ahal izateko; eta 333.480.000 zenbakiduna 6.000 euroko zenbatekoaz eta Artea Elkarte Etnografikoarekin hitzarmenaren kontzeptuan museoko jardueretarako.
- Indarreko Hitzarmenaren laugarren hizpaketako lehen atala betez, Artziniegako Udalak lortu duela Arabako Foru Aldundiak 2018ko aurrekontuetan 35.000 euroko diru-laguntza nominatibo bat kontsigna dezala guztira 50.000 euro ingurukoa den gastu baterako, Udalak eraikinaren mantenu-lanen gastuekin, eguneroko irekitzearen gastuekin eta museoko jardueretarako gastuekin justifikatu behar duena.
- Artea Elkarte Etnografikoak Museoa "egunero irekitzeko" aurkeztutako 2018. urterako jardueraren zuzkidura ekonomikoa hurrengo diru-sarreraren aurreikuspenetik abiatzen dela:

Instituzioa	Zenbatekoa
Eusko Jaurlaritza	30.000,00
Arabako Foru Aldundia	35.000,00
Artziniegako Udala	29.000,00



- Arabako Foru Aldunditik jasotako diru-laguntza aurrez aipatutakoa dela adierazten da, Udalak jasotzen duena hurrengo gastuetarako: Etnografia Museoko eraikina konpondu, mantendu eta kontserbatzekoa (2000); etnografia museoko berogailua (5000); Etnografia Museoko energia elektrikoa (3500); Etnografia Museoko igogailuaren mantenurako kontratua (1250); hitzarmena Artea Elkarte Etnografikoarekin -jarduerak- (6000) eta hitzarmena Artea Elkarte Etnografikoarekin -egunero irekitzea- (29000).

- Amaitzeko adierazten da Artea Elkarte Etnografikoaren asmoa Artziniegako Udalaren aldetik beste 29.000 euro jasotzea bada egunero irekitzeko beste diru-laguntza berri baten modura, ez dagoela aurrekontuen kontsignaziorik eta gainera laugarren hizpaketako lehen atala ez dela betetzen. Era berean, adierazten da dagoen Hitzarmenean egiten den edozein aldaketa Udalbatzak onartu beharko zukeela eta ez Tokiko Gobernu Batzordeak).

Kontuan izanik, Artea Elkarte Etnografikoak idatzi hauek aurkeztu dituela udaletxean:

- Apirilaren 12an, Unai Gotxi Kastrexana jaunak, Artea Elkarte Etnografikoko Idazkariak udal ordezkariak eta Elkarteko ordezkariak sinatutako dokumentua aurkeztu zuen, 2012ko martxoaren 12an egindako bilkuran hurrengo akordioak hartu zirela adieraziz:
 1. Artziniegako Udalak Artea Elkarte Etnografikoari Artziniegako Museoan ematen direnaren antzeko gidarien zerbitzuaren inguruan eskatutako balioespen ekonomikoak bidaliko dizkio, hura jakinaren gainean egon dadin eta erreferentzia gisa baliagarri izan dadin 2018ko abenduaren 31rako kontratuzko harreman baterako.

 2. Artziniegako Udalak Artea Elkarte Etnografikoari Arabako Foru Aldunditik jasotako 35.000 euroak transferituko dizkio.

 3. Artziniegako Udalak Artziniegako Museoko 2018. urteko sarreraren dirua transferituko dio Artea Elkarte Etnografikoari. Bertaratu diren guztiak ados egonik eta Udalak horri buruzko akordioa hartuz.



4. 2018. urtean Artziniegako Udalaren eta Artea Elkarte Etnografikoaren arteko hitzarmen berria idatziko da eta Artziniegako Museoko gidarien zerbitzurako lizitazio berriaren baldintzak ezarriko dira. Hitzarmena eta lizitazioa idazterakoan, Artziniegako Udalak bideragarritasun ekonomikoa bermatuko du hitzarmen horren indarraldian zehar.

- 2018ko apirilaren 16an, Unai Gotxi Kastrexana jaunak, Artea Elkarte Etnografikoaren Idazkariak, hitzarmenerako bi proposamen atxiki zituen datozen urteetan Elkarte Udalarekin lotzekoa, adieraziz Elkarteak nahiago duela Udala izatea Artziniegako gidarien zerbitzuaren lizitazioa burutzen duena, hartako oinarriak elkarren artean ezarriz. Adierazten du aurrekoa burutzeko legezko eragozpenik balego, Artea Elkarte Etnografikoak ez lukeela lizitazioa burutzeko arazorik izango, betiere, bigarren proposamenean ezarritako oinarriak errespetatzen badira. Bi proposamenean, aldean betebeharrei dagokienez, zera islatzen da:

1. Lehendabiziko proposamenean Udalak beregain hartzen ditu eraikinak eta finkaren mantenu eta kontserbaziotik eratorritako gastuak indarreko kontratuaren baldintza beretan, Etnografia Museoa irekitzeko, informazio turistikorako gunea irekitzeko eta garbiketako gastuetarako lizitazioa egin behar delarik, aldez aurretik lizitazioaren oinarriak eta arauak Artziniegako Udalaren eta Artea Elkarte Etnografikoaren artean adosteko betekizunarekin.

2. Bigarren proposamenean klausula jakin bat jasotzen da, eta bertan adierazten denez, Museoa eta Informazio Gune turistikoa irekitzeko kostuari aurre egin ahal izateko, Udalak aurrekontu-partidako esleipen ekonomikoarekin, eta dagokion ekitaldi ekonomikoko..... euroko zenbatekoarekin, Museoa bisita gidatu eta didaktikoekin irekitzeko, informazio turistikorako gunea irekitzeko eta museo multzoaren bi eraikinak garbitzearen ondoriozko gastuetatik eratorritako urteko kostua abalatu egingo du. Horretarako Elkarteari partida horren % 25 ordainduko dio urtarrilaren, apirilaren, uztailaren eta urriaren hastapenean. Bestalde, Elkarteak emandako zerbitzuaren jarraipen bat egiteko eta hileroko saldutako sarreren zenbatekoa Udalaren kontuan sartzeko konpromisoa hartzen du.

- 2018ko apirilaren 16an, Unai Gotxi Kastrexana jaunak, Artea Elkarte Etnografikoko Idazkariak, Gobernu Batzordeak hartutako akordioak jakinarazi dadila eskatu zuen, Artea Elkarte Etnografikoak Artziniegako Museoko sarreren dirua jasotzekoa.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Kontuan izanik adostutakoaren arabera Artziniegako Museoak ematen duenaren antzeko kontratu baterako zerbitzuaren kostuaren balioespena burutu dela, prezio hauek ondorioztatuz:

ORDUEN KALKUKUA:

LANEGUN ORDUAK: 4232724

JAIEGUN ORDUAK: 423423

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN PREZIOA ANTZEKO KONTRATUAN

Laneguneko ordua BEZ gabe: 19,40

Jaieguneko ordua BEZ gabe: 22,28

Lanegun orduak: 52.845,6 €.

Jaiegun ordua: 9424,44 €.

Kostua orotara: 62.270,04 €.

KOSTUA OROTARA BEZ (% 10) BARNE: 68.497,04 €.

KALKULUA AHOLKULARITZAKO DATUEKIN

1. gidaria urteko lanaldia: 894 ordu/urte: 741 ordu lanegunetan eta 153 ordu jaiegunetan = III.
TALDEA:

$$(15,52 \times 894) + (3,94 \times 153) = 14.477,$$

2. gidaria urteko lanaldia: 468 ordu/urte: 288 ordu lanegunetan eta 180 ordu jaiegunetan = III.
TALDEA: $(15,52 \times 468) + (3,94 \times 180) = 7.972,56$

3. gidaria urteko lanaldia: 1227 ordu/urte: 1152 ordu lanegunetan eta 72 ordu jaiegunetan = III.
TALDEA: $(15,52 \times 1227) + (3,94 \times 72) = 19.326,72$

4. gidaria urteko lanaldia: 561 ordu/urte: 543 ordu lanegunetan eta 18 ordu jaiegunetan = III.
TALDEA: $(15,52 \times 561) + (3,94 \times 18) = 8.777,64$

LANGILEEN KOSTUA OROTARA: 50.553,92 €

ENPRESA MOZKINA: 10.110,78

KOSTUA OROTARA BEZ (% 10) BARNE: 66.731,17 €.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

ENPRESAK ESKATUTAKO ESKAINTZAREN KALKULUA

Langileen kostua: 49.862,41 €

Industria mozkina: 9.972,48 €

OROTARA BEZ (% 10) BARNE: 65.818,38 €.

Kontuan izanik Artea Elkarte Etnografikoak 30.000 euroko diru-laguntza bat jasoko duela Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Arabako Foru Aldundiak emanda Artziniegako Udalaren bi diru-laguntza jasoko dituela, 6.000 euroko zenbatekoaz 333 48000 partidaren kontura kultura jarduerak burutzeko, eta 29.000 euroko zenbatekoaz 333 48001 partidaren kontura Museoa egunero irekitzeko, horrek suposatzen du guztira 65.000 euroko diru-laguntza jasoko duela, eta horietatik 59.000 euro bideratzen dira Museoa irekitzera.

Elkarteak gidarien zerbitzua kontratatuzko sinatutako kontratua amaituta eta aurrez adierazitako zerbitzuaren balioespina ikusirik, egokitzen da 2018. ekitaldirako gidarien zerbitzuaren kontratazioa, Arabako Foru Aldundiak antzeko kontratazio baterako ezarritako prezioaren lizitazioa abiapuntutzat hartuz, 68.497,04 euroko lizitazio motatik abiatu behar izatea. Jarduera pribatu bat denez, Udalak ez ditzake kuantifikaziorik eta mugarik gabe abalatu Elkarteak planteatutako aurrekontuzko aurreikuspenak, baina Museoaren jarraikotasuna bermatu ahal du haren kudeaketa beregain hartuz. Horrek kontratazioa Udalak berak Elkarteak proposatutako moduan burutzea ahalbidetuko du. Gaur egun, Hitzarmenaren arabera, Udalak beregain hartzen ditu higiezina mantendu eta kontserbatzeko gastuak eta diru-sarrera modura jasotzen ditu sarreraren ondorioz jasotako zenbatekoak.

Kontuan hartuz maiatzaren 11n Artea Elkarte Etnografikoaren aurrekontu-proposamena aurkeztu zela, non diru-sarreraren 91.436,92 euroko orotariko aurreikuspen bat jasotzen baita, zeintzuetatik 71.622 euro diru-laguntza publikoetatik baitatuz. Sarreraren salmenten ondorioz 15.000 euroko diru-sarrera bat aurreikusten da, Udalak onarpena emateko zain, izan ere, Hitzarmenean sarreraren salmenten ondoriozko zenbatekoak Udalari emateko aurreikusten da. Salmenten eta ekarpenen ondoriozko gainerako diru-sarrerak 4.814,92 eurokoak dira.

Kontuan hartuz Museoaren kudeaketa pribatuaren egoera ekonomikoa ikusirik finantzaketa % 95ean diru-laguntzak jasotzearen baitan dagoela, Artziniegako Udalaren eta Elkartearen arteko datozen urteetarako Hitzarmena berrikustea proposatzen da, eta 2018. ekitaldirako irtenbide modura, 2004ko urriaren 21ean sinatuta dagoen Hitzarmena luzatzea proposatzen da baldintza beretan, LAUGARREN hizpaketan adierazitakoaren salbuespenarekin:

“Bigarrena.- Artea Elkarte Etnografikoak konpromiso hauek hartzen ditu:

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

•Etnografia Museoan burutzeko jardueren osoko kudeaketa burutzea, haren funtzionamenduaren arduradun izanik, Udalari urtero, urtarrilean, jardueraren urteko aurrekontua helarazteko betebeharrarekin, gutxienez, kontzeptu hauetan banakatuta:

- Langileen gastuak
- Bulegoko materiala, informatikakoa barne
- Garbiketa
- Funtzionamendu-gastuak; ikastaroak, konferentziak eta erakusketak antolatzea.
- Aseguruak (lapurreta, sutea, erantzukizun zibila)

- Museoko jardueraren kudeaketatik eratorritako gastuak beregain hartzea osorik.
- Hilero saldutako sarreraren eta bildutako diruaren zenbatekoa Caja Vital kutxaren 2097 0207 81 0115355032 kontuan Artziniegako Udalaren izenean sartu izanaren laburpena”.

Hizpaketa hau 2018ko ekitaldi honetarako soilik aldatzen da eta horrela idatzita geratzen da:

“Bigarrena.- Artea Elkarte Etnografikoak konpromiso hauek hartzen ditu:

•Etnografia Museoan burutzeko jardueren osoko kudeaketa burutzea, haren funtzionamendu onaren arduradun izanik, Udalari 2018ko ekitaldirako jardueraren diru-sarrera eta gastuen aurrekontua aurkezteko betebeharrarekin, gutxienez, kontzeptu hauetan banakatuta:

- Langileen gastuak
- Bulegoko materiala, informatikakoa barne
- Garbiketa
- Funtzionamendu-gastuak; ikastaroak, konferentziak eta erakusketak antolatzea.
- Aseguruak (lapurreta, sutea, erantzukizun zibila)

- Museoko jardueraren kudeaketatik eratorritako gastuak beregain hartzea osorik

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

• 2018ko ekitaldi honetan Artea Elkarte Etnografikoak izango du sarreraren salmentaren ondoriozko diru-bilketa. Haatik, hiru hilean behin saldutako sarreraren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu udaletxean.

Gehiegizko finantzaketa ematen bada, 2018. urtearen amaieran, Elkarteak soberako finantzaketa itzuli beharko dio Udalari.

2019. ekitaldirako eta hurrengoetarako, Museoaren irekieraren jarraikortasuna eta bideragarritasuna bermatze aldera, Hitzarmena aldatzea proposatzen da, Artziniegako Udalak Museoaren kudeaketa beregain hartuz, alde zurretik museoko funtsak doan laga edo mailegatuz (komodatua).

Horri buruz Euskadiko Museoen abenduaren 1eko 7/2006 Legean nahiz Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu eta museo edo bildu bat «Euskadiko Museoa» edo «Euskadiko Bilduma» dela onartzeko aitortpena arautzeko ekainaren 21eko 132/2011 Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuz.

Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatua; nahiz Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan eta toki araubideari dagokionez aplikagarri diren gainerako araudietan xedatua.

Udalbatza honek, ohiko osoko bilkuran, 2018ko ekainaren...(e)an elkartuta, (gehiengoa adierazi)...ren arabera.

ADOSTU DU:

Lehenik.- Artea Elkarte Etnografikoari eskatzea 2004ko urriaren 21ean sinatutako Hitzarmenaren baldintzak berrikusi ditzala, zeinaren bidez Udalak egungo Arteko Aldapako 12. zenbakian kokatzen den antzinako Karmeldarren Ikastetxe zaharra modura ezagutzen zenaren udal jabetzako finka lagatzen baitu, Artziniegako Etnografia Museoa berrieki dadin, baldintza hauetan:

- 2018ko ekitaldi honetarako 2004ko urriaren 21ean sinatutako Hitzarmena luzatzea, zioen azalpenean adierazitako aldaketarekin, sarreraren salmenten ondorioz jasotako dirua Elkartean sartzea ahalbidetzeko.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

- 2019. ekitaldirako eta hurrengoetarako, Museoaren kudeaketa Artziniegako Udalak beregain hartzea proposatzen da, museoaren jarduera kudeatzeko zerbitzuaren lizitazioa eginez, Artziniegako Etnografia Museoaren jarraikortasuna bermatze aldera, aldez aurretik museoko funtsak doan laga edo mailegatuz (komodatua).

Bigarrenik.- Artea Elkarte Etnografikoari eta interesa izan dezakeen edonori akordio honen berri ematea, adieraziz haren aurrean, aukera dutela administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegien aurrean, hala badagokio, Udal honen aurrean hilabete bateko epean hautazko berraztertze errekurtsioa ezarri aurretik”.

Alkatea: puntu honetan esan igorri den osoko bilkurako akordioaren proposamenari buruz eta aldez aurretik taldeetako bozeramaileekin hitz egin ostean, mozio bat aurkeztu izanaren kalterik gabe, testuan aldaketa bat egitea proposatzen dela, proposamena dagoen bezala mantentzea dela, 2019ko ekitaldiari buruz aipatutakoa ezabatuz. Izan ere, horri buruz bilkura bat izango dugu gero, gaur 12:30etan, museoarekin. Hau lan-proposamen bat baino ez izatearen kalterik gabe. Orduan, akordioa mantentzea, hori zen igorri zena, proposatzen da, 7. orrialdean zera ezabatuz, lerroalde hau ezabatuz: 2019. ekitaldirako eta hurrengoetarako, museoaren irekieraren jarraikortasuna eta bideragarritasuna bermatze aldera, Hitzarmena aldatzea proposatzen da, Artziniegako Udalak museoaren kudeaketa beregain hartuz, aldez aurretik museoko funtsak doan laga edo mailegatuz (komodatua). Eta bertan adosten da, azalpenaren zatian, honako lerroaldea ezabatzea: 2019. ekitaldirako eta hurrengoetarako, Museoaren kudeaketa Artziniegako Udalak beregain hartzea proposatzen da, Museoaren jarduera kudeatzeko zerbitzuaren lizitazioa eginez, Artziniegako Etnografia Museoaren jarraikortasuna bermatze aldera, aldez aurretik museoko funtsak doan laga edo mailegatuz (komodatua). Hori da egiten den proposamena. Horrenbestez, akordioa horrela geratuko litzateke:

“**Lehenik.**- Artea Elkarte Etnografikoari eskatzea 2004ko urriaren 21ean sinatutako Hitzarmenaren baldintzak berrikusi ditzala, zeinaren bidez Udalak egungo Arteko Aldapako 12. zenbakian kokatzen den antzinako Karmeldarren Ikastetxe zaharra modura ezagutzen zenaren udal jabetzako finka lagatzen baitu, Artziniegako Etnografia Museoa berrieki dadin, baldintza hauetan:

- 2018ko ekitaldi honetarako 2004ko urriaren 21ean sinatutako Hitzarmena luzatzea, zioen azalpenean adierazitako aldaketarekin, sarreren salmenten ondorioz jasotako dirua Elkartean sartzeari ahalbidetzekoa.

Bigarrenik.- Artea Elkarte Etnografikoari eta interesa izan dezakeen edonori akordio honen berri ematea, adieraziz haren aurrean, aukera dutela administrazioarekiko auzi-errekurtsioa

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

jartzeko jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegien aurrean, hala badagokio, Udal honen aurrean hilabete bateko epean hautazko berraztertzeo errekurtsua ezarri aurretik”.

Alkatea: hori da aldatzeko egiten den proposamena. Xedapenen atala EH Bildu eta Alderdi Popular taldeek aurkeztutako mozioaren berdin-berdina da. Zerbait esan nahi baduzue.

Arkaitz San Jose Martinez: lehenik eta behin, bertaratuek agin ez dute ulertuko zergatik, azaldu Unai Gotxi gure zinegotzia Artea Elkarte Etnografikoko idazkaria dela eta, horrenbestez, eztabaida honetako alde bat denez, ezin du bertan parte hartu ezta horren inguruan bozkatu ere. Horregatik irten da. Idazkaritzarekin baieztatu dugu horrela dela. Eta, ondoren, hala Alderdi Popularrak nola EH Bildu taldeek Gobernu taldeari aurkeztutako proposamenari dagokionez, alternatiba bat aurkeztu dugu, zeina Iñigok egin duen aldaketarekin, akordioa bezalaxe geratzen bada ere, baziren hitzaurre bat edo aurrekari batzuk eta ez geunden ados horiek akordioan agertzearekin, alde batetik gai hori jorratu genuen batzordera eraman ez zen idazketa bat delako. Batzordean adostu genuen, ez soilik batzordean, aurreko bilkura batean jadanik adostasun bat erdietsi zen elkarte etnografikoarekin bermatzeko 2018ko urte honetan sarreretako dirua erabili ahal zezatela, izan ere, hitzarmenean aldaketa bat izan zenez, langileen soldata areagotu beharrean ziren, eta diru-laguntzarekin ematen zen zatiarekin ez zela iristen adierazten zuten. Beraz, hori horrelaxe jaso zen, ez zen adostasunik erdietsi nahiz eta 2019. urtetik aurrera zerbitzuaren prestazioa garatzeko moduari hitz egiten aritu ginen, baina batzordera eraman zen dokumentuko zioen azalpena oso mugatua zen, hutsala ez esateagatik, berez orri eskaseko dokumentu bat zen, eta osoko bilkurako dokumentazioan ia sei orriko hitzaurre bat aurkeztu zitzaigun berrikuspen bat eginez, eta gure ustez, jakina administrazioaren ikuspegitik egina da oso eta ez du deus laguntzen hurrengo urteetan zerbitzuaren prestazioa Elkarte Etnografikoarekin jorratzeko moduari buruzko eztabaidan. Berez, gure iritzia igorri genien alderdi politiko ezberdinei, Alderdi Popularrarekin adostasun batera iritsi ginen, eta horregatik aurkeztu dugu alternatiba bat, izan ere, orain aldaketa hori egin badute ere, uste dugu hemen hitzaurrean jasotzen den guztiak heldu garen egoerara heltzeaz Elkarte erantzule egiteko nolabaiteko joera duela gutxi gorabehera, edo hala ulertu dugu behintzat, eta uste dugu hori lekuz kanpo dagoela, bakoitzak bere erantzukizunak hartu beharko dituela beregain baina agertzen den moduan ez da lagungarri etorkizunean akordio bat erdiesteko oinarriak finkatzeko, guk baterako proiektu bat izan behar zela errepikatzen baikenuen eta ez Administrazioaren eta Elkartearen arteko borroka bat. Eta horregatik aurkezten dugu alternatiba, eta berriro diot ez dudala akordioa irakurriko, izan ere, Iñigok irakurri duena da akordioa hitzez hitz, baina guk zioen azalpenean Elkartearen hartu ziren akordioetan erreparatu genuen soilik, hots, sarreraren dirua erabil dezatela zerbitzua ordaindu ahal izateko eta etorkizun batera adostu egin beharko da haiekin zerbitzua nola idatzi eta nola ematen den. Irakurri egingo dut, soilik zioen azalpenean gu zera sartzen genuela:

“2018ko martxoaren 12an bilkura bat egin zen udaletxeko ordezkarien eta Artea Elkarteko ordezkarien artean hurrengo erabakiak hartuz, bertaratuek sinatuta eta dokumentu hori udal erregistroan erregistratuta data horrekin.

1. Artziniegako Udalak Artea Elkarte Etnografikoari Artziniegako Museoan ematen direnaren antzeko gidarier zerbitzuaren inguruan eskatutako balioespen ekonomikoak bidaliko dizkio, hura jakinaren gainean egon dadin eta erreferentzia gisa baliagarri izan dadin 2018ko abenduaren 31rako kontratuzko harreman baterako.



2. Artziniegako Udalak Artea Elkarte Etnografikoari Arabako Foru Aldunditik jasotako 35.000 euroak transferituko dizkio.

3. Artziniegako Udalak Artziniegako Museoko 2018. urteko sarreraren dirua transferituko dio Artea Elkarte Etnografikoari. Bertaratu diren guztiak ados egonik eta Udalak horri buruzko akordioa hartuz.

4. 2018. urtean Artziniegako Udalaren eta Artea Elkarte Etnografikoaren arteko hitzarmen berria idatziko da eta Artziniegako Museoko gidarien zerbitzurako lizitazio berriaren baldintzak ezarriko dira. Hitzarmena eta lizitazioa idazterakoan, Artziniegako Udalak bideragarritasun ekonomikoa bermatuko du hitzarmen horren indarraldian zehar”.

Horixe da guk egokitzat jotzen genuen hitzaurre bakarra. Ez dakit Josebak zer bait esan nahi duen.

M^a Ascension Hormazabal Meabe: nik kontu hartzaile modura zer bait esan behar dut, bi proposamenak ikusita, badirudi ados zaudetela sarreraren ondorioz jasotako dirua Udalean sar ez dadin. Gertatzen dena da igoera zehaztu gabe geratzen dela, izan ere, ezin da jakin sarreraren ondorioz jasotako dirua zenbat izango den eta gastua zenbat izango den. Orduan lan-hitzarmenaren aldaketa baten ondorioz 16.000 euroko igoera batez egiten ari gara. Nik oraindik ez dut txostena egin, zehazki, Hitzarmenaren ez-betetzeari buruzko beste batzuk egin ditut aurrez. Bat egin beharko dut zenbateko igoeraz hitz egiten ari garen jakiten dudanean.

Joseba Elejalde Ribacoba: egiaz Artea Elkarte Etnografikoarekin nahiz talde guztiarekin izan ditugun bilkura ezberdinetan hainbat akordio erdietsi dira, batzuetan Udala bera izan da mahai gainean ipini dituenak, bada, urte honetan, 2018an, sortu zitzaigun arazoa gainditu ahal izateko, hots, giden zerbitzuari buruzko hitzarmen berriaren ondoriozko igoera, Ascenek ongi esan duen moduan, 14.000 edo 16.000 eurokoa izatearena. Kezkagarria zera da, eta horregatik hala Bilduk nola Alderdi Popularrak aurrerapauso bat eman eta osoko bilkura honetarako moztio bat sartzea erabaki genuen, EAJ taldeak aurreko asteazkenean erdietsi genituen akordioetan, hartu ziren erabakien barruan, zera zen Udalak sarreraren zenbatekoa Elkarteari lagatzen ziola hitzarmen berriaren ondorioz giden zerbitzuen igoera orekatzeko. Gehiegizko finantzaketa emango balitz, diru hori udaletxeko kutxara itzuliko zen. Ziurtasun batera heldu ginen, hots, hobe zela Udala izatea giden zerbitzua lehiaketara aterako zuena, betiere, Artea Elkarte Etnografikoak bilduma lagatzen bazion hitzarmenak irauten zuen urteetan Udalarikomodatu-kontratu baten bidez. Azken bilkuran azaldu zen, nik azaldu nuen gainera, lehendabizi Artea Elkarte Etnografikoari komodatu-kontratua zer zen eta batzordean hartutako erabakiak zein ziren azaldu behar zitzaizela, eta Iñigok esan zuen Artea Elkarte Etnografikoarekin hitz egingo zuela, hori asteazkenean izan zen. Ni astelehenean bulegora iritsi nintzenean EH Bildu taldearen posta elektronikoko bat aurkitu nuen eta bertan adierazi eta esaten zitzaidan hemen osoko bilkuran egiaz onartuko zen hitzarmenak zerikusirik ez zuela, edo oso gutxi izango zuela, bilkuran horretaz egiaz hitz egin eta jorratu zenarekin. Alkateak ez zuen Artea Elkarte Etnografikoarekin hitz egin, nik elkarteko pertsonetako batekin hitz egin nuen eta lan-zirriborrerik ez zutela esan zidan, ezta komodatu-kontratu bat zer zen eta zein baldintzetan ematen den adierazteko ezer ere. Nik Iñigorekin hitz egin nuen, hori ez zela bidezkoa esan nion, akordio bat erdietsi genuela eta berak batzordeko mahaikideei jakinarazi ziola, berak Elkarteari hitz egingo zuela, ez dena bidezkoa da bost egun beranduago bilkura hori ez egin izana, Elkarteari ez jakitea gaur hemen zer bozkatuko zen, izan ere, zertarako balio dit niri zerbaiti aldeko bozka ematea ondoren Elkarteari ados agertuko ez bada. Zeretik hasi beharko nintzateke berriro. Eta Iñigo, bada, berarekin hitz



egiten aritu nintzenean esan zidan bera agian puntu hori mahai gainean uztearen aldekoa zela. Esaten ari gara Elkartearekin eta talde politikoekin izan ditugun bilkuren barnean giden zerbitzua lehiaketara edo lizitaziora behingo ateratzearen kontua dagoela, 15 urte baitaramatza egoera ez legezkoan, edo azken hiruak behintzat bai, izan ere, berez hitzarmena iraungi egin zen 2015ean. Kontua da Elkarteak berak ez badauka Alderdi Popularretik lantzen aritu garen hitzarmena Udalak helarazi ez dielako, bada orduan arazo oso larria dugu, oso. Larria da, era berean, Alkateak puntu hori eguneko moziotik kanpo utzi nahi izana, izan ere, hori arazo hau hilabete edo bi hilabete aurrera eramatea izango zatekeen, ondoren onarpena, eta akordioaren planteamendua aldatu izana behin EH Bildu eta Alderdi Popularrak mozio alternatibo bat aurkeztu ondotik. Horixe da benetan kezagarria dena. Asteazkenean akordio bat erdietsi izana, akordio hori Artea Elkarte Etnografikoari helarazi ez izana, astelehenean Alderdi Popularra eta Bildu elkarrizketan hasi izana mozio alternatibo berri bat egiteko, eta azkenik EAJ taldeak bat egin izana jadanik mozio hori aurkeztuta zegoenean. Uste dut gobernuaren taldea ez dela behar adina bizkor ibili, eta batez ere ez zaizkiola helarazi, izan genuen azken solasaldian hala adostu bazen ere, Artea Elkarte Etnografikoari talde guztiek erdietsitako aurretiko akordioak. Uste dut hori larria dela. Izan ere, Udalaren eta Artea Elkarte Etnografikoaren artean ulermenik ez badago, ez dugu sekula lortuko museoa modu normal, arautu eta guztion adostasun osoarekin ireki ahal izatea.

Inmaculada Vivanco Retes: nik uste dut batzordean akordioa 2018. urterako egoera zer-nola ebatziko zen zehazteari buruzkoa zela, eta besteari dagokionez uste dut talde guztien aldetik egin zela asmoen azalpen bat guztiak ados azalduz lizitatzeko moduarekin, giden zerbitzuaren lizitazioa Udalaren aldetik egiteari buruz. Nik ikusten dudana, ez dakit zer demontre zuen edo zuela zirudien ezabatu den puntu honetan, ikusten dudana da proposatzen dela, ez dela ezer esaten eta ez dela ezer onartzen, Udalaren aldetik ebazteko proposatzen dela dio. Proposamen hori da, zera da, nik hala ikusten dut behintzat, 2019. urtetik aurrera kontuan hartzeko lan-ildo modura. Eta ez dakit zer egingo dudana, proposamen honetako akordioa baino ez da irakurri, xedapenen zatia, eta uste dut alferrikako pausorik inor ez dela ematen ari eta hartu eta zera irakurriko dut:

“Ikusirik 2004ko urriaren 21ean Artziniegako Udalaren eta Artea Elkarte Etnografikoaren artean sinatutako hitzarmena, zeinaren bidez Udalak egungo Arteko Aldapako 12. zenbakian kokatzen den antzinako Karmeldarren Ikastetxe zaharra modura ezagutzen zenaren udal jabetzako finka lagatzen baitu, Artziniegako Etnografia Museoa berrireki dadin, Udalak beregain hartzen dituelarik eraikin multzoaren eta finkako gainerako sailaren mantenu- eta kontserbazio-lanen gastuak..

Kontuan hartuz Artea Elkarte Etnografikoak Hitzarmenaren arabera Museoan burutzeko jardueren kudeaketa osoa beregain hartzen duela, haren funtzionamenduaren arduradun izanik, Museoaren kudeaketatik eratorritako gastuak osorik beregain hartuz eta Udaletxean hilerio saldutako sarreraren eta bildutako diruaren zenbatekoari dagokion diru-sarreraren zerrenda entregatzeko betebeharrarekin. Udala, bestalde, "diru-laguntzak" izeneko hirugarren klausulan beregain hartzen du, ekitaldi ekonomiko bakoitzean esleipen ekonomikoa eginez, Elkarteari diru-laguntza bat emango diola baitaratzen duen osoko kudeaketa burutu dezan. Adierazten da klausula hori 2004ko abenduaren 31n berrikusiko dela eta data horretatik aurrera, urtero, bisitari kopurua egiaztatu eta, horrenbestez, langileak kontratatzeko gastuak finantzatzeko diru-laguntza finkatze aldera, hura planteatzen diren beharrezkoen arabera gauza dadin. Horretarako, Artea Elkarte Etnografikoak diru-laguntzaren xede den burututako jarduera bakoitzari dagozkion gastu



eta diru-sarreraren laburpena eta fakturak aurkeztuko ditu sei hilean behin, dagozkion egiaztagiriak atxikiz.

Kontuan hartuz, 2018ko otsailaren 28an aholkularitza juridikoak horretarako lagatako udal higiezinan garatzen den Etnografia Museoaren jardueragatik Artea Elkarte Etnografikoari Udalak ematen dion diru-laguntza areagotzeko egokitasunari buruzko txostena eman zuela, soldata-igoerari aurre egin ahal izateko ARTADI sozietate zibilak proposatutako Hitzarmenera egoki dadin, harekin baitu Elkarteak kontratatuta Museorako gidarien zerbitzua. Txostenean desegokitzat jotzen da Artea Elkarte Etnografikoak soldata-igoera beregain hartzea, izan ere, esleipenerako aurkeztutako proposamenean, langileak Enpresa kontratatzailearen baitan daude eskusiboki, azken horrek indarreko legeria betetzeko konpromiso hartzen duelarik, jarduera bere kontu eta arriskura izanik (gidarien zerbitzuaren kontratazioko 5. oinarria). Desegokitzat jotzen da Elkarte kontratatzaileak kontratatutako langileen soldatetik eratorritako kostua beregain hartzeko eta bazkide autonomo jakin batzuentzat gerente baten soldata zehazteko (kasu honetan, bi bazkiderentzat) asmoa, autonomoen ordainsariarekin eta kotizazioarekin lotutako gastuekin batera. Helarazitako dokumentazioa ikusirik ikus daitekeenez, Artea Elkarte Etnografikoak 2005eko otsailaren 26an urtebeteko epez sinatutako gidarien zerbitzuaren kontratuak (urtero berritu zitekeena, 10 urte bete arte) 2015. urtean amaitu zuen bere indarraldia. Horrenbestez, egoki da kontratazio berria gauzatzea.

Kontuan izanik 2018ko martxoaren 23an Idazkari - Kontu Hartzailleak aurkako txostena igorri zuela Artea Elkarte Etnografikoak 2018ko martxoaren 1ean eskatutako diru-laguntza jasotzeko egindako eskaerari (572. sarrera-erregistroa) buruz, 2004ko urriaren 21ean sinatutako Hitzarmenaren hirugarren (diru-laguntzak) eta laugarren (eskubideak eta betebeharrak) klausuletan ezartzen dena ez dela betetzen ari adieraziz. Hurrengo alderdiak adierazten dira:

- Hitzarmena betetze aldera, Artziniegako Udalak 2018ko gastuen aurrekontuan, 2017. urtetik luzatutakoan, hurrengo aurrekontu-aplikazioak dituela kontsignatuta: 333.480.001 zenbakiduna 29.000 euroko zenbatekoaz eta Artea Elkarte Etnografikoarekin hitzarmenaren kontzeptuan egunero ireki ahal izateko; eta 333.480.000 zenbakiduna 6.000 euroko zenbatekoaz eta Artea Elkarte Etnografikoarekin hitzarmenaren kontzeptuan museoko jardueretarako.*
- Indarreko Hitzarmenaren laugarren hizpaketako lehen atala betez, Artziniegako Udalak lortu duela Arabako Foru Aldundiak 2018ko aurrekontuetan 35.000 euroko diru-laguntza nominatibo bat kontsigna dezala guztira 50.000 euro ingurukoa den gastu baterako, Udalak eraikinaren mantenu-lanen gastuekin, eguneroko irekitzearen gastuekin eta museoko jardueretarako gastuekin justifikatu behar duena.*
- Artea Elkarte Etnografikoak Museoa "egunero irekitzeko" aurkeztutako 2018. urterako jardueraren zuzkidura ekonomikoa hurrengo diru-sarreraren aurreikuspenetik abiatzen dela:*



<i>Instituzioa</i>	<i>Zenbatekoa</i>
<i>Eusko Jauriaritza</i>	<i>30.000,0030.000,00</i>
<i>Arabako Foru Aldundia</i>	<i>35.000,00</i>
<i>Artziniegako Udala</i>	<i>29.000,00</i>

- *Arabako Foru Aldunditik jasotako diru-laguntza aurrez aipatutakoa dela adierazten da, Udalak jasotzen duena hurrengo gastuetarako: Etnografia Museoko eraikina konpondu, mantendu eta kontserbatzekoa (2000); etnografia museoko berogailua (5000); Etnografia Museoko energia elektrikoa (3500); Etnografia Museoko igogailuaren mantenurako kontratua (1250); hitzarmena Artea Elkarte Etnografikoarekin -jarduerak- (6000) eta hitzarmena Artea Elkarte Etnografikoarekin -egunero irekitzea- (29000).*
- *Amaitzeko adierazten da Artea Elkarte Etnografikoaren asmoa Artziniegako Udalaren aldetik beste 29.000 euro jasotzea bada egunero irekitzeko beste diru-laguntza berri baten modura, ez dagoela aurrekontuen kontsignaziorik eta gainera laugarren hizpaketako lehen atala ez dela betetzen. Era berean, adierazten da dagoen Hitzarmenean egiten den edozein aldaketa Udalbatzak onartu beharko zukeela eta ez Tokiko Gobernu Batzordeak.*

Kontuan izanik, Artea Elkarte Etnografikoak idatzi hauek aurkeztu dituela udaletxean:

- *Apirilaren 12an, Unai Gotxi Kastrexana jaunak, Artea Elkarte Etnografikoko Idazkariak udal ordezkariak eta Elkarteko ordezkariak sinatutako dokumentua aurkeztu zuen, 2012ko martxoaren 12an egindako bilkuran hurrengo akordioak hartu zirela adieraziz:*
 1. *Artziniegako Udalak Artea Elkarte Etnografikoari Artziniegako Museoaan ematen direnaren antzeko gidarien zerbitzuaren inguruan eskatutako balioespen ekonomikoak bidaliko dizkio, hura jakinaren gainean egon dadin eta erreferentzia gisa baliagarri izan dadin 2018ko abenduaren 31rako kontratuzko harreman baterako.*



2. Artziniegako Udalak Artea Elkarte Etnografikoari Arabako Foru Aldunditik jasotako 35.000 euroak transferituko dizkio.
 3. Artziniegako Udalak Artziniegako Museoko 2018. urteko sarreraren dirua transferituko dio Artea Elkarte Etnografikoari. Bertaratu diren guztiak ados egonik eta Udalak horri buruzko akordioa hartuz.
 4. 2018. urtean Artziniegako Udalaren eta Artea Elkarte Etnografikoaren arteko hitzarmen berria idatziko da eta Artziniegako Museoko gidarien zerbitzurako lizitazio berriaren baldintzak ezarriko dira. Hitzarmena eta lizitazioa idazterakoan, Artziniegako Udalak bideragarritasun ekonomikoa bermatuko du hitzarmen horren indarraldian zehar.
- 2018ko apirilaren 16an, Unai Gotxi Kastrexana jaunak, Artea Elkarte Etnografikoaren Idazkariak, hitzarmenerako bi proposamen atxiki zituen datozen urteetan Elkarteak Udalarekin lotzekoa, adieraziz Elkarteak nahiago duela Udala izatea Artziniegako gidarien zerbitzuaren lizitazioa burutzen duena, hartako oinarriak elkarren artean ezarritz. Adierazten du aurrekoa burutzeko legezko eragozpenik balego, Artea Elkarte Etnografikoak ez lukeela lizitazioa burutzeko arazorik izango, betiere, bigarren proposamenean ezarritako oinarriak errespetatzen badira. Bi proposamenean, aldean betebeharre dagokienez, zera islatzen da:
1. Lehendabiziko proposamenean Udalak beregain hartzen ditu eraikinak eta finkaren mantenu eta kontserbaziotik eratorritako gastuak indarreko kontratuaren baldintza beretan, Etnografia Museoa irekitzeko, informazio turistikorako gunea irekitzeko eta garbiketako gastuetarako lizitazioa egin behar delarik, alde aurretik lizitazioaren oinarriak eta arauak Artziniegako Udalaren eta Artea Elkarte Etnografikoaren artean adosteko betekizunarekin.
 2. Bigarren proposamenean klausula jakin bat jasotzen da, eta bertan adierazten denez, Museoa eta Informazio Gune turistikoa irekitzeko kostuari aurre egin ahal izateko, Udalak aurrekontu-partidako esleipen ekonomikoarekin, eta dagokion ekitaldi ekonomikoko..... euroko zenbatekoarekin, Museoa bisita gidatu eta didaktikoekin irekitzeko, informazio turistikorako gunea irekitzeko eta museo multzoaren bi eraikinak garbitzearen ondoriozko gastuetatik eratorritako urteko kostua abalatu egingo du. Horretarako Elkarteari partida horren % 25 ordainduko dio utarrilaren, apirilaren, uztailaren eta urriaren hastapenean. Bestalde,

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Elkarteak emandako zerbitzuaren jarraipen bat egiteko eta hilerro saldutako sarreren zenbatekoa Udalaren kontuan sartzeko konpromisoa hartzen du.

- 2018ko apirilaren 16an, Unai Gotxi Kastrexana jaunak, Artea Elkarte Etnografikoko Idazkariak, Gobernu Batzordeak hartutako akordioak jakinarazi dadila eskatu zuen, Artea Elkarte Etnografikoak Artziniegako Museoko sarreren dirua jasotzekoa.

Kontuan izanik adostutakoaren arabera Artziniegako Museoak ematen duenaren antzeko kontratu baterako zerbitzuaren kostuaren balioespena burutu dela, prezio hauek ondorioztatuz:

ORDUEN KALKUKUA:

LANEGUN ORDUAK: 2724

JAIEGUN ORDUAK: 423

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN PREZIOA ANTZEKO KONTRATUAN

Laneguneko ordua BEZ gabe: 19,40

Jaieguneko ordua BEZ gabe: 22,28

Lanegun orduak: 52.845,6 €.

Jaiegun ordua: 9424,44 €.

Kostua orotara: 62.270,04 €.

KOSTUA OROTARA BEZ (% 10) BARNE: 68.497,04 €.

KALKULUA AHOLKULARITZAKO DATUEKIN

1. gidaria urteko lanaldia: 894 ordu/urte: 741 ordu lanegunetan eta 153 ordu jaiegunetan = III.
TALDEA: $(15,52 \times 894) + (3,94 \times 153) = 14.477,$

2. gidaria urteko lanaldia: 468 ordu/urte: 288 ordu lanegunetan eta 180 ordu jaiegunetan = III.
TALDEA: $(15,52 \times 468) + (3,94 \times 180) = 7.972,56$

3. gidaria urteko lanaldia: 1227 ordu/urte: 1152 ordu lanegunetan eta 72 ordu jaiegunetan = III.
TALDEA: $(15,52 \times 1227) + (3,94 \times 72) = 19.326,72$

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

4. gidaria urteko lanaldia: 561 ordu/urte: 543 ordu lanegunetan eta 18 ordu jaiegunetan = III.
TALDEA: $(15,52 \times 561) + (3,94 \times 18) = 8.777,64$

LANGILEEN KOSTUA OROTARA: 50.553,92 €

ENPRESA MOZKINA: 10.110,78

KOSTUA OROTARA BEZ (% 10) BARNE: 66.731,17 €.

ENPRESAK ESKATUTAKO ESKAINTZAREN KALKULUA

Langileen kostua: 49.862,41 €

Industria mozkina: 9.972,48 €

OROTARA BEZ (% 10) BARNE: 65.818,38 €.

Kontuan izanik Artea Elkarte Etnografikoak 30.000 euroko diru-laguntza bat jasoko duela Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Arabako Foru Aldundiak emanda Artziniegako Udalaren bi diru-laguntza jasoko dituela, 6.000 euroko zenbatekoaz 333 48000 partidaren kontura kultura jarduerak burutzeko, eta 29.000 euroko zenbatekoaz 333 48001 partidaren kontura Museoa egunero irekitzeko, horrek suposatzen du guztira 65.000 euroko diru-laguntza jasoko duela, eta horietatik 59.000 euro bideratzen dira Museoa irekitzera.

Elkarteak gidarien zerbitzua kontratatzeko sinatutako kontratua amaituta eta aurrez adierazitako zerbitzuaren balioespena ikusirik, egokitzen da 2018. ekitaldirako gidarien zerbitzuaren kontratazioa, Arabako Foru Aldundiak antzeko kontratazio baterako ezarritako prezioaren lizitazioa abiapuntutzat hartuz, 68.497,04 euroko lizitazio motatik abiatu behar izatea. Jarduera pribatu bat denez, Udalak ez ditzake kuantifikaziorik eta mugarik gabe abalatu Elkarteak planteatutako aurrekontuzko aurreikuspenak, baina Museoaren jarraikotasuna bermatu ahal du haren kudeaketa beregain hartuz. Horrek kontratazioa Udalak berak Elkarteak proposatutako moduan burutzea ahalbidetuko du. Gaur egun, Hitzarmenaren arabera, Udalak beregain hartzen ditu higiezina mantendu eta kontserbatzeko gastuak eta diru-sarrera modura jasotzen ditu sarreraren ondorioz jasotako zenbatekoak.

Kontuan hartuz maiatzaren 11n Artea Elkarte Etnografikoaren aurrekontu-proposamena aurkeztu zela, non diru-sarreraren 91.436,92 euroko orotariko aurreikuspen bat jasotzen baita, zeintzuetatik 71.622 euro diru-laguntza publikoetatik baitatuz. Sarreraren salmenten ondorioz 15.000 euroko diru-sarrera bat aurreikusten da, Udalak onarpena emateko zain, izan ere, Hitzarmenean sarreraren salmenten ondoriozko zenbatekoak Udalari ematea aurreikusten da. Salmenten eta ekarpenen ondoriozko gainerako diru-sarrerak 4.814,92 eurokoak dira.

Kontuan hartuz Museoaren kudeaketa pribatuaren egoera ekonomikoa ikusirik finantzaketa % 95ean diru-laguntzak jasotzearen baitan dagoela, Artziniegako Udalaren eta Elkartearen arteko

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

datozen urteetarako Hitzarmena berrikustea proposatzen da, eta 2018. ekitaldirako irtenbide modura, 2004ko urriaren 21ean sinatuta dagoen Hitzarmena luzatzea proposatzen da baldintza beretan, LAUGARREN hizpaketan adierazitakoaren salbuespenarekin:

“Bigarrena.- Artea Elkarte Etnografikoak konpromiso hauek hartzen ditu:

• Etnografia Museoan burutzeko jardueren osoko kudeaketa burutzea, haren funtzionamenduaren arduradun izanik, Udalari urtero, urtarrilean, jardueraren urteko aurrekontua helarazteko betebeharrarekin, gutxienez, kontzeptu hauetan banakatuta:

- Langileen gastuak*
- Bulegoko materiala, informatikakoa barne*
- Garbiketa*
- Funtzionamendu-gastuak; ikastaroak, konferentziak eta erakusketak antolatzea.*
- Aseguruak (lapurreta, sutea, erantzukizun zibila)*

• Museoko jardueraren kudeaketatik eratorritako gastuak beregain hartzea osorik.

• Hilerio saldutako sarreren eta bildutako diruaren zenbatekoa Caja Vital kutxaren 2097 0207 81 0115355032 kontuan Artziniegako Udalaren izenean sartu izanaren laburpena”.

Hizpaketa hau 2018ko ekitaldi honetarako soilik aldatzen da eta horrela idatzita geratzen da:

“Bigarrena.- Artea Elkarte Etnografikoak konpromiso hauek hartzen ditu:

• Etnografia Museoan burutzeko jardueren osoko kudeaketa burutzea, haren funtzionamendu onaren arduradun izanik, Udalari 2018ko ekitaldirako jardueraren diru-sarrera eta gastuen aurrekontua aurkezteko betebeharrarekin, gutxienez, kontzeptu hauetan banakatuta:

- Langileen gastuak*
- Bulegoko materiala, informatikakoa barne*
- Garbiketa*

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

- Funtzionamendu-gastuak; ikastaroak, konferentziak eta erakusketak antolatzea.
- Aseguruak (lapurreta, sutea, erantzukizun zibila)
- Museoko jardueraren kudeaketatik eratorritako gastuak beregain hartzea osorik
- 2018ko ekitaldi honetan Artea Elkarte Etnografikoak izango du sarreren salmentaren ondoriozko diru-bilketa. Haatik, hiru hilean behin saldutako sarreren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu udaletxean.

Gehiegizko finantzaketa ematen bada, 2018. urtearen amaieran, Elkarteak soberako finantzaketa itzuli beharko dio Udalari".

Inmaculada Vivanco Retes: 2019ko ekitaldirako puntua, ezabatu dena, zera dioena:

"2019. ekitaldirako eta hurrengoetarako, Museoaren irekieraren jarraikotasuna eta bideragarritasuna bermatze aldera, Hitzarmena aldatzea proposatzen da, Artziniegako Udalak Museoaren kudeaketa beregain hartuz, alde zurretik museoko funtsak doan laga edo mailegatuz (komodatua).

Gainerakoa: "Horri buruz Euskadiko Museoen abenduaren 1eko 7/2006 Legean nahiz Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu eta museo edo bildu bat «Euskadiko Museoa» edo «Euskadiko Bilduma» dela onartzeko aitortpena arautzeko ekainaren 21eko 132/2011 Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuz».

Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatua; nahiz Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan eta toki araubideari dagokionez aplikagarri diren gainerako araudietan xedatua.

Udalbatza honek, ohiko osoko bilkuran, 2018ko ekainaren...(e)an elkartuta, (gehiengo adierazi)...ren arabera. ADOSTU DU"

dagoeneko irakurri dena, orduan testu honetan guztian zehar esaten dena baikorra dela uste dut, 2018ko urte osoan zehar landu dena aipatzea da, eta ez dut ikusten arazorik hau inon azaltzeko. Eta kontratu bat zer den jakiteari buruz, komodatu-kontratuak zer suposatzen duen jakiteari buruz, dakidanez, taldeek Elkartearekin izan dituzten aurreko bilkuretan, eta zerbitzu juridikoen aldetik zegoen aurreko txostenean jorratu da eta azaldu da komodatu-kontratu batek zer suposatzen duen.

Alkatea: haatik, proposamenean puntu hori, 2019koa ez da jorratzen. Egia da asmoen adierazpen hutsa eta Artea Elkarteak aurkeztu dituen idatzi guztien erantzun bat baino ez zela, lanerako beste alternatiba baten modura besterik gabe, baina adostasun batera iristeko xedez,



bada puntu horiek, 2019. urteari dagozkionak ezabatu egiten dira, eta xedapen zatia soilik jasotzen da 2018. urteari dagokionean. Zerbait esan nahi duzue?

Joseba Vivanco Retes: nik uste dut azalpena, EH-Bildu taldetik egin duguna, Arkaitzek egin duena, uste dut nahiko neurritsuak izan garela, errespetuz jokatu dugu, Josebak sakonago heldu dio gaiari, apur bat sutsuagoa izan da, baina tira, gauzak zehaztearren, EAJ taldeak dio ez duela ulertzen nola kasu honetan PP eta EH Bildu taldeek, izan ere, Josebak azaldu duenaren arabera, ez du ulertzen zergatik ez garen sartzen Artea Elkarteari sinatu nahi den hitzarmenaren indarraldian zehar museoak piezak Udalari laga diezazkiola planteatzeko akordio bati buruzko bigarren puntu horretan, komodatu ezaguna. Nik egiaz ulertzen ez dudana da EAJ taldeak zergatik barneratzen duen, apur bat hori adierazi nahi izan baitu Josebak. Hau da, Inmak adierazi du lan-ildo bat dela, lan-ildo bat dela adostu zela, nik ez dut oroitzen Osoko Bilkura batera batzorde batean jorratzen den gauza baten lan-ildo bat ekartzen denik onarpenera. 17.000 gauza jorratzen dira batzordeetan, planteatzen dira, baina ez da Osoko Bilkura batera ekartzen nik ez dakit zeri buruzko lan-ildo bat adosteko asmoz. Nik ulertzen dut Osoko Bilkuran hainbat gauza onartzea, esate baterako, sarreraren kasuan, erabakitzea museoak sarrerekin eskuratzen duen dirua museoan gera dadila eta ez dadila Udalera entregatu orain arte egiten zen moduan. Baina, are gehiago, Josebak ongi esan duen moduan, batzordean adostu zen Alkateak ideia hori Arteari helaraziko ziola hark zer-nola jasotzen zuen jakiteko, ontzat hartzen ote zuen, edo ez, ala bai, eta guk ere iritzi bat izan dezagun Arteak pentsatzen duenari buruz. Hau da, hori telefono bidezko dei batekin egin zitekeen, solasaldi batean edo bilkura batean. Planteamendu bat erantzuten didazu, nik berriro diotsut, negoziazio bat. Hortik Osoko Bilkura ekartzea, nik egia esan ez dut ulertzen zer ari den EAJ taldea prestatzen gai honekin, nolabait esatearren. Ez dut ulertzen. Kentzea? Normala iruditzen zait. Osoko Bilkurara gentozen jakin gabe kenduko ote zuen, planteatu egingo ote zuten eta planteatzen baduzue, ni are gehiago harrituko nintzateke. Tematu izan bazinate mantentzen, ideia hori helaraztea batzorde bateko akordio bat zenean, Osoko Bilkurara deus ekarri gabe. Ondoren hitzaurrea aipatzen duzue, ez duzuela ulertzen zergatik ez gauden ados edo zalantzak ditugun hitzaurrearekin. Tira, lehen lerroaldearekin hasten baldin bagara, zera dio: *“Artea Elkarte Etnografikoaren eskaera, sinatutako hitzarmena aldatzekoa, 2018ko ekitaldiari dagokionez sarreraren diru-bilketaren ondoriozko sarrera ahalbidetuz”*, eta uste dut ez nabilela oker esaten dudanean martxoaren 13ko bilkuran Alkateak proposatu zuela sarreraren dirua Artearentzat gera zedila, hau da, ez zela Artea izan proposatu zuena sarreraren diruarekin bera gera zedila, Alkatea izan zen proposamena luzatu zuena. Eta lehen lerroaldeak ez du zerikusirik errealtatearekin. Eta gero, Alkatearen azken esaldiak airean uzten du. *“Arteak igorri dituen idatzi guztiak hemen islatzen da erantzun egin direla”* esan du. Uste dut horixe esan duela hitzez hitz. Beno, ziurrenik guri ez dizkigu azalpenak eman behar, Arteari baizik, hark eskatu baitzizkion. Eta 2018ko apirilaren 17an Arteak hemen jasotzen ez den idatzi bat erregistratu zuen. Bertan esaten denez, Alkatetzatik 3 eskaintza ekonomiko aurkeztu zitzaizkion gidarien zerbitzuak izan zezakeen kostuari buruz. Hiru proposamen horiek igorri zitzaizkion Arteak eskatuta, Arteak gidarien enpresari helarazi zizkion, Artadiri, Artadik bere aholkularitzari helarazi zizkion, Udalak duen aholkularitza bera dena, edo Udalak eskatu duena. Eta aholkularitza hori, eta irakurri egingo dut ez baitut hanka sartu nahi, eta hau Arteak dio: *“aipatu digutenez Ayala aholkularitza lan-kategorien bi proposamen egin zizkiguten lan-hitzarmenean jasotzen direnekin alderatuz ezberdinak, Udalak soldataren estimazio bat kalkulatzeko igorritako langile batzuen ordu batzuetan oinarrituta, nahiz eta guk soilik bat jaso dugun. Gainera, ziurtatu digute Aholkularitzak ez zuela bere estimazioan BEZ zerga barneratu, ezta enpresa-mozkina ere. Horrenbestez, alkateak martxoaren 2ko bilkuran eskatu behar zuena ez da Elkarte honek jaso duena, beraz gidarien zerbitzuaren balioespen ekonomikoak eskatzen dizkiogu.* Hau da, beste balioespen bat



eskaten dute, haien arabera Udalari igorri zitzaiona, baina Udalak gorde eta Arteari igorri ez ziona. Idatzi horrek badu erantzunik? Uste dut ezetz. Idatzi hori jasota al dago hitzaurre honetan? Ezta ere. Idatzi guztiak erantzun al dira? Ez dira idatzi guztiak erantzun. Komodatuaren gaia, eta lehengoari heltzen diot berriro, erabaki dugu, eta batzorde hartan guztiok adostasunez erabaki genuen Artea Elkarteari komodatu ezagunaren ideia hori helaraztea, horrek ez du esanahi komodatuarekin ados gaudenik, ezta komodatu sinatzen dugunik ere, ezta bai ala bai hori izan behar denik hautua. Adostasuna izan zen helarazi zedila, izan ere, EH-Bildutik behin baino gehiagotan eskatu dugu esatea Udalak gidarien zerbitzuaren lizitazioa beregain har dezan ea beharrezkoa den pieza horien lagapen hori Udalari denbora horretan zehar. Behin eta berriz eskatu dugu. Esan dadila Eusko Jaurlaritzaren, edo dena delakoaren lege, erregelamendu edo dekretu batean. Oraindik bakar bat ere ez zaigu aurkeztu, deus ez. Soilik “ez, hala izan behar du eta” esaten zaigu, ez. Inork ez du deus aurkeztu zer esanez. Ez dugu esaten onena edo okerrena denik hori, baina inork ez du ezer aurkeztu esanez hori derrigorrezkoa dela. Udalaren Ekain aholkularitzaren txosten bat aipatzen zaigu. Hor ez da ezer aipatzen. Esaten duzuen aldiro “izan ere, Ekainek egindako txostenean aipatzen da”, gezurra da, hor ez da ezer aipatzen. Esaten den bakarra da desagertzen bada, museoa ixten bada, piezekin zer gertatzen den, baina besteari buruz ez da ezer adierazten. Orduan, oso ongi, museoari ideia hori helaraziko diogu, hori izan baitzen erabaki zena, baina jakinik momentuz inork ez duela ezeren justifikaziorik aurkeztu. Orduan argiak izan gaitezen gauzekin. Ez ezazue esan ez duzuela ulertzen zergatik gu, EH-Bildu taldea, EAJ taldeak agintzen duen gauza baten aurka ipintzen garen, ustez guztiok adostutakoa zenean. Ez, ez da hala, eta uste dut Josebak ere nahiko ongi azaldu duela. Beraz.

Arkaitz San Jose Martinez: guk EH-Bildu taldetik behin eta berriz adierazi dugu hemen dagoena dela guztiok proiektua defendatzea, orokorrean aldean artean konfiantza izatea, ebaztea egungo egoera zertan geratzen den eta etorkizunera begira jar gaitezen eta, ez dakit, jendeak epaituko du, gobernuaren taldeak dakarren proposamenaren zioen azalpena entzun duenak, horrek laguntzen ote duen ala ez konfiantzak sortzeko, etengabe esaten denean “museoak ez duelako egin, hau gaizki dagoelako...”. Guk esaten genuen konpon dezagun, gainera adostasuna dugu, ebatzi dezagun zertan den 2018. urterako, ez dezagun gehiago nahasi gaia, horregatik eta batez ere kontu politikoari buruz hitz egin zen, izan ere, alderdi teknikoak bermeak eta gainerakoak izan beharko dituela pentsatzen dut, baina ikus dezagun, gaindituta dugun gauza bat da, suposatzen da, orduan errepara diezaiozun lehenbailehen 2018an zer-nola geratzen den ikusi eta 2019. urteari begira ipintzeari. Hori da apirilaren 16an adostu zena, eta idatzi mordo bat irakurri duzue, elkarteak hau aurkeztu duela... Esan ez duzue, izan ere, idatzirik ez dagoenez ez da erregistratuta geratzen, zera da, apirilaren 16tik Elkarteari ez dela bilkurarik egin. Eta hori da jarduteko modua. Hori da ulertzen ez duguna. Eta gainera hau aurkezten duzue eta gure ustez nekatu egiten du pixka bat, eta batak bestearekiko konfiantzarik ez badauka, guztiok norabide berean ez bagoaz, etorkizunean museoa zer-nola jorratuko dugun hitz egiten serioski ipintzen ez bagara, ezinezkoa da baterako proiektu bat eraikitzea. Eta joan den egunean esan nizuen, eta utzi egin behar diogu... Izan ere, arazo nagusia, museoaren zerbitzuaren mehatxu nagusia da une jakin batean Udalaren gainera dauden instituzioek laguntza ekonomikoa emateari uztea. Eta guk hemen “zer egingo dugu, nola egingo dugu...” diogun bitartean hor goran ez dute eztabaidan parte hartzen. Orduan, berriro diogu, elkarrekin joan gaitezen, ardura handiz joan gaitezen eta aldean artean kontsultatuz joan gaitezen, hala kontu politikoari dagokionez nola Elkarteari hitz eginez zer-nola egin dezakegun, eta gero biharko egunez udalaz gaindiko edozein instituziok esaten badu ez dagoela, izan dezagun batek bestearekin nahiko konfiantza guztiok elkarrekin joateko esatera haien erantzukizuna ere badela egunen batean museoa ixten bada. Ados? Horregatik uste dugu, eta berriro diot, jendeak



epaituko du egin duzuen zioen azalpenak laguntzen duen ala ez. Gure ustez ez du laguntzen, eta horregatik nahiago genuen zuhurragoak izan, zehatzagoak, dagoeneko gainditu dugun kontu bat gehiago ez nahastea, izan ere, dagoeneko esan dugu 2018ko urte hau horrela ebatziko dela, eta jar gaitezen lanean datorren urteko proposamenean.

Alkatea: zioen azalpenari buruz hitz egin gabe, xedapenen atala jasotzen zenaren berdin-berdina da. Berdina da.

Arkaitz San Jose Martinez: ontzat ematen ez duguna, gure ustez ezertan laguntzen ez duena eta aitzitik gaizkiulertuak sorrarazi ditzakeena...uste dugu gaizki dauden gauzak aipatzen direla etengabe, eta horrek ez du laguntzen, izan ere, akordioa dagoeneko hartuta baldin badaukagu...

Inmaculada Vivanco Retes: esan berri duzunari buruz, agian bakoitzak zer-nola ikusten duen da kontua. Nik xedapen bat dela ikusten dut, egoeran jartzea dela, ez da gaizki dauden gauzen zerrenda bat. Nik ez dut hala ikusten, inondik ere ez. Izan ere, nik ez dut oker dauden gauzen zerrenda modura ikusten, baizik eta egoeraren azalpen modura, horrela, besterik gabe.

Arkaitz San Jose Martinez: Eta zertan laguntzen du erabaki bat hartzeari begira?

Inmaculada Vivanco Retes: jatorria azaltzeko eta hemendik urte batzuetara akordioa nola hartu zen ikustera etortzen direnean, akordioa zergatik hartu den jakin dezaten.

Arkaitz San Jose Martinez: ez, izan ere, azalpenaren atalean ez duzu laguntzen, "kalkulua gaizki eginda dago, ezinezkoa zen hainbesteko gastua" esaten duzu eta, halere, gastu hori egiteko sarrerak erabiltzea onartzen dugu. Gauza bat xedatzen ari zara, ondorio modura ez dakarrena hartzen duzun akordioa. Ez du zentzurik. Halaxe ikusten dut nik.

Inmaculada Vivanco Retes: zu azaltzen ari zara kontu bat dagoela ebatzi beharrekoa, orduan 2018. urte honetarako irtenbide hau proposatzen da, eta esaten duzu 2019. urteari begira nondik jo proposatzen dela. Kito. Kendu egin da, kito, besterik gabe.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni alde egon naiteke, izan ere, azken batean zioen azalpena edo hitzaurrea gaur hemen hartuko den akordioaren barnean egon daitezke, baina Josebak esan duen moduan lehendabiziko lerroaldean jadanik egia makurtzen ari bagara, lehen puntua mahai gainean ipini zuenak, bada ez nau harritzen EH-Bildu taldetik zalantzak izatea, eta zer esanik ez hau azaldu bagenio, akordio hau hemen onartu aurretik, Elkarteari berari azaldu izan bagenio. Hitz mesfidantza dela uste dut. Mesfidantza Udalak Elkartearekin, eta Elkartek Udalarekin. Zergatik? Egun guztia saltsa nahasten ari garelako. Gurpil-zorua da. Ez gara zuzenak, ez gara argiak, gauzak ez ditugu hitz egiten, bakoitza bere txokoan ixten gara, gure eskolean sartuta, eta kito. Nik uste dut ildoa lehen esan dudana dela, joan den asteazkenean batzorde batean hartutako akordioak Arte Elkarte Etnografikoari helaraztea adostu bazen, bada hori zen egin beharrekoa, gobernuko taldearen aldetik eta Alkatearen aldetik. Berak halaxe adierazi zigun, berak Artea Elkarte Etnografikoarekin hitz egingo zuela eta azaldutako akordioen berri emango ziela, tartean komodatu-kontratuarena, zerbitzu juridikoen aldetik hori izan behar da Udalak gidarien zerbitzua lehiaketara atera ahal izateko formula, eta oker ez banago, uste dut talde guztiak ados gaudela Udala bera izan dadin atera behar duena, eta hori ez da egin, gobernuko taldearen aldetik hori ez da egin. Eta hitzaurre bat ekartzen dugu hona, zioen azalpen bat, eta ekartzen dugu komodatu-kontratuaren bidez Artziniegako Udalak lehiaketa publikoa atera izango duela edo gidien zerbitzua lizitaziora atera ahalko duela, baina Artea Elkarte Etnografikoa testuarekin ados dagoen ala ez jakin gabe. Zertarako balio dit niri gaur hau babestea Elkartek

Ayuntamiento de Artziniega

(Alava)



Artziniegako Udala

(Araba)

ez badu haren berri, ez badaki zeri heldu, eta etorkizunean agian ezetz esango badu. Nik nahiago dut joan den asteazkenean erdietsi genituen akordio argiei heltzea, zehatzei, eta lanean hastea, Arkaitzek esan duen moduan, etorkizunari so. Etorkizunari begira, jakina, Elkartearekin hitz egin behar da, komodatu-kontratu bat zer den azaldu behar zaie, akordioak erdietsi behar dira, irekiera, itxiera, zenbateko ekonomikoa, dena. Hitzarmen berri bat museo hori, guztion museoa dena, ez soilik Artziniegako herritarrena, baizik eta arabar guztiena, euskaldun guztiena eta espainiar guztiena, irekita manten dadin eta orain arte egiten aritu dena egiten jarrai dezan. Eta uste dut gure betebeharra eta gure eginkizuna, elkartearekin berarekin honek funtzionatzen jarraitu eta lana azken 20 edo 40 urtetan garatu dugun moduan izaten jarraitzeko akordio batera iristeaz gain, ildo horretan lanean jarraitzea dela, izan ere, Arkaitzek ere ongi esan duen moduan, honetan Udalez gaindiko bi administrazioak barneratzen badira, hots, Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaz, museoarekiko oso hitz politikak esaten dituztenak, baina oso inplikazio urria dutenak, eta batez ere Eusko Jaurlaritzaz ari naiz. Zer suposatzen dio Eusko Jaurlaritzari 30.000 euro edo 40.000 edo 100.000 euro urteko bere aurrekontuetatik guztiona den museo hau irekita manten dadin, guztion ondarea dena, ez baitut uste horrenbeste pieza eta horren ondo katalogatuak dituen beste museorik egongo denik? Uste dut ez diela ezer suposatzen. Baina noski taldeen aldetik borondate politikorik ez badago, azken batean hemen borrokan arituko gara hiru taldeak, Artea Elkarte Etnografikoarekin eskutik lanean egongo gara ala ez gara egongo nire ustez guztiona den eta mantendu beharrekoa den zerbaiten etorkizunaren alde.

Alkatea: beno, besterik gabe, bozkatu egingo dugu. Orduan, lehendabizi bi lerroaldeak aldatuta igorri den proposamena, Inmak aipatu duena.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Joseba Vivanco Retes eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu alderditik (2); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (3);

Onartuta geratzen da, Alkatearen kalitateko botoarekin.

Alkatea: eta gero aurkeztutako mozioari dagokionez ere bozkatu egingo dugu.

Bozkatu egin da.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Kontrako botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (3);

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu alderditik (2); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Ez da onartzen.

Alkatea: onartuta geratzen da. Xedapenen atala berdin-berdina da.

Joseba Vivanco Retes: galdera bat. Aurreko mozioan bozkatu duzuen zerbaiten aurka bozkatu duzue?

Inmaculada Vivanco Retes: formatu horretakoa. Zuek ere kontrari bozkatu duzue lehendabizikoan.

Alkatea: zuek bezalaxe Joseba. Berdin-berdin.

Joseba Vivanco Retes: itxaron argituko dizut, guk kontrari bozka eman dugu hor ipintzen duen guztiari, hau da, hitzurre hori guztiari, zioen azalpen hori guztiari. Baina zuek aurkako bozka ematea zuenean hitzez hitz islatzen den gauza bati...

Joseba Elejalde Ribacoba: hitzez hitz.

Inmaculada Vivanco Retes: horrexegatik onartu dugu. Akordioa onartuta dago.

Alkatea: gauza bera da, berdin-berdina. Ez guri esan zer egin dugun zuek ere gauza bera egin duzue eta.

Joseba Vivanco Retes: beno, eskerrak galderak formen aurka zaudetela esateko aukera eman dizuen, ados. Bestela, hemendik 40 urtera irakurtzen duenak, esango zuen...

Alkatea: hurrengo puntura pasako gara.

3.- Zerbitzu publikoak eman eta administrazio-jarduerak burutzearen ondoriozko tasak arautzeko Ordenantza fiskaleko IX. epigrafearen aldaketa behin betikoz onartzea.



“2018KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Ikusirik 2018ko otsailaren 8an Udalbatzak Zerbitzu publikoak eman eta administrazio-jarduerak burutzearen ondoriozko tasak arautzeko Ordenantza fiskaleko IX. eranskineko zaborren bilketarako zerbitzu publikoaren prestazioari dagokion f) epigrafea hasiera batean aldatzea onartu zuela.

Akordio hori 2018k martxoaren 26ko 36. zenbakidun ALHAO aldizkarian argitaratu zen, eta jendaurrean erakusteko epea 2018ko maiatzaren 11n amaitu zen.

Jendaurrean izandako epean zehar akats bat hauteman da Ingurumen arloko Teknikariak emandako datuetatik abiatuz eratutako hurrengo taularekin bat etorri hasiera batean onartu ziren “hotelak, jatetxeak, kasinoak” izenekoari dagozkion tarifa progresiboetan.

Zabor-bilketarako tasak	2018ko tarifa Lehen seihilekoa	2018ko tarifa Bigarren seihilekoa	2019ko tarifa	2020ko tarifa	2021eko tarifa
Hotelak, jatetxeak, kasinoak	61,50	53,54	107,07	120,46	133,84

Horregatik, Ingurumen arloko Teknikariari eskatu zaio zenbatekoak berrikusi eta txostena era dezala, udal Erregistroan aurkeztu beharko duena **jatorrizkoa data ipinita eta sinatuta.**

Ikusirik Ingurumen arloko Teknikariaren 2018ko maiatzaren 29ko txostena, 1467 zenbakidun sarrera, F) epigrafea aldatu egiten da aipatu puntuan, horrela:

Zabor-bilketarako tasak	2018ko tarifa Lehen seihilekoa	2018ko tarifa Bigarren seihilekoa	2019ko tarifa	2020ko tarifa	2021eko tarifa
Hotelak, jatetxeak, kasinoak	61,50	71,04	142,08	159,84	177,60



Azaldutako guztia oinarritzat hartuta, Antolaketa Informazio-batzorde honek Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo,

AKORDIOA:

LEHENA. Zerbitzu publikoak eman eta administrazio-jarduerak burutzearen ondoriozko Tasak Arautzeko Ordenantzako tarifen aldaketari behin betiko onarpena ematea, Artziniegako udalerrian, jarraian jasotzen den moduan idatzita:

ZABORREN TASA IGOTZEKO PROPOSAMENA	2018, 1.	2018, 2.	2019	2020	2021
<i>Egoitzak</i>	77,11	89,50	179,00	201,37	223,75
<i>Tailer mekanikoak, garajeak, granjak, gasolindegiak.</i>	36,05	41,85	83,69	94,16	104,62
<i>Ikastetxeak, aterpetxeak</i>	61,50	71,38	142,76	160,61	178,45
<i>Artziniegako Etxebizitzak</i>	28,63	33,23	66,46	74,77	83,08
<i>Tabernak</i>	36,05	41,85	83,69	94,16	104,62
<i>Fabrikak</i>	110,27	127,98	255,95	287,95	319,94
<i>Komertzioak</i>	36,05	41,85	83,69	94,16	104,62
<i>Erakundeetako etxebizitzak % 50</i>	14,32	16,33	32,66	36,74	40,82
<i>Hotelak, jatetxeak, kasinoak</i>	61,50	71,04	142,08	159,84	177,60
<i>Bulegoak, txokoak, elizak</i>	36,05	39,63	79,26	89,16	99,07

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

BIGARRENA. Udal Ordenantza hori Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea osorik.

HIRUGARRENA. Alkate-Presidente jaunari gai honekin lotutako dokumentu oro sinatzeko eskumena ematea”.

Alkatea: Puntu hau hotelak, jatetxeak eta kasinoak epigrafearen zuzenketa bat da, zabor arloan, non jaso behar baita 2018ko lehen sei hilabeterako dela 61,50, bigarren sei hilabeterako 71,04, 2019. urterako 142,08, 2020. urterako 159,84 eta 2021. urterako 177,60. Baduzue ezer esateko?

Joseba Vivanco Retes: ez, gure aldetik soilik esan mantendu egingo dugula gai hori osoko bilkurara ekarri zenean eman genuen bozka.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu taldetik (1);

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes eta Arkaitz San Jose Martinez, EH-Bildu alderditik (2);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

4.- Etxez etxeko zerbitzuaren prezio publikoen aplikazioa arautzeko Ordenantzari hasierako onarpenera ematea.

Alkatea: aurreko osoko bilkuran mahai gainean utzi zen txosten ekonomiko eta finantza arlokoa falta zela eta.

“2018KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.



Kontuan hartuz, 2018ko apirilaren 25eko Alkatetzako Probidentziaz, Idazkaritzako txostena eskatu zela Arabako Foru Aldundiak eraturako Etxez Etxeko Laguntzarako gizarte Zerbitzua arautzeko udal Ordenantza onartzeko prozedurarekin eta aplikagarri den Legeriarekin lotuta.

Ikusirik Eudel erakundeak burututako ikerketa ekonomiko eta finantza arlokoa 2018ko maiatzaren 16an 1335 zenbakiarekin eta 2018ko maiatzaren 17an 1350 zenbakiarekin erregistratutako dokumentuen arabera, hauek dira Artziniegako Udalerako datuak:

Erabiltzaile kopurua	Erabiltzaile kopurua (%)	Langileen urteko gastua	Langileen hileko gastua
24	% 2,27	1.247,28 €	103,94 €

2018ko maiatzaren 30ean egindako Antolaketa Informazio-batzordeak Irizpena emanda, Udalbatzari proposatzen zaio har dezala hurrengo,

AKORDIOA

LEHENA. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoen aplikazioa arautzeko Ordenantzari onarpena ematea espedientean agertzen diren baldintzetan, jarraian jasotzen den moduan idatzita:

« ARTZINIEGAKO UDALAREN ORDENANTZA FISKALA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

1. artikulua.- Xedea

Ordenantza honen xedea da arautzea Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren prezio publikoen aplikazioa; hain zuzen ere:

Zerbitzuaren erabiltzaileak prezio publikoa ordaintzean nola lagundu behar duen ezartzeko irizpideak.

Sortzapenean eta ordainketan aplikatuko diren irizpideak.

Prezio publikoak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa zehazteko irizpideak.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Prezio publikoen zenbatekoak ezartzea, bai eta erabiltzaileen ahalbide ekonomikoaren arabera aplikatuko diren hobariak ere.

2. artikulua.- Eremua

Zerga Ordenantza hau Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari aplikatuko zaio, bai zuzenean kudeatzen bada, bai beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen bitartez kudeatzen bada, bai erakunde pribatuekin sinatutako itunen, hitzarmenen edo kontratuen bitartez kudeatzen bada.

3. artikulua.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

Honako hauek ordaindu behar dituzte prezio publikoak:

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua zuzenean erabiltzen duten pertsona fisikoak, baldin eta 1. paragrafo honen b) eta c) letretan aipatutako egoeretan ez badaude.

Zerbitzuaren erabiltzailea adin txikikoa baldin bada, bere guraso ahala daukaten pertsonak (edo pertsonak) edo babesak edo zaintza daukaten pertsonak (edo pertsonak) ordaindu beharko dute.

Erabiltzaile helduek legezko ordezkari edo egitatezko zaintzaile baten bitartez jarduten badira, zerbitzua jasotzeko erregelamenduan ezarritako baldintzen arabera, ordezkari edo zaintzaile horiek ordaindu beharko dute. Dena den, kasu horietan, ordainketa zordunduko da ordezkariaren pertsonaren errentan edo ondarean, eta zenbatutako ahalmen ekonomikoa izango da pertsona ordezkatuarena.

Hala badagokio, prezio publikoa modu subsidiarioan ordaindu beharko dute honako pertsona hauek egindako doako eskualdaketa jaso duten pertsonak: erabiltzaileak; artikulua honen 1. zenbakiaren arabera ordainketa egin behar duen pertsonak; edo 60 urtetik aurrera edo zerbitzu eskaera egin aurretiko 10 urtean erabiltzailearen ezkontidea izan denak edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman baten bidez erabiltzailearekin lotuta egon den pertsonak –zerga ordenantza honen lehen xedapen gehigarrian harreman hori zehaztu den baldintzetan—. Ordaindu beharrak muga bat dauka: gehienez ere eskualdatutako ondasunen edo eskubideen merkatuko balioa zorra eskatzen den unean.

I. TITULUA: ERABILTZAILEAREN PARTAIDETZA EKONOMIKOA

4. artikulua.- Prezio publiko osoa ordaintzea



Zerga Ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, Etxez Etxeko laguntza zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak dagokien prezio publiko osoa ordainduko dute, baldin eta behar besteko ahalmen ekonomikoa badute, eta, edonola ere, prezio hori ordaintzeko beharrezko bermeak egitea eskatu ahal izango zaie.

1. paragrafoan ezarritakoa betetzeko, zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak behar besteko ahalmen ekonomikoa dutela joko da kasu honetan: ahalmen ekonomikoa, zerga ordenantza honen III. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera zenbatua, II. eranskinean zehaztutako mugak bezain handia edo horiek baino handiagoa bada, zerbitzu mota kontuan hartuta.

Zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa artikuluan honen 2. paragrafoan ezarritako mugen azpitik badago, 3.2 artikuluan definitutako pertsonengana joko da, prezio publikoa modu subsidiarioan ordaintzera behartutakoengana, erabiltzaileak egindako ekarpena osatzeko, harik eta prezio publikoaren zenbatekoa osorik estali arte, edo prezio publikoa osorik ordaintzeko, baldin eta 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera prezio publikoa ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa ez badio ahalbidetzen ekarpenik egitea.

5. artikulua.- Hobariak

3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikorik ez badute, II. eranskinean ezarritako mugaren azpitik dagoelako, prezio publiko horien hobariak jaso ahal izango dituzte.

Aurreko zenbakian aipatzen diren prezio publikoen hobariak gehikortasun printzipioaren arabera aplikatuko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta. Erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa Zerga Ordenantza honen III. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera zenbatuko da.

Artikulu honetan ezarri diren hobariak zerga ordenantza honen III. eranskinean finkatu dira, eta, I. eranskinean finkatu diren prezio publikoak indarrean baldin badaude, aplikagarriak izango dira. Prezio horiek 16. artikuluan ezarri den moduan eguneratzen edo aldatzen baldin badira, dagozkien hobariak ere zehaztuko dira.

6. artikulua.- Salbuespen partzialak, erabilera motaren arabera

Etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duen pertsona batek aldi batez zerbitzua erabiltzeari uzten badio eta etenaldiak ondoko ondoko 7 egun natural baino gehiago irauten badu, ez du ordaindu beharko prezio publikorik. Horretarako, erabiltzaileek idatziz jakinarazi beharko dute

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

zerbitzua jasotzeari utziko diotela, etenaldia hasi baino 7 egun lehenago gutxienez, larrialdia dela-eta ezinezkoa denean izan ezik (behar bezala frogatu behar da). Zerbitzua ondoz ondoko 7 egun naturalez baino egun gutxiagoz erabili ez bada, esleitutako prezio publikoa ordaindubeharko da.

Baldin eta zerbitzu hori aldi berean erabiltzen bada beste zerbitzu batzuekin, ez da salbuespen partzialik egingo prezio publikoan.

Zerbitzua eten arren ez da salbuespen partzialik egingo prezio publikoaren ordainketan, baldin eta, zerbitzua eskuratzeko erregelamenduaren arabera, eskatzen den informazioa edo dokumentazioa emateko betebeharra behar baino beranduago betetzen bada, edo prezio publikoa behin eta berriro ordaintzeke uzten bada.

7. artikulua.- Erabilera libreko zenbatekoa

Erabilera libreko zenbatekoa bermatuko da zerbitzu mota bakoitzari dagozkion hobariak zehazteko erabili den formularen bitartez (hobariak Zerga Ordenantza honen III. eranskinean zehazten dira).

II: TITULUA SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

8. artikulua.- Sortzapena

Erregelamendu honetan arautu den prezio publikoa ordaintzeko betebeharra sortuko da zerbitzua eraginkortasunez hasten den egunean, eta egun horretatik zerbitzua erabiltzen behin betiko amaitzen den unera arte iraungo du betebeharrak.

9. artikulua.- Ordainketa

Zerbitzu batengatik ezarritako prezio publikoa –zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa zein salbuespen partziala daukana– ordainagiria kobratzeko aurkezten denean ordainduko da. Kobrantza banku batean helbideratuko da.

III. TITULUA KUDEAKETA ETA LIKIDAZIO ARAUAK

I. KAPITULUA. AHALMEN EKONOMIKOA ZEHAZTEA



10. artikulua.- Ahalmen ekonomikoaren osagaiak

Zerga Ordenantza honen 3.1 artikuluan zehaztu denaren arabera, ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa kalkulatu behar da, prezio publikoan egingo duen ekarpena zehazteko; horretarako, urteko errenta eta ondarea zenbatu beharko dira, eta kapitulu honetan ezarritako balorazio irizpideak aplikatu.

Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako hauek erabiliko dira:

Erabilgarri dauden azken zerga datuak, betiere, datu horiek aldatu dituen geroagoko gertaera garrantzitsu bat izan ezean. Horrelako kasuetan, datu eguneratuenak erabiliko dira.

Hiriko edo landako ondasunak badira, ondasun horien balio handiena zenbatuko da, honako hauek kontuan hartuta: katastroko balioa; Administrazioak beste zerga batzuetarako ziurtatu edo finkatu duen balioa; eta prezioa, kontraprestazioa edo eskurapen balioa.

11. artikulua.- Errenta

Aurreko artikuluan aipatu den ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo diru sarrera zebakarritzat hartuko dira lanaren ondorioz familia unitateak urtean dituen etekinak eta eskubideak, bai eta jaso ditzakeen beste batzuk ere. Edonola ere, honako hauek:

a) Funts publikoetan edo pribatuetan zorduntzeko pentsioak edo prestazio ekonomikoak (jasotzen diren diru sarrera gordinak zenbatuko dira). Horretarako, sailkapen horren barnean hartuko dira pentsioak, sorospenak, prestazio ekonomikoak eta beste edozein eskubide ekonomiko, zerbitzuaren erabiltzaileak eskubide horiek sortu baditu, artikulua honen 2. zerbakian ezarritako prestazioak izan ezik.

b) Norberaren edo besteren kontura lan egiteagatik lortutako etekin osoak.

Honako prestazio hauek ez dira zenbatuko errenta zehazteko:

a) Azaroaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzearenak, ezarritako prestazio ekonomiko finalistak, besteak beste, hauek: familiakoek eskainitako zaintzarako eta profesionalak ez diren zaintzaileentzako prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa.

b) Honako prestazio hauek, aurreko a) letran ezarritako prestazioen antzeko xede eta ezaugarriak dituztenak:



— Baliaezintasun handiaren ziozko osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateratua onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko berariazko xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 139.4 artikuluan arautzen duena.

Gutxienez ehuneko 75eko minusbaliotasun gradua duen 18 urtetik gorako seme edo alabaren bat kargura dutenentzako esleipen ekonomikoaren osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateratua onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko berariazko xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 182 bis 2 c) artikuluan ezartzen duena.

— Kotizazio gabeko baliaezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzeagatik jasotzen dena, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateratua onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko berariazko xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 145.6 artikuluan ezartzen duena.

— Hirugarren pertsona baten laguntzaren ziozko sorospena, Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 12.2 c) artikulua arautzen duena, eta Desgaitasunaduten pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena, Legegintzako Errege Dekretu hori indarrean jarri baino lehenagotik hura jasotzen duten eta dekretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat.

Errenta balioztatzeko, erreferentziatzat hartuko da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa, 10.2 artikuluan aipatu diren zerga datuak oinarri hartuta. Diru sarreratzat zenbatuko dira honako kontzeptu hauen batuketara:

- Lan etekin osoak;
- lanbide jardueren, enpresa jardueren, eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin garbiak;
- salbuetsietako eta egotzitako lan errentak guztiak.

Artikulu honetako 2. zenbakian azaldutako errentaren bat jasotzen dutenek prestazio ekonomikorien frogagiria aurkeztu behar dute salbuetsietako zenbatekoa kalkulatzeko, zenbaki horretan ezarritako ondorioetarako.

Hileko errenta kalkulatzeko, urteko errenta zati hamabi egingo da.

12. artikulua.- Ondarea



10. artikuluan ezarritakoa betetzeko, ondareztat hartuko dira honako hauek:

a) Azken zerga datu erabilgarriak oinarri hartuta, familia unitateko kideek osorik edo modu partzialean beren izenean dituzten ondasun eta eskubide ekonomiko guztiak. Datu horiek osatukodituzte aktiboei buruz eskatuko diren datuek.

b) Ekitaldi batean edo ekitaldi gehiagotan sortu diren kalte ordain edo errenta kapitalizatuak.

c) Erabiltzaileak, bere ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak —Zerga Ordenantza honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan— edo Zerga Ordenantza honen 3.2 artikuluan ezarritako baldintzetan ordaindu behar duen pertsonak doan eskualdatu dituen ondasunen eta eskubideen balioa.

Ondoko hauek ez dira sartuko ondarean:

a) Ohiko etxebizitza, aparteko balioa eduki ezean (apartekotzat jotzen dira 300.000 eurotik gorako katastro balioak); etxebizitzaren balioa apartekoa bada, muga horren gaineko kopuruazentatu behar da ondarean.

Ondore horietarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko dira honako hauek: etxebizitza bera, garajea edota trastelekua; eta, familia bakarreko landako edo hiriko etxebizitza bada, etxebizitzariatikita dagoen lur zatia ere bai (bereizita egon ezean).

b) Ondasunen eta eskubideen gainean dauden eta haien balioa murrizten duten zamak eta kargak.

c) Zor eta betebeharrak pertsonalak.

d) Babes berezia duen ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, azaroaren 18ko 41/2003 Legearen babespean (zeinaren bidez pertsona desgaituen ondarea babesten baita eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legearen eta Zerga Erregelamendua aldatu baitira pertsona horien ondarea babesteko); zerbitzua jasotzen duena ondarearen jabea bera bada izan ezik, pertsonaren beharrianak asetzen dituen heinean, aurrean aipatutako legeko 1.1 eta 5.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira.

Ondarearen hileko zenbatekoa kalkulatzeko urteko zenbatekoa zati hamabi egingo da.

13. artikulua.- Familia Unitatea

Kapitulu honetan ezarritakoa betetzeko, familia unitatean honako kide hauek hartuko dira kontuan:



a) zerbitzuaren onuraduna adin nagusikoa bada, familia unitateko kideztat hartuko dira honakoak:

— zerbitzuaren onuraduna bera;

— onuradunaren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremanaren bitartez berarekin lotuta dagoen pertsona, legez aitortuta eta behar bezala kreditatuta, lehen xedapen gehigarrienezarritako baldintzetan;

— Seme-alaba adin txikikoak;

— 18 urtetik gorako seme-alabak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira eskaera egiten den egunean;

— ikasketa akademiko arautuetan ari diren 18 eta 23 urte bitarteko seme-alabak.

b) zerbitzuaren onuraduna adinez txikia bada, familia unitateko kideztat hartuko dira honakoak:

— zerbitzuaren onuraduna bera;

— haren aita eta ama;

— haren neba-arreba adin txikikoak;

— 18 urtetik gorako neba-arrebak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira eskaera egiten den egunean;

— ikasketa akademiko arautuetan ari diren 18-23 urte bitarteko neba-arrebak.

2. Edonola ere, pertsona bat familia unitate bakarreko kide baino ezin da izan.

14. artikulua.- Ahalmen ekonomikoa baloratzeko irizpideak

Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako batura hau egin behar da: familiaren urteko errentari familiaren urteko ondarearen ehuneko jakin bat gehitu. Ehuneko horiek aldatuko dira erabiltzailearen adina zein den. Hona hemen:

a) Erabiltzaileak 35 urte baino gutxiago badauzka, bere ondarearen ehuneko 3.

b) Erabiltzailea 35-65 urte bitartekoa bada, bere ondarearen ehuneko 6.

c) Erabiltzaileak 65 urte baino gehiago badauzka, bere ondarearen ehuneko 20.

Halaber, berriazko irizpide hauek aplikatu beharko dira:

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

a) Pertsona bakarreko familia denean, ahalmen ekonomikoa 1. paragrafoan azaldutakoa zuzenean aplikatuz zehaztuko da.

b) Familia unitatean bi pertsona badaude, prezio publikoa kalkulatzeko (osoa edo hobariduna), 1. paragrafoan azaldutakoaren arabera kalkulaturako hileko guztirako ahalmen ekonomikorenehuneko 80 hartuko da kontuan.

c) Familia unitatean bi pertsona baino gehiago badaude, b) idatz zatian azaldu den ehuneko 80ko kopuruari ehuneko 5 kenduko zaio gainerako pertsona bakoitzeko.

Hileko ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, urteko ahalmen ekonomikoa zati hamabi egingoda.

II. KAPITULUA: EBAZPENA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERAKETA

15. artikulua.- Ebazpena

Organo eskumendunaren ebazpenean jasoko da zerbitzuaren prezio publiko osoa, eta hala badagokio, ahalmen ekonomikoren araberrako prezio publiko hobariduna.

16. artikulua. Prezio publikoak ofizioz berrikustea eta informazioa eman beharra

Etxez etxeko laguntza zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoak (zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa, zein geroratutako kopurua), banaka zein denak batera, ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo eskumendunak, eta interesdunak, bere legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak eskatuta ere berrikusi ahal izango dira. Berrikuspen baten ondorioz jakiten bada prezio publikoa ezartzerakoan kontuan hartutako ahalmen ekonomikoa aldatu dela, prezioaren zenbatekoa aldatu ahal izango da, dagokion ebazpen bidez.

Horren ondorioetarako, Zerga Ordenantza honek erreferentzia egiten dion prezio publikoa ordaintzera loturik dagoen edozein zerbitzuren erabiltzaileak –edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak– jakinarazi beharko du, hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, gorabeherarik egon den elkarbizitza egoeran, egoera zibilean, egoitzan, errenta edo ondare propio edo inoren ondare zenbakarrian eta erabiltzaileari esleitutako prezio publikoetan eragina izan dezaketen gainerako inguruabar guztietan.

Administrazio eskumendunak jakinez gero zerbitzu erabiltzaile baten ahalmen ekonomikoa aldatu dela eta ez dela horren berri eman aurreko zenbakian ezarri den bezala, ezarritako prezio publikoa berrikusiko du eta inguruabar berrietara doitu du. Bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, atzerako eraginez aplikatuko da, egoeran aldaketa hori gertatu zen egunetik aurrera eragina

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

izateko, eta 3.1. artikulua araberaren ordaintzeko betebeharra duen pertsonak, hartara, epehorretan pilatu diren ordainkizun atzeratuak ere ordaindu beharko ditu.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

Ahalmen ekonomikoaren aldaketaren berri eman bazaio administrazioari, eta, administrazio horri lepora dakizkion arrazoiengatik, prezio publikoa 2 hilabeteko epean berrikusi ez bada, honako bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, administrazioak bidegabe ordaindu diren zenbatekoak itzuliko ditu.

17. artikulua.- Prezio publikoak eguneratzea

Zerga Ordenantza honetan ezarritako prezio publikoak ordenantza bidez eguneratu behar dira; beraz, hurrengo ordenantza horretan ezarriko dira aplikatu beharreko hobariak eta behar besteko ahalmen ekonomikoa.

III. KAPITULUA: PREZIO PUBLIKOENGATIK SORTUTAKO ZORRAK

18. artikulua.- Prezio publikoengatik sortutako zorrak

Zerbitzuak sortutako prezio publikoaren ordainagiria –prezio osoa edo prezio hobariduna– itzultzen badu bankuak, zordunari ordaintzeko eskatuko zaio, eta 30 egun naturaleko epea emango zaio zor duen zenbatekoa ordaintzeko edo ordainketa zatitzeko eskaera egiteko.

Aurreko puntuan aipatzen den epean eskatutako dirua ordaindu ezean, edo ordainketa zatitzeko eskatu ezean, 1. paragrafoan ezarritako prezio publikoa eskatuko da premiamenduko administrazio prozedura bidez.

Ez bada ordaintzen ordaindu beharreko prezio publikoa, eta hori behin eta berriz egiten bada, zerbitzua eskuratzeko eskubidea eten ahal izango da.

Baldin eta, zerbitzua eskuratzeko prozeduraren esparruan, egiaztatzen bada Zerga Ordenantza honen 3.1 artikuluan jasotakoaren arabera prezio publikoa ordaintzera behartutako pertsonak lehenago ere zorrak dauzkala ez duelako ordaindu Etxez etxeko Zerbitzuaren prezio publikoa, eskatzaileari eskatuko zaio kasuan kasuko jakinarazpena jaso eta 30 egun naturaleko

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

epean ordain ditzala zor dituen kopuruak edo organo eskumendunari eska diezaiola zatikatu diezaiola zorra, artikuluko honetako 1. eta 2. idatz zatietan jasotzen den bezala.

Pertsonak ez badu errekurritzen zorra ordaintzeko, hurrengo zerbitzuan hasteko eskaeran atzera egin duela joko da, eta beste izapiderik egin gabe artxibatuko da, horretarako eskumena duen organoak ebazpena eman ondoren. Edonola ere, pertsonak zorra ordaindu ahal izango du geroago, bai eta zerbitzuan hasteko beste prozedura bat abiarazi ere.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA Ezkontzaren antzeko harremana

Maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, Izatezko Bikoteei buruzkoak, zehaztu dituen bikoteak ezkontzaren antzeko harremanaren bitartez lotuta daudela joko da Zerga Ordenantza honen ondoretarako. Lege hori autonomietan dago indarrean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria, edo, hala badagokio, Udal Erregistroaren ziurtagiria aurkeztuta ziurtatuko da harreman hori, lege horren 3. artikuluan araututako baldintzetan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA Aparteko egoerak

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen egoera sozioekonomikoa berezia izan litekeela jakinik, organo eskumendunak Zerga Ordenantza honetan jasotako hobari partzialak edo hobari osoak zehaztu ahal izango ditu, edo, hala badagokio, areagotu ahal izango ditu Zerga Ordenantza honetan xedatutako hobarien zenbatekoak, salbuetsitako zenbatekoak eta erabilera libreko zenbatekoak.

6. artikuluan aipatutako arrazoiez bestelako arrazoiengatik zerbitzuen erabilera eteten bada, organo eskumendunak prezio publikoaren salbuespen partzialak onartu ahal izango ditu plaza gordetzeko.

AZKEN XEDAPENA Indarrean sartzea.

Zerga Ordenantza hau ALHAO aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Zerga Ordenantza hau aplikatuko zaie Etxez etxeko Laguntza zerbitzua data horretan edo ondoren eskuratzen duten pertsonari.

I. ERANSKINA



PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

Etxez etxeko laguntza zerbitzua.	6,12 €/ordua.
----------------------------------	---------------

II. ERANSKINA

AHALMEN EKONOMIKOA NAHIKOA DEN ZEHAZTEA

I. eranskineko prezio publikoak indarrean dauden bitartean, zerbitzu baten erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa nahikotzat joko da eranskin honetan ezarritako kasuetan.

1. Hobariak zehazteko 5.1 artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da, hura III. tituluaren I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulatuta eta 1.500,00 euro/hil kopurua bezain handia edo hura baino handiagoa bada.

Era berean, behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da pertsonaren ondare zenbakaria 50.000 eurokoa edo hori baino handiagoa bada, nahiz eta III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturako ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan ezarri diren mugak baino txikiagoa izan.

III. ERANSKINA

HOBARI APLIKAGARRIAK

I. eranskinean ezarritako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa ez duten pertsonen honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, Zerga Ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik:

Etxez etxeko zerbitzuaren banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taula honetako orduko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalmen ekonomikoaoinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROTAN)	GEHIENEZ ERE (EUROAK)	ZENBATE KOA	GAINERA KOA, GEHIENEZ ERE	EHUNEKOA
--	-----------------------------	----------------	------------------------------------	----------



Gehienez ere 500,00	0,00	0	500,00	0,20
600,00	500,00	1,12	100,00	0,30
700,00	600,00	1,42	100,00	0,40
800,00	700,00	1,82	100,00	0,50
900,00	800,00	2,32	100,00	0,60
1.000,00	900,00	2,92	100,00	0,75
1.100,00	1.000,00	3,67	100,00	0,90
1.200,00	1.100,00	4,57	100,00	0,55
1.300,00	1.200,00	5,12	100,00	0,40
1.400,00	1.300,00	5,52	100,00	0,30
1.500,00	1.400,00	5,82	100,00	0,30
1.500,00 euro baino gehiago	Gehieneko tarifa			,1 2 € / o r d u a

Ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, lehenbizi hileko orduen kopurua zehaztu behar da, eta horretarako bider 4,3 egin behar da asteko orduen batura».

BIGARRENA. Espedienteari dagokion izapidea eta publizitatea ematea, Udaletxe honetako iragarki-oholean eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean agerraraziz, hogeita hamar egun balioduneko epean zehar. Egun horietan interesdunek aukera izango dute aztertu eta egokitzea jotzen dituzten erreklamazioak planteatzeko.

Halaber, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan [helbidea: <https://artziniegakoudala.eus>)

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

HIRUGARRENA. *Espedientearen aurrean erreklamaziorik aurkezten ez bada aurrez adierazitako epearen barruan, Erabakia behin betikotzat jotzea, martxoaren 4ko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Tokiko Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bateratuko 17.3. artikuluaaren arabera.*

LAUGARRENA. *Alkate-Presidente jaunari gai honekin lotutako dokumentuak sinatzeko eskumena ematea”.*

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue? Bozkatzeari ekingo diogu.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (3);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5.- MONTTE, S.L. sozietatearen 2017ko ekitaldiko faktura baten judizioz kanpoko aitortpena onartzea.

Alkatea: beno, hau iazko faktura bat da, hornidura batzuen, orain iritsi dena.

“2018KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

IKUSIRIK 2018ko maiatzaren 23an Idazkaritzak 2017ko ekitaldiko hurrengo kreditua judizioz kanpo aitortzeko prozedurari eta legeria aplikagarriari buruz igorritako txostena:

Hirugarrena: MONTTE S.L.

Fak. C17-28845-R Bulegoko materiala

Erregistro-data: 2017ko abenduak 26, 1363 zenbakiduna.

Zenbatekoa 540,41 €.

KONTUAN HARTUZ 2018ko maiatzaren 23an Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitorten hori zilegi zela adierazten zuena.

KONTUAN HARTUZ Alkatetzak horri dagokionez egindako proposamena, eta ikusirik Udalbatzari apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikulua araberako esleitzen zaion eskuduntza, 2018ko maiatzaren 30ean Ogasun arloko Informazio-batzordeak erabaki du Udalbatzari proposatzea hurrengo

AKORDIOA

LEHENA. Hurrengo kredituaren judizioz kanpoko aitortzea, 2017. ekitaldiari dagokiona.

Hirugarrena: MONTTE S.L.

Fak. C17-28845-R Bulegoko materiala

Erregistro-data: 2017ko abenduak 26, 1363 zenbakiduna.

Zenbatekoa 540,41 €.

BIGARRENA. 2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren kontura, dagokion kreditua aplikatzea, gastuari aurre egite aldera, "Bulegoko materiala" izeneko 920.220.001 aurrekontu-aplikazioan kontsignazioa dagoela kontuan hartuta.

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

6.- 3/2018 Kredituaren Gaikuntza onartzea.

“2018KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Ikusirik indarrean dagoen 2018ko Udal Aurrekontuaren Gastuen Egoera-orrian ordainketa-kredituak gaitzearen inguruko 3/2018 espedientea, 34.345,95 eurokoa.

Ulertuta, Idazkari eta Kontu-hartzaileak jakinarazten duenez, espedientea bat datorrela otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 31. artikuluan eskatutako betekizunekin eta Egikaritze-aurrekontuaren Udal Arauan ezarritakoarekin, 2018ko maiatzaren 30ean egokiro egindako Ogasun eta Antolamendu Informazio Batzarrean proposatzen zaio Udalbatzari har dezala hurrengo

AKORDIOA

Aipatutako akordioa eta bertatik eratortzen diren diru-sarrera eta gastuekin lotutako egoeren aldaketak, jarraian zerrendatzen direnak, onartzea:

SARREREN EGOERA

Kredituaren ondoriozko diru-sarrerak dira:

AURREKON TU- APLIKAZIOA	KONTZEPTUA	ZENBAT EKOA
-------------------------------	------------	----------------



710.02	EUSKO JAURLARITZA ARGITERIA PUBLIKOKO SAREA BERRITZEA PARTZIALKI. I. fasea	6.155,95
720.03	AFA. ARGITERIA PUBLIKOKO SAREA BERRITZEA PARTZIALKI. I. fasea	28.190,00
	GUZTIRA	34.345,95

Eta, aurrekontuaren ikuspuntutik, indarrean dagoen 2017 ekitaldiko aurrekontuaren diru-sarreraren egoera-orriaren aldaketa dakarte, honako moduan:

AURREKONTU-APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAK O KREDITUA	IGOERA	KREDITUA GUZTIRA
710.02	EUSKO JAURLARITZA. ARGITERIA PUBLIKOKO SAREA BERRITZEA PARTZIALKI. I. fasea	0,00	6.155,95	6.155,95
720.03	AFA. ARGITERIA PUBLIKOKO SAREA BERRITZEA PARTZIALKI. I. fasea	0,00	28.190,00	28.190,00
		0,00	34.345,95	34.345,95

DIRU SARREREN AREAGOTZEAREN GUZTIRAKO ZENBATEKOA:
34.345,95

GASTUEN EGOERA

AURREKONTU-APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAK O KREDITUA	IGOERA	KREDITUA GUZTIRA
165.601.002	Energia-efizientziarako neurria: argiztapena Led argira aldatzea, 2018. II. fasea	5.000,00	34.345,95	39.345,95
		5.000,00	34.345,95	39.345,95

GAITUTAKO KREDITUEN ZENBATEKO OSOA: 34.345,95"

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

7.- 3/2018 kreditu gehigarria onartzea.

“2018KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

3/2018 zenbakidun kreditu GEHIGARRIAREN espedientea premiaz gauzatu behar denez, hurrengo ekitaldira arte ezin baita atzeratu, Udalaren interesen kalterik gabe, eta Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 34. artikuluaekin eta Aurrekontua Egikaritzeko Oinarrietan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

3/2018 zenbakidun kreditu GEHIGARRIAREN espedientea irakurri da, izapidetuz indarreko Udal Aurrekontuaren barnean kredituak aldatzeko.

Halaber, Kontu Hartzaitzak aurrekontu-egonkortasunaren, gastu-arauaren eta finantza-iraunkortasunaren helburua betetzeari buruz eratutako txostenaren berri eman da.

Ikusirik Idazkaritza eta Kontu Hartzaitzak egindako txostena, Antolaketa Informazio-batzordeak erabaki du eta Udalbatzari proposatu dio har dezala hurrengo

AKORDIOA



1. 3/2018 zenbakidun kreditu GEHIGARRIA onartzeko espedientea onartzea, 516.642,09 euroko zenbatekoaz, eta bertan agertzen diren horiek finantzatzeko gastu eta baliabideen partidak xehetasunez adierazita.

GASTUEN EGOERA

Indarreko Aurrekontuan areagotu asmo diren gastuen zerrenda

AURREK ONTU- APLIKAZI OA	IZENA	ZENBATE KOA
161.643.0 01	UR SAREKO ZUNTZ-ZEMENTUZKO HODITERIA BERRITZEKO PROIEKTUA ETA OBREN ZUZENDARITZA. I. FASEA	42.020,79
161.601.0 01	UR SAREKO ZUNTZ-ZEMENTUZKO HODITERIA BERRITZEA I. FASEA	143.025,4 4
161.643.0 02	GORDELIZERAKO BASERRIETAKO KUTXATILEN BEHE-KONEXIOA EGITEKO PROIEKTUA ETA OBREN ZUZENDARITZA	17.157,03
161.601.0 01	GORDELIZERAKO BASERRIETAKO KUTXATILEN BEHE-KONEXIOA	59.613,35
459.601.0 03	ARETXAGA SANEAMENDUA, PARKINGA ETA BUS GERALEKUA BERRITZEA	7.539,07
342.601.0 01	UDAL IGERILEKUAK EGOKITZEA	202.052,1 7
459.601.0 01	LANDA BIDEAK KONPONTZEA: SANTA KOLOMA ETA PALACIO	37.393,84
342.216.0 01	PRESARAKO BIDEAN HESIA APLIKATZEA	3.761,35
920.623.0 03	OSOKO BILKUREN ARETOKO MIKROFONIA AREAGOTZEA	1.579,05
330.481.0 01	HERRIGUNE HISTORIKOAN ESKULTURAK EGITEKO MATERIALA	2.500,00
	GUZTIRA	516.642,0 9



SARREREN EGOERA

Aurreko zenbatekoa jarraian zerrendatzen diren baliabideekin finantzatuta geratzen da. Horrenbestez, espedientea orekatua dago eta defizitik gabe:

<i>AURREKON TU- APLIKAZIOA</i>	<i>IZENA</i>	<i>ZENBATE KOA</i>
<i>870.01</i>	<i>Gastu orokorretarako diru-zaintzako soberakina</i>	<i>516.642,0 9</i>

2. Udalbatzari aurrekontu-egonkortasunaren, gastu-arauaren eta finantza-iraukontasunaren helburua betetzeari buruz eraturako txostenaren berri ematea.

3. Espediente hori jendaurrean ipintzea erreklamazioak egin daitezzen Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako modu eta epeak betez.

4. Erreklamaziorik ez balego, akordio hau behin betikotzat hartzea.

5. Erreklamazioak jarriko balira, beste akordio bat hartzea hilabeteko epean.

6. Behin betiko akordioa arauz ezarritako forma eta epeak betez argitaratzea.

7. Aldi berean, espedientearen kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundira”.

Alkatea: Foru Planak finantzaturako proiektuen udal ekarpenaren zatia jasotzen da funtsean, guztiaren batura, diru-laguntza, hiru proiektuen batura 1.300.000 euro ingurukoa da, Foru Planetik lortu den diru-laguntza hiru horientzat 800.000 inguruko da. Orduan tira, aurrekontuko aldaketa horrekin dagoeneko obren proiektua eta lizitazioa idazteko izapideekin has gaitzke, ondoren jarduera horiek egiteko finantzaketa osagarriak lortzearen kalterik gabe. Zehazki, udal igerilekuetarako finantzaketa osagarria lortzea espero dugu. Zuntz-zementuzko hoditeria ordeztzeko obrarako finantzaketa osagarria eskura dezakegu, gutxi gorabehera, 1,5 kilometroko hoditeria da, egun dagoenarekin ordezten duguna, zuntz-zementua uralita da, eta dagoeneko 50 urte ditu, hoditeriak, material hobe batekin ordezkatzeko dugu, izan daitezkeen matxura eta ihesei hobeto eusten dien material bat, eta era berean proiektu horretan pilotalekuko parkingaren berrikuntza jasotzen da eta baita Saratxagureneko aldapa berriro asfaltatzeko obra, biribilgunetik Zubiaurreko kantoira arte, oraintxe berri dugun zonaldera arte. Hori da proiektu zehatza. Gero udal igerilekuan berritzearen gaia dago, kanpoko zonaldea izango litzateke, basoaren zonaldea,

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

377.000 euro izango lirateke, eta arazketa, batez ere igerilekuen arazketa. Oraintxe bertan araztegi bakarra dugu bi basoetarako, hori araudiz ezin da horrela izan. Igerilekuen bi bereizgailu izan behar ditugu, bi igerilekuetarako aparteko bi arazketa-sistema izan behar ditugu, handirako eta ondoren haurren igerilekurako, plisti-plasta aritzeko igerilekurako. Eta ondoren, ur hoditeriaren egikaritzearen kontua dago, depositu nagusitik Gordelizera arte doana, azkenean Gordelizeko herritarrek izan dezaten, ondoren Erretarako ponpatzen du, bada kasu horretan ez lukete jaso beharko urtegitik iristen den ur gordina, eta araztegitik helduko litzateke zuzenean, depositu nagusitik, eta udalerriko gainerako herritarren baldintza beretan izango lukete ura. Hori da proposamena eta hori da proposatzen den kreditu gehigarria. Zerbait esan nahi baduzue.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

8.- Alderdi Popular udal taldearen mozioa, Artziniega-Arceniega izenen koofizialtasunari buruzkoa.

Joseba Elejalde Ribacoba: Zioen azalpena irakurriko dut. Hemen errakuntza bat dago, ez dira 25 urte, irakurriko dudan moduan, 15 dira, baina tira. "Arceniega izenaren ofizialtasuna berreskuratzeko mozioa: Arrazoiak bi dira funtsean: alde batetik, Udalbatza honek duela 15 urte baino gehiago sortu zuen egoera anormal bat zuzentzea, ez herritar gutxirentzako, batez ere zaharrentzat, oso bizirik jarraitzen duena eta ulergaitza dena; eta, beste alde batetik, gure herriaren ondarearen funtsezko zati bat behar bezala aitortu eta balioan jartzea, ez-materiala izan arren gainerakoa bezalaxe babestea merezi baitu.

Lehenik eta behin, orduan Arceniega baztertzeko hartu zen erabakia, berriarekin batera mantendu beharrean, ia isilpean egin zen, eta are okerrago dena, zentzuzko argudioren batekin justifikatzeko ahaleginik egin gabe. Erabaki horrekin egiaz lortu zena izan zen errealitate ofizialak kaleko errealitateari bizkar ematea, izan ere, ordura arte herritar guztiek ezagutu zuten izen

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

bakarra Arceniega zen, eta hori da zahar gehienek erabiltzen dutena, euskarazko izena kaltetuz esateko ahalegina egiten badu.

Oso txalagarria da euskarak egunen batean beste garai batean gure herrian izan zuen bizitasuna berreskuratzeko asmoa, baina ez dago historia, antzinakoa nahiz berria, ukatzearen truke egiteko arrazoirik, ezta errealitatea ukatzearen truke; inork "inposatu" ez duen errealitatea eta izenean bertan mendez mendeko sona duena islatua. Pentsatzen dut talde guztiak ados egongo direla duela bi Udalera zuzendu nuen idatzian esan nuenarekin: "demokrazia" ez da gehiengoz erabaki arbitrarioak inposatzea, botoen indarraz aparteko beste arrazoirik gabe, baizik eta guztiei lekua egiten saiatzea, ahal den guztietan gutxiengoa kontuan hartuz. Eta herriak izen ofizial elebiduna izateko aukera horretarako dago: guztiak bere burua islatuta ikus dezaten errealitate ofizialarekin, hartatik kanpo daudela sentitu beharrean.

Beti euskara mantendu den eta horren nazionalista den herri batean, hots, Arrasate-Mondragón herrian, gaztelaniazko izena ez bada baztertu, Arceniega bezalaxe Alfontso X Jakitunaren fundazio-gutunean agertzen dena, zentzugabekeria da gu Aita Santua baino papistagoak izatea. Eta are inkongruenteagoa da kontuan hartzen badugu gure herriko auzo xume batek, Sojoguti auzoak, ondorio guztietarako eta dokumentu guztietan mantentzen badu euskarazko bertsioarekin batera. Zergatik ez da gauza bera gertatzen "Arceniega" izenarekin?

Adierazpen horiek Arceniega izena berreskuratzeko bigarren arrazoiarekin egiten dute bat: bere ondare balioa. Nire idatzian aipatzen nuen NBE organismoak, Kultura Ondare Ez Materialaren elementu izateari dagokionez, babes berezikotzat hartzeko izenarekin adierazten ditu "lekukotza" izaera dutenak, horrela definitzen delarik aipatu ezaugarria: "errealitate kultural, geografiko, historiko, sozial edo lekuarekin lotutako beste era bateko jakin bat argiro islatzeko bere ahalmena" eta "tokiko, eskualdeko edo nazioko nortasunaren osagai funtsezkoa".

Arceniega beti bidegurutzea izan da eta horregatik ez da harritzekoa, gaian adituak direnek iradokitzen dutenez, izena sortu zenean hemen bizi zirenek gaztelania moduren batean hitz egitea. Bi hizkuntzak elkarrekin biziko ziren historian zehar, azken herritar belaunaldiek gaztelaniaz hitz egiten amaitu arte. Gure herentziaren zati bat da, euskararen iragana den bezalaxe, eta bere lekukotza izaerarekin "Arceniega" izena den belaunaldien arteko zubia modu kontrolatuan eraisteak ez du inolako zentzurik.

Europako Kontseiluak eta Parlamentuak Kultura Ondarearen Europako Urte izendatu dute 2018. urtea eta Arabako Foru Aldundiak bat egin du ospakizun horrekin, adieraziz kultura ondare bat dela "iraganaren legatu bat, Arabako lurraldearen nortasunaren eraikuntzan laguntzen duena". Eta aurreko guztiaren ildo bere-beretik, Kultura Ondare horren barnean "transmititzen den eta transmititzen duen ondare Ez Materiala" barneratzen du, izan ere, Aldundiaren arabera "kultura aniztasun eta aberastasun hori gure iraganaren oroitzapena baino askoz gehiago da: bere balio historiko, artistiko edo naturalaz gain, baliabide ezinbestekoa da duen funtzio heziketazko eta sozialagatik". Hitz horiek bat datoz bikain gure kasuarekin.

Horrenbestez, irudi luke gure herritik kanpo, Aldunditik hasi eta NBE erakundera arte, Europa eta UNESCO ere kontuan hartuz, guztiak bat datoz kultura ondarearen barruko zati gisa zein elementu sartzan diren adierazterakoan, eta horiek balioan jartzeko premian ere bai. Teoria orokorretik tokiko praktikara pasatzean aurkitzen dugu paradoxa hori, hots, oso urrun joan gabe, gure Arau Subsidiarioetan udalerrri mailan babesteko ondare ez materialen zerrenda bat jasotzen



da, bertan Barratxi zubia edota "la fuente de la plaza de Arriba" jasotzen dira, baina ez hor eta ez beste inon, ez dirudi lekurik dagoenik gure izenarentzat.

Eta haatik, nire idatzian aipatzen nituen Udalbatza honek onartutako bi mozioek erakusten dutenez, ideal handitan oinarritzen diren ekimenik ez dira falta hemen: horietako batean kultura aniztasuna errespetatzeaz hitz egiten da eta, bestean, "arerio afrikarren" garaile bati duela mende bat baino gutxiago onartutako ohoreak kendu egiten zitzaizkion. Han eskatzen nuen, eta mozio hau aurkeztean errepikatu egiten dut, kasu honetan ere ideal horiexek errepika daitezela, denboran askoz ere gertuago baitugu eta gure bizitzetan bete-beteko eragina baitu: errespetua kultura aniztasunari eta garaipen zentzugabekorik ez historiaren, errealitatearen eta hainbat herritarren gainetik, mapatik Arceniega ezabatu zuen osoko Udalbatza harenaren modukorik.

Hain zuzen, 2010. urtea Kultura Ondarearen Europako Urtea izendatzean Europako Kontseiluaren hiru helburu nagusietako lehena "kultura aniztasuna, kulturen arteko elkarrizketa eta gizarte-kohesioa sustatzea" da. Eta gure eremuan helburu hori betetzeko ez dago modu hoberik Arceniega izenaren ofizialtasuna berrekuratzea baino bere izen elebidunean gure herriarentzat. Ba al dago hori ez egiteko baliozko arrazoirik?

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Arkaitz San Jose Martinez: bai, beno, gu ere ez gara eztabaidan sartuko. Uste dugu ez dela kezka sozial bat. Uste dugu ez dela oraintxe bertan kalean dagoen eztabaida bat. Uste dugu Artziniega izenak hasiera batean herritar gehiengoaren oniritzia duela eta ez dugu uste inorentzat arazo denik, horrenbestez izena ez legokeela aldatu beharrik uste dugu.

Inmaculada Vivanco Retes: azalpeneko zenbait puntu eztabaidatu egin daitezke baina uste dut une eta leku honetan ez dela hori egokia, izan ere, uste dut ez duela Artziniega izenarekin inolako zerikusirik.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, adibidez, zorionez denbora asko daramat hemen, 19 zehatzak izateko, eta duela 15 urte hartu zen Udalbatza honetan herriaren izena eta bertako auzo batzuen izenak aldatzeko erabakia, herritarren sentimenduak eta sentsibilitatea kontuan hartu gabe.

Alkatea: Duela 15 esan duzu?

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, uste dut 15 direla.

Alkatea: gehiago.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, izan daitezke 19 edo 20. Artziniegako Udalean izenen aldaketa onartu zenean ni zinegotzi nintzen. Nik Udalbatza honetan Udal honek duen jarduteko moduarekin nire desadostasuna erakutsi dut, herritarrekin erakusten duen enpatia ezagatik, gizarte-kohesiorako ikuspegirik ezagatik eta ezker eskua ez izateagatik. Alde bakarreko moduan erabaki bat hartu zen herritarrek aintzat hartu gabe, Euskaltzaindiaren ikerketa baten gerizpean gordez. Arrabola nazionalista aplikatu zen herritarren sentimenduak kontuan hartu gabe. Ez zen herri kontsultarik egin, osoko bilkuran bozkatu egin zen herritarrei bizkar emanez. Burutua zegoen jazoera bat izan zen. Eta zergatik diot herritarrei bizkar emanda bozkatu zela? Euskaltzaindia ez delako biblia, Euskal Hizkuntzaren akademia da, baina ez du 10 manuen taula, izan ere, Retes de Tudela auzoak ez du izen hori, Retes de Junta Tudela da bere izena, Burgoseko haran bat da, eta horregatik zuzendu eta bi izenak ipini behar izan zituzten,

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

gaztelaniazkoa eta euskarazkoa. Baina bere erabakia, talde nazionalistek hemen osoko bilkuran hartu zuten erabakia PP taldeak Retes de Tudela izenari buruz hainbat argudio aurkeztu ondoren hartu zuten, eta auzo horretako zenbait herritar aurka agertu zirelako. Bestela, gaur egun auzo hori Erreta Tutera izango litzateke, eta hori da errealitatea". Errealitatea da Redes de Tudelako auzotar batzuk izen haren aurka azaldu ez balira, Retes de Junta Tudela izenaren perbertsio horren aurka, gaur egun Erreta Tutera izango litzateke izena, Euskaltzaindiak halaxe agertzen zuelako txosten hartan. "Izan ere, beste zenbaitetan adierazi izan dudan moduan, beste auzo batean, San Antonion, Euskaltzaindiak proposatutako izena Barratxi zen, auzotik berrehun metro ingurura dagoen paisaia bati ematen zaion izena. Auzo horretako biztanleak, behin osoko bilkura honetan izen berria onartu ostean, udaletxera bertaratu ziren guztiak beti izan zuten edo bederen beti gogoratu izan duten izena uzteko eskatuz. Gurasoek, aiton-amonek, birraitona eta birramonak eta abar transmititutako izena. Udalbatza honek izena berriro aldatu eta San Antonio uzteko erabakia hartu zuen. Euskaltzaindiaren manuen taula alde batera geratu zen herritarren iritzia eta irrikak bultzatuta, haien sentimenduen ondorioz eta sutsu eta grinatsuki izenen aldeketa defendatu zuten alderdi haiek beldur eszenikoa sentitu zutelako". Eta hori horrela da, izena aldatu genuen, eta osoko bilkura batean, 15 egunera edo 10 egunera edo 3 egunera, izen berriak ipini behar zirenean, plaka berriak, x auzotar etorri ziren hori ez zela horrela esanez, eta orduan automatikoki atzera egin eta hasierako eszenariora itzultzen gara. Jende orok ezagutu duen izena utziz. Beste udalerrri askok baduten zerbait eskatzen dut, esate baterako, Salvatierra herriak, izenen koofizialtasuna gaztelaniaz eta euskaraz, izan daitekeen moduan Salvatierra-Agurain, Bilbo-Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Llodio-Laudio, Arrasate-Mondragón eta abar, bi izenak mantentzea. Ez dut uste inori kalte egingo dionik Artziniega ordez Artziniega-Arceniega izendatzea.

Alkatea: ni duela 30 urtera arte Muskiz izeneko udalerrri batean bizi izan naiz, Muskiz hutsik, lehen, Musques zen, Somorrostro, San Julián... eztabaida honek, Arkaitzek esan duen moduan, uste dut ez duela zentzurik. Muskizen jende orok barneratu du izena Muskiz dela eta Artziniegan jende orok du barneratuta izena Artziniega dela.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderditik (3);

Abstentzia:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Ez da onartuta geratu.



9.- Kreditu gehigarriaren 2/2018 espedienteari buruzko esku-hartze txostenaren berri ematea.

"AURREKONTU EGONKORTASUNERAKO HELBURUA BETETZEARI BURUZKO KONTU-HARTZAILTZAREN EBALUAZIO-TXOSTENA¹

(kreditu gehigarriaren 2/2018 espedientea)

2/2018 KREDITU GEHIGARRIAREN espedientea onartzeari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikuluekin bat etorritz, igortzen dut hurrengo

TXOSTENA

LEHENA. *Aurrekontuak eta Tokiko Erakundeen gastu eta sarreretan eragiten duten gainerako esku-hartzeak eratu, onartu eta gauzatzeko garaian Aurrekontu Egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko printzipioei jarraituko zaie, koherentea dena Europako araudiarekin, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 3., 4., 11., 12. eta 13. artikuluetan, eta Arabako Tokiko Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 1., 2. eta 3. artikuluekin bat etorritz.*

Herri Administrazioen Aurrekontu Egonkortasun modura ulertuko da egiturazko oreka- edo superabit-egoera. Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.3 eta 11. 4. artikuluetan adierazten dena betez, Tokiko Erakundeek ezin izango dute egiturazko defizitean erori, berau zikloko defizit doitu gisa (hau da, ezohiko eta aldi baterako neurriak kenduta) ulertuta. Horrenbestez, aurrekontuari dagokionez oreka- edo superabit-egoera izan beharko dute.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluan ezartzen denez, gastu zenbakarriaren aldaketak ezin izango du Espainiako ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentzia-tasa gainditu. Gastu zenbakarri modura ulertuko dira hauek: erabilera ez-finantzakoak, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren terminoetan definituta, zorraren interesak kanpo utzita; Europar Batasunetik edo beste herri administrazio batzuetatik etorritako helburu jakin baterako funtsen bidez finantzatutako gastuaren zatia eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak. Gastuaren araua kalkulatzeko erreferentzia-tasa Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratuko du, Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12.3. artikulua arabera.

1

¹ Azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikuluekin bat etorritz, tokiko Kontu-hartzaileak Aurrekontu Egonkortasunerako helburua betetzeari buruzko txosten bat taxutuko du, modu independentean igorriko dena eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategineko 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentuetara gaineratuko dena.



Finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete egin beharko da, halakotzat ulertuta defizit eta zor publikoaren mugen barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena.

BIGARRENA. *Legeria aplikagarria hauek baldintzatuta dago;*

— *Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 3., 4., 11., 12. eta 13. artikulua.*

— *Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikulua.*

— *Arabako Tokiko Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Araua.*

HIRUGARRENA. *Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16. artikuluko 1 atalean in fine eta 2. atalean xedatzen denez, Tokiko Kontu-hartzaileak txostena aurkeztuko du Udalbatzan Tokiko Erakundearen nahiz hartako organismo eta erakunde mendekoen egonkortasun-helburua betetzeari buruz.*

Txosten horrek izaera independentea izango du eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onartzeko martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentutara gaineratuko da.

Tokiko Kontu-hartzaileak egindako kalkuluak eta burututako doikuntzak zehaztu beharko ditu bere txostenean, aurrekontuko gastu- eta sarrera-egoerei buruzko 1etik 9ra arteko kapituluetak datuak oinarritzat hartuz, Kontabilitate Nazionalako terminoetan definituta, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera.

Kontu-hartzaileak erabilera ez finantzarioek Barne Produktu Gordinaren erreferentzia-tasa gainditzen ez dutela egiaztatu beharko du, behin zorraren interesak, administrazioen transferentzia finalistak eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak kenduta.

Kontu-hartzaileak defizit eta zor publikoaren mugen barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena ebaluatu egin beharko du, Europako Araudian eta Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

LAUGARRENA. *Aurrekontu-oreka gastuen aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak eta sarreraren aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak alderatzean lortzen da. Aurrekontu egonkortasunerako helburua egiturazko oreka- edo superabit-egoera batekin identifikatuko da.*

Egonkortasunari buruzko printzipioa betetzen ez bada, Ekonomia eta Finantza Plan bat egin beharko da, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 21. eta 23. artikuluetan eta Arabako Tokiko Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7. artikuluan xedatuaren arabera.

SEIGARRENA. *Gastuaren araua kalkulatzeko gastu zenbakarriaren aldaketak Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratutako Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentzia-tasa ez duela gainditzen egiaztatuko da.*

2018ko ekitaldiko aurrekontua likidatzean zehaztuko da gastuaren arauari dagokion helburua egiaz bete den ala ez, partida bakoitza zer-nola gauzatu den ikusita.



ZAZPIGARRENA. Finantza iraunkortasuna bete den egiaztatzeko oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri direla egiaztatuko da.

Egun aurrekontuan ezarritakoarekin alderatuz, gastu handiagoa aurreikusten da onarpen-fasean den 2018ko aurrekontuan, hurrengo aurrekontu-aplikazioan:

AURREKO NTU-APLIKAZIOA	KONTZEPTUA	Aurrekontuan sartua	Aurreikuspen handiagoa
340.226.008	Jolas txokoak	9.000,00	3.500,00

era berean, finantza-iraunkortasunean eragina izanik ekitaldi honetan eta hurrengoetan, gastu hori errepikatzen bada.

ZORTZIGARRENA. Horri dagokionez, lortutako emaitzaren berri eman behar da:

Ondorio modura, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 32. artikuluaekin bat etorriz, Udal honek aukera dauka 2017ko Diru-zaintzako Soberakin Likidoarekin finantzatutako kreditu gehigarriaren espedienteak onartzeko, izan ere, ez du amortizatzeke dauden mailegurik.

2018ko ekitaldiko aurrekontua likidatzean zehaztuko da gastuaren arauari dagokion helburua egiaz bete den ala ez, partida bakoitza zer-nola gauzatu den ikusita.

Haatik, finantza iraunkortasunaren helburua betetzeari dagokionez, oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri diren ikusiz egiaztatu behar dena, kontu-hartzailetza honek espediente honetan aipatzen den gastuak finantza iraunkortasunean eragina izan dezakeela jakinarazten du:

Egun aurrekontuan ezarritakoarekin alderatuz, gastu handiagoa aurreikusten da onarpen-fasean den 2018ko aurrekontuan, hurrengo aurrekontu-aplikazioan:

AURREKONTU-APLIKAZIOA	KONTZEPTUA	Aurrekontuan sartua	Aurreikuspen handiagoa
340.226.008	Jolas txokoak	9.000,00	3.500,00

finantza-iraunkortasunean eragina izan dezakeelarik ekitaldi honetan eta hurrengoetan, gastu hori errepikatzen bada.

Egokitzat jotzen da txosten hau Udalbatzari jakinaraztea, inguruabar hori adieraziz”.

Alkatea: Jolas Txokoen lantaldea areagotzearen ondorioz aurrekontuan egindako aldaketa bat da, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeko balizko egoeraren berri ematen duena.



Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

10.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 84 eta 108 bitarteko dekretuen berri eman du.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

11.- Premiazko mozioa (EAJ eta EH Bildu).

Unai Gotxi Kastrexana: "EAJ eta EH Bildu udal taldeen premiazko mozioa. 2018ko ekainaren 1ean Auzitegi Nazionalaren lehen sekzioak 17/2018 epaia eman du, 2016ko urriaren 15ean Altsasun izandako gertakarien inguruko prozesu judizialaren inguruan, eta honako zigorrak ezarri dizkie auzipetuei, ebazpen judizialak probatutzat jotzen dituen ekintzen zigor kalifikazioen haritik:

Oihan Arnaz eta Iñaki Abad: 13 urteko espetxe zigorra.

Jokin Unamuno Goikoetxea eta Adur Ramirez de Alda: 12 urteko espetxe zigorra.

Jon Ander Cob, Julen Goikoetxea eta Aratz Urrizola: 9 urteko espetxe zigorra.

Ainara Urkijo: 2 urteko espetxe zigorra.

Aurrekoarekin bat etorritz, honakoa onartzen da:

1.- Presio politiko eta mediatikoak gertaerekin lotuta neurritz kanpoko zigorrak ezartzea eragin du. Presio horrek berekin ekarri du gertakariak ustezko delitu terroristatzar jotzea, eta mailaz kanpoko gehiegizko egoera batera iristea, Estatuko beste leku batzuetan horrelako egoerei normalean ezartzen ez zaien zigor-maila baita.

2.- Artziniegako Udalak gaitzetsi egiten ditu zigorrak, neurritz kanpokoak direlako. Neurrigabekeria presente izan da prozesu judizial osoan, gertakizunak delitu terroristatzat jotzean, eta Auzitegi Nazionalaren ikerketa, epaitze eta zigorrean.

3.- Artziniegako Udalak zigorren neurrigabekeria kontuan hartuta, bide judizial guztiak agortu bitartean zigortuak ez espetxeratzeko eskatzen du.



4.- Artziniegako Udalak justizia eskatzen du kasu honetarako, eta horrenbestez Altsasu Gurasoak taldeak antolatutako mobilizazioetan parte hartzera deitzen ditu herritar guztiak.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik gaiari buruz, beste behin Bildu udal taldeak mozio bat aurkezten zuen, eta EAJ taldearekin adostua izan da beste behin. Mozio politiko bat dakarkigu osoko bilkura honetara. Uste dut, eta berriro diot, udalerrri honetan lan asko dagoela egiteko, Artziniegako Udaletik ebazten ez diren halako mozioetan sartu gabe. Auzitegi Nazionalak erasotzaileak kondenatu ditu frogatutako gertaera batzuegatik, bikotearekin zeuden bi guardia zibil erasotzeagatik. Autoritatearen kontrako atentatua, lesioak, desordena politikoak eta mehatxuak leporatzen zaizkie, eta terrorismo-delituaren salaketak ukatu egiten dira, eta zuek zuen mozioan hori aurkezten duzue, ustezko delitu terrorista modura, bada tira, epaia irakurri baldin baduzue terrorismo-delitua ukatu egiten da, beraz zuen mozioa hankamotz geratzen da apur bat, edo egia nahasten du. Gertaera horiek oso larriak dira, eta edozein herritarrek nahiko luke justiziak legea hartuta esku-hartzea haien eskubideak defendatzeko, edo hemen gaudenok, zerbait antzekoa bizi edo pairatuz gero, ez al genuke justizia eta legea aplikatzeko eskatuko? Zorionez Espainian justizia independentea da eta legeak aplikatzen ditu. Zenbaitetan zigorrak gogorrak iruditu ahal zaizkigu eta beste batzuetan ahulak, baina hori da daukagun zigor-sistema. Ondoren eztabaidari buruz, jakina aurreko mozioa ez zenez kalean zegoen eztabaida bat, ez dut nik ikusten Artziniegan eztabaida hau oso irekita dagoenik. Pertsonen % 90, % 80 edo % 70 kalean dagoenik kondena hau salatuz. Nik uste dut, azken batean, zenbaitetan, ordezkatzeko dituzuenak kontuan hartuta, hautesleen % 90, % 80 edo % 70 izan daitekeelarik, pentsatzen duzue guztiak zuek bezalaxe pentsatuko dutela, eta gutxiengoak alboratu egiten dituzue, aurreko mozioan gerta daitekeen moduan, ez duzue kontuan hartzen sentimendu orokorra, beste aldearen sentimendua. Bitxia iruditzen zait guztion Alkate batek, eta errespetu osoz diot, bere pentsatzeko modu berezkoa eta bere ideologia duenak, osoko bilkura honetan, herri hau osatzen dugun, edo herri honetan bizi garen edo herri honetan errolatuta gauden 1.840 herritarren interes orokorrak defendatu beharrean, beti bere iritzia alde egitea. Niri etikoagoa irudituko litzaidake, mozio hau aurrera aterako dela jakinik, berak abstentzioa emango balu. Abstentzioa emango balu, etikagatik besterik ez. Izan ere, 1.840 herritar ordezkatzeko dituzue. Berari bozkatu dioten ala ez beste kontu bat da, baina 1.840 herritarrek ordezkatzeko dituzue. Etika arrazoiagatik Iñigori eskatuko nioke halako mozioetan abstentzioa eman dezala, udalerrri honetako herritar guztiak ordezkatzeko dituzue. Bera bezala pentsatzen dutenak, oposizioko beste alderdiak bezalaxe, EH Bildu izan daitekeena, pentsatzen dutenak, edo ezberdin pentsatzen dutenak, esate baterako, beste talde politiko batzuk, Udalean ordezkapena duten beste talde politikoek, edo ordezkariarik ez duten beste talde politiko edo sentimendu batzuek. Ni egia esan, egun bat bai eta bestea ez ekartzen duzue Katalunia, presoak, Altsasuko auzia, bada agian bat-batean Almerian gertatutako zerbait ekarriko didazue. Ez dakit epaileak zer esango duen, baina agian hemendik hilabete batzuetara ekarriko didazue gehiegizkoa dela esanez, edo ez al da gehiegizkoa Almerian gertatu dena narkotrafikatzaile batzuek guardia zibileko agenteak ia harrapatu eta hil dituztenean. Ez dut uste mozio hauek Udala honetara ekartzen jarraitu behar denik eztabaidatzera, izan ere, ez dugu ebazteko ahalmenik eta egiten dugun bakarra da gure burua nekatu eta jomuga kendu, edo udalerrri honek behar dituen gauza garrantzitsuagoetatik jomuga kendu, zeintzuek gure lana eta prestutasuna behar duten.

Unai Gotxi Kastrexana: Joseba, zer da politika? Politika da aurkezten dugun mozio hau eta politika da hitz egin denean kanpora joan behar izan naizen puntu hori. Osoko bilkuren areto

Ayuntamiento de Artziniega

(Alava)



Artziniegako Udala

(Araba)

honetan egiten dugun guztia politika, eztabaida eta erabakiak hartzea da. Eta Espainiako justiziarri dagokionez ez naiz sartzeko zein jomuga duen, egun berekoak diren bi titular irakurri baino ez dizut egingo, honatx: “En libertad los 8 detenidos en Algeciras acusados de agredir a varios guardias civiles”, eta ondoren “La Audiencia Nacional envía a prisión a Iñaki Abad, Aratz Urrizola, Jon Ander Cob y Julen Goikoetxea”. Nik uste dut nahiko argi dagoela zein den Espainiako justiziaren jomuga. Eta soilik esango dizut gertakari horiek hemen Artziniegan gertatu izan balira, niri eta pentsatzen dut guri, gustatuko litzaikeela Altsasuko Udalak gure elkartasuna adieraztea.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, ikuspuntu bat da hori, partekatzen ez dudana, baina tira, niri gustatuko ez litzaidakeena da 4 pertsona eraso baldin badituzte, jadanik ez ditugu koloreak ipiniko, 4 pertsona eraso baldin badituzte, tartean bi emakume, logikoena irudituko litzaidake Udal honek biktimekin elkartasuna erakustea, ez erasotzaileekin, izan ere, Udal honetatik emakumeekin elkartasuna adierazten da, erasotuak izan direnean, berdintasuna aipatzen ari gara uneoro Udal honetan, berdintasun-planak ekartzen ari gara Udal honetara, eta bat-batean erasotzaileak defendatzen ari gara. Izan ere, hau logikarik eza bortitza da, irrigarria da, hau zera da tira... gertakariak ikusteko zuen modua da, erasoak pairatu zuten pertsonen kutsu politikoa zutelako, zuk ongi esan duzun moduan politikoa, guardia zibilak ziren, eta haiekin zeuden bi emakumeak horien neskalagunak ziren. Orduan, azken batean, gauza bera da, gorrotoak halako ekintzak burutzeraz garamatza. Gauza bera zatekeen ni Artziniegan, naizena naizelako eta ordezkatzeko ditudan idealak ordezkatzeko ditudalako, herri honetako edozein tabernetan ardo bat hartzea ezin joatea. Eta irteten banaiz arriskuan nago egurra eman ahal didatelako edo gaitzespenak jaso ditzakedalako pentsatzeko edo sentitzeko nire moduatik, hori pasatu baitut nik 18 urtez edo 15 urtez Euskadiko hainbat zonaldeetan. Ni ezin nintekeen joan Euskadiko zonalde jakin batzuetara, izan ere, ezagutzen baninduten arazo bat nuen. Hori da egiaz arriskutsua dena, azken batean gorrotoa transmititzen jarraitzen dela, eta azkenean gorrotoak halako gehiegikeriak egitera eramaten gaituela, halako gehiegikeriak, non pertsona talde batek itsutasunean lau herritar erasotzen baititu. Eta hori da hemen egiaz eztabaidatu beharko genukeena, ez dadin berriro errepikatu. Eta ez X pertsona defendatu lau herritar egurtzeagatik Altsasuko taberna batean. Erasotzailea defendatu eta biktima epaitzen dugu. Euskadin 40 urte baino gehiagoan gertatu dena. Azkenean gaizkileak biktimak ziren eta onak erasotzaileak.

Unai Gotxi Kastrexana: ez dakit entzun didazun lehen mozioa irakurri dudanean, lehen esaldiak dio “*Artziniegako Udalak justizia eskatzen du kasu honetarako,*”, justizia, guztiak berdin epaitzea.

Joseba Elejalde Ribacoba: epai berdina baldintzatuta egongo da epaileak zer-nola ikusten dituen frogak, eta epai berdina ezin daiteke izan, giza hilketa bat izan daiteke berariaz egindakoa, nahigabe eragindakoa edo erailketa izan daiteke, eta dituen frogen arabera epaileak erabaki bat hartuko du eta fiskalak eta epaileak erabakiko dute zein zigor ipini. Azken batean justizia, eta lehen irakurri dudana errepikatuko dut berriro, dugun zigor kodea dugu, eta zenbait frogen arabera aplikatzen da. Frogek esaten badute hau horrela gertatu dela eta frogatu bada, bada Administrazioetatik ezarritako zigorrak onartu egin beharko ditugu eta onartu egin beharko dugu judikatura independentea dela. Eta bestela, izan ere hemen badirudi zenbaitetan, mesedegarriak zaizkigunean justizia behar bezala aplikatu dela legea aintzat hartuz, eta mesedegarriak ez zaizkigunean gertatzen dena da justiziak ez duela legea behar bezala aplikatu eta gehiegizkoa da gertakariak kontuan hartuz. Bada tira, bada kito, bakoitzak justizia ikusteko gure modua izango dugu, baina errealitatea da dagoeneko epaileak ezarri dizkiela zenbait kondena pertsona



batzuei frogatuta dauden gertakari batzuegatik, eta lehen esan dudan moduan, horien artean ez dago izaera terroristakoa eta zuek sartu egin duzue zuen mozioan, eta azkenean, bada tira, hein batean ez zarete egia kontatzen ari gaur egun. Eta mozioa sartu zenutenean, ekainaren 7an sartu zenuten, gaur egun gezurretan ari zarete.

Joseba Vivanco Retes: aipu bat soilik. Epai berdintasunez, justiziaz eta abar ari zara hizketan, atzo Pedro Sanchezek Grande Marlaska epailea izendatu zuen barne ministro. Europako giza eskubideen batzordeak Espainiako Gobernuak kondenatu du, atxilotuei eragindako torturen presentzia ikertu gabe utzi ziren 9 kasu uste dut zeudela, kasu horietako 6 Grande Marlascak zuzentzen zituen. Eta Barne Ministro berria da.

Alkatea: beno, ados, besterik gabe. Aizu, nik ñabardura bat Joseba, eskertzen dizut iradokizuna, baina ni udalbatzako kide gisa, eta hemen osoko bilkuran beste boto bat naiz, uste dut badudala iritzia eman eta bozkatzeko eskubidea. Eskertzen dizut iradokizuna baina...

Joseba Elejalde Ribacoba: nik iritziaz Iñigo ez dizut esan ezin duzunik zure iritzia eman. Esan dizut azken batean halako mozioetan, azken batean badakizu aurrera aterako duzuela, bederen eman abstentzioa Alkate modura, besterik gabe...

Alkatea: eskertzen dizut iradokizuna, baina uste dut iritzia eman eta bozkatzeko eskubidea badudala.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderditik (3);

Onartuta geratu da.

12.- Udal kudeaketaren kontrola.

- Iñigo Gomez Unzueta: azken osoko bilkurari buruz azken ñabardura bat. Jakinarazi zen Barrenkaleko tapak askatu egiten zirela. Oraindik ez dira aldatu eta brigada jakinaren gainean dago hobekuntza gauza dezan, gomak instalatzeko, kasu batzuetan gastatu egin baitira.



- Arkaitz San Jose Martinez: hainbat bider osoko bilkura honetan gure kezka edo gure zalantzak agertu ditugu Artziniegako Udaleko gizarte-sare ofizialak kudeatzeko moduaren inguruan eta gaia berriro dakarkigu, izan ere, ez dakigu irizpiderik dagoen erabakitzeke gauza batzuk baietz eta beste gauza batzuk ezetz, izan ere, tira, Artziniegako Udalak bere kabuz egiten dituen jarduerak eta iragarkiak argitaratzea ulertuko genuke, baina ez da hala. Gaizki ere ez zaigu iruditzen, baina aukeren sorta irekitzen duzunean, osorik irekitzen duzu edo irizpide bat izan beharko zenuke guztiok jakin dezagun nola funtzionatzen duen. Esaten ari naiz, funtsean, azkenaldian Kuadrillako beste udalderri batzuetan dauden jardueren iragarkiak bidaltzen direla, eta baita Artziniegako elkarte edo taldeek burutzen dituzten jarduerak, non Udalak ez duen zerikusirik eta, aitzitik, duela gutxi Aiaraldea hedabidearen aldeko festa ospatu zenean, Udalaren babesa ez baina haren baimena zuzenean, ez zen inolako aipamenik egin ekitaldi horretaz eta uste dugu garrantzitsua zela, gainera egun oso baterako programazioa zen, eta ez zen gizarte-sareetan ekitaldi horri buruzko aipamen bakarra ere egin. Eta uste dugu jendeak ezagutzeko moduko kontu interesgarri bat zela.

Inmaculada Vivanco Retes: normalean Udalak parte hartzen duenean ekitaldi batean gertatzen zaizkigun gauzei publizitatea eman ohi zaie, eta baita beste elkarte batzuek antolatuta eta publizitatea emateko helarazten dizkigutenei ere. Eta beste udal batzuei dagokienez, zehazki, Aiarako Udalaz hitz egiten ari bazara, uste dut bi aldiz iragarri direla esparru soziosanitarioko hitzaldi batzuk, izan ere, Aiara Oinez taldetik eskatu du, haiek baitira antolatzen dutenak, eta Artziniegako gurasoentzat ere interesgarria izan zitekeen jarduera bat zen, eta Aiara egiten zena, eta dauden aukera eta baliabideak partekatzeko aukera zegoen, Artziniegako jendea Aiara doan bezalaxe, badira zenbait jarduera non Aiarako herritarrak Artziniegara etortzen diren. Ez dute horretan ezer arraroa ikusten. Esparru soziosanitarioari dagokionez, gainera, Aiara erdia Artziniegako kontsultaren baitan dago, esate baterako. Aiaraldeari buruz diozun hori? Uste dut dezente iragarrita zegoela. Baina besterik gabe, ez naiz gai horretan sartuko.

Arkaitz San Jose Martinez: irizpidea baldin bada eskatu egin behar dela, gizarte sareetan aipu jakin bat ez zela eskatu ulertzen dugu eta apuntatu egingo dugu.

Inmaculada Vivanco Retes: eskatu ez, ez naiz eskatzeaz hitz egiten ari, ez naiz eskaera formal batez hitz egiten ari. Une jakin batean agian nik eskaera bat jaso dut, besteren batean WhatsApp bidez pasatu dute eta beste batzuetan posta elektronikoz publizitatea emateko.

Joseba Vivanco Retes: hau da, gobernuko taldea esaten ari da egun hartan festa hori sustatzen zutenek, non gogoratu nahi dut Artziniegako kultur eta kirol elkarte ugari parte hartzen baitzuten, ez ziotela Udalari ezer aipatu kartel hori igo zedin.

Inmaculada Vivanco Retes: bai, bada ez dela publiziterik egin, ez naiz eztabaidan sartuko. Udalak ere parte hartzen zuen, azpiegitura hori guztiori ipini baitzuen.

Joseba Vivanco Retes: Eta zergatik ez zen igo? Esan duzu lehen norbaitek ez badu hona berariak ekartzen antolatzen ez duelako Udalak ez duela sartzen. Orain ekarri zela esaten duzu.

Inmaculada Vivanco Retes: ezetz. Esan dut kasu jakin horretan, esan dut eta berriro errepikatuko dut, eta ulertu nahi didanak, guztiok ulertzen didazue, eta ez diot buelta gehiago emango, are Aiaraldeako ordezkariak ere, hemen baitago, ulertuko dit. Ez naiz eztabaidan sartuko gai horrekin eta kito, akabo. Eta Aiaraldeako ordezkariarekin hitz egin dut eta kito.



Besterik gabe. Ez naiz eztabaidan sartuko eta ez dut azalpen gehiago emango.

Joseba Vivanco Retes: berriro diot, esaten duzuen bezala baldin bada, kartel hori, programazio hori, Udalera ekarri zen gizarte sareetara igo zedin, zergatik ez zen hala egin? Galdera simplea da, zergatik ez zen hala egin? Uste dut hemen dagoen jende orok ulertzen duela. Zergatik ez zen hala egin? Erantzuna oraindik, hemen gaudenen artean inozoenak gara oraindik ez baitugu ulertu.

Inmaculada Vivanco Retes: ez, ez, ez. Jende orok du erantzuna eta badaki. Bakoitzak har bez a nahi duen erantzuna.

Joseba Vivanco Retes: bada ezer ez, gizarte sareekin nahi dena egiten jarraitzen dugu, nahi denari erantzuten zaio, nahi dena iragartzen da, eta kito.

Alkatea: erantzun da.

Joseba Vivanco Retes: ez dago erantzunda, erantzutearen ezberdina da.

Alkatea: erantzunda dago. Beste gauza bat da espero duzun erantzuna ez jasotzea, baina erantzunda dago.

- Arkaitz San Jose Martinez: hau informazio eskaera bat da, izan ere, herrian badugu edo bagenuen hotel bat eta guztiok dakigu zein inguruabar direla medio eten zuen bere jarduna, eta beno, uda gerturatzen ari da, hotela itxita dago, eta zer-nolako kudeaketak egiten ari diren jakin nahi dugu, izan ere, noizbait esan zaigu "hitz egin da, harekin hitz egin da..." baina gaur egun berdin jarraitzen dugu.

Alkatea: zoritxarrez nolabaiteko interesa erakutsi duen jendeak atzera egin du azkenean. Beraz, guk Udal modura genuen ideia hori, obrak sustatzaile batek egitea, berrikustea birpentsatu behar dugu. Eta agian guk egin egikaritu beharko ditugu obrak hori aurrera ateratzeko.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina gai horrekin bazen arazo bat, etorkizunean zein deiera izango duen jakin behar baitugu obrak modu batera ala beste modu batera egiteko. Eta erabakia hartzen duzun unean...

Alkatea: horregatik aurkeztu genuen une jakin batean ikerketa bat egiteko aukera esango ziguna "hotelak ezaugarri hauek izan behar ditu, halakoa izan behar da" hortik aurrera landu ahal izateko. Batzorde batean mahai gainean uzteko esan genuen. Agian gaiari heldu beharko diogu berriro.

Unai Gotxi Kastrexana: gai horri buruz esaten duzu zoritxarrez gai horrekin interesa zuten guztiok, hotela hartzearekin, atzera egin dutela. Udalak plegurako prozesuak abiatu aurretik, EH Bildu taldetik gogorarazi behar izan genuen osoko bilkuretan behin baino gehiagotan, plegu horiek abiatu egin behar zirela, prozesua abiatu egin behar zela, jendeak Dorrea hartzeko zuen asmoa hoztu egingo zelako bestela. Eta hori gertatu zaigu, eta hiru uda daramatzagu kontuarekin gutxienez...

Alkatea: uste dut hasiera batean atera genituen pleguei aldeko bozka eman zenietela.



Unai Gotxi Kastrexana: bai, bai, baina hilabeteak behar izan ziren proposamen bat ateratzeko.

Alkatea: bai, bai, pleguak atera aurretik hainbat kudeaketa egin ziren.

Inmaculada Vivanco Retes: zein ildotik joan behar genuen ikusteko.

Unai Gotxi Kastrexana: EH-Bildu taldetik osoko bilkura askotan galdetu behar izan genuen.

- Unai Gotxi Kastrexana: Udaletxe zaharreko obra amaitu zenetik Gazte Txoko bihurtzeko, iazko urrian, zenbait akats zeudela jakin zen, ondoren konpontzera etorri zirenak, barandak, zorua... baina oraindik bat geratzen da, itoginena. Guk ohartarazi genuen teilatu hori ez zegoela baldintza onetan eta zoritxarrez arrazoi genuen. Orduan galdetzen dut, zer pentsatzen du gobernuko taldeak egitea Udaletxe zaharreko itoginekin?

Alkatea: bada Udaletxe zaharreko itoginekin egin beharko duguna da eraikitzaileari deitu eta baita proiektua idatzi duenari eta obrako zuzendariari.

Unai Gotxi Kastrexana: baina, noiz dago hori egiteko asmoa?

Alkatea: hainbat bilkura egin ditugu izapideak abiarazteko. Oraindik zati teknikoaren aldetik ez dira abiatu. Baina hori da egin behar dugun planteamendua.

Unai Gotxi Kastrexana: baina guk aurreko osoko bilkuran galdetu genuen ordea, oraindik ez al da deus egin?

Alkatea: ez, oraindik zerbitzu teknikoak ez dira hasi.

Unai Gotxi Kastrexana: denbora asko daramagu Udaletxe zaharrarekin kontua geldirik dugula, teilatua itoginekin dagoela.

Alkatea: berriro diotsut prozedura formala oraindik ez dela abiatu.

Unai Gotxi Kastrexana: bada hori, aurreko osoko bilkuran galdetu genuen, egiteko asmoa dagoela esaten zaigu, eta orain berriro. Hots, zeren zain gaude, uda ostean berriro itoginak egoteko zain? Edo uda guztia deus egin gabe pasatu eta ondoren urrian euria hasten denean, hara, itoginak zeuden eta!

Alkatea: ez, zerbitzu teknikoen aldetik prozedura abiatzeko zain gaude.

Unai Gotxi Kastrexana: ados, espero dut hurrengo osoko bilkuran berriro galdetu behar ez izatea, irailan dagoeneko.

- Unai Gotxi Kastrexana: beste gai bat, dekretuetako batean herriguneko kaleetarako ez labaintzekoa esleitzeko kontua dago. Noiz aplikatzea aurreikusten da?

Alkatea: bada arazo bat dugu, ez duela euririk egin behar. Lehor egon behar duela. Eta euririk gabeko hainbat egun kateatu behar dira. Eta horretan gaude.

Unai Gotxi Kastrexana: bikain. Orduan eguraldi ona datorrenerako itxarongo dugu. Bakarrik



aipatzearren, dekretua hau ere bitxia iruditzen zait, zioen justifikazioan zera esaten da: "herrigune historiko espaloiz ugarian izan diren eroriko ugarien ondorioz", erorikoak ez dira gertatzen soilik irrist egiteagatik, baizik eta espaloiak egoera txarrean daudelako eta 2015. urtetik oroitzen dugu eta oroitzen ari gara hori.

Alkatea: beno, aipatzen ari garen kasu zehatza labaintzearena da.

Unai Gotxi Kastrexana: ba, bai, hori ere bai, baina bada beste arrazoi bat eta badirudi ahantzi egiten zaigula, eta espero dugun gehiago ez ahaztea.

Alkatea: ez, ez, nik esaten dizut ez zaigula ahaztuko. Beste gauza bat da dugun lan-zama, baina ez zaigu ahazten. Baina kasu jakin horretan labaintzeagatik da. Eta azkenik badirudi irtenbidea aurkitu dugula. Matxardadura ez baitzen horretarako behin betiko irtenbidea. Eta horrela ere ez dugu konpondu, hormigoizko espaloietan tratamenduak ez baitu balio. Beraz beste bat bilatu beharko dugu. Horrek harrirako baino ez du balioko. Ez hormigoirako.

Unai Gotxi Kastrexana: eta konpondu ere bai.

Alkatea: konpontzeak ere hobetu egiten du, jakina, baina ez du labaintzearena konpontzen.

Unai Gotxi Kastrexana: espaloiek zuloak badituzte...

- Unai Gotxi Kastrexana: galdetu nizun ez dakit aurreko osoko bilkuran edo aurrekoan, ea zein zen espaloiak bukatzeko epea. Bukatu a la dagoeneko, Moyuak amaitu al du espaloien obra ezaguna?

Alkatea: bada, uste dut baietz. Ez dakit zerbait falta den, ezin dizut esan. Ez dut Aldundiarekin hitz egin joan den astean eta ezin dizut esan egiaz amaituta dauden ala ez.

Unai Gotxi Kastrexana: tira nik, ez dakit, baina gauzaren bat ez dakit egiteke ez ote dagoen.

Alkatea: ez dakit, ezin dizut esan.

Unai Gotxi Kastrexana: Alkatetzak Aldundian galdera luzatu arte itxarongo dugu eta informa dadila, besterik gabe ez dadin gerta Moyua Aldundiarekin haserretu zenean gertatu zena, ez gaitzabela berriro albo batera utzi.

Alkatea: ez dakit zein gabeziaz hitz egiten ari ahal zaren. Egiteari utzitako gauza garrantzitsuak, horiek egiten ari dira.

Unai Gotxi Kastrexana: bai, gauza garrantzitsuak bai. Baina tira, ez dadila kontua askoz gehiago luzatu.

Alkatea: agian bada ñabarduraren bat, hor geratu den zerbait...

Joseba Vivanco Retes: esate baterako, zubia baino lehenago, ez dakit haiek duten hura birjartzeko eskumena edo Udalak egin behar duen, txakurrentzako poltsen makina falta da, oraindik falta dela uste dut.

Alkatea: hori guk ipiniko dugu.



- Unai Gotxi Kastrexana: oker ez banago jauregiko ispilua hautsita dago. Gutxi iraun du. Eta behin handik irten nintzen eta konturatu nintzen lehen bi ispilu zeudela, askoz ere hobeto ikusten zen. Orain Moyuak bakarra birjarri du.

Alkatea: ez da Moyua izan, Aldundiak ipini du.

Unai Gotxi Kastrexana: beno bada ea Aldundiak beste bat ipintzen duen bide batez. Baina ez dezala birjartzen horrenbeste denbora igaro, aurrekoan bezala.

- Joseba Vivanco Retes: bai, bi gauza, bat autokarabanen parkingeko zonaldean, baina baita kiroldegiari dagokionez ere, oraindik paper-ontzi bat falta da lehen bazegoena iturri berria ipini den gunean. Azken osoko bilkuran esan genuen, oraindik falta da eta jendeak badu haren beharra ez baitu gauzak nora bota eta azkenean lurrean amaitzen du, pentsatzen dut. Eta ondoren sarreraren euskarazko kartela ere falta da oraindik, askoz errazagoa zatekeelarik ez jarri eta karabanaren marrazkitxoarekin uztea ezer idatzita ipini gabe.

Alkatea: enpresari eskatu zaio dagoeneko ipin dezala. Eta egia da itsasgarri bat jartzearekin nahikoa zela, baina denbora daramate kontuarekin eta ez dute aldatu.

- Joseba Vivanco Retes: eta gero beste gauza bat, eta ez dakit gobernuko taldeak gomendio modura har dezakeen, bai, baina baita... ez dakit, nahi duen bezala har dezala. Maiatzean Udalak postaz banatu zituen, pentsatzen dut ez zuela hori egiteko betebeharra, baina beno, hala egin zuen, eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko orri horiek. Argi utzi behar da Eusko Jaurilaritza dagokion kontu bat dela, Udalak ez du inolako zerikusirik honetan, pentsatzen dut Udalak asmo onez egin zuela jendea informatze aldera, eta horregatik banatu ziren postaz, jakinarazteko ekainaren 27a dela epe-muga, 50 urtetik gora dituzten eraikin guztiek eraikinen ikuskapen teknikoa burutzeko epea amaitzen da. Pentsatzen dut era berean, hemen gaudenok, kalean ibiltzen garela edo udaletxera arte etortzen garenak, konturatu garela jendeak sekulako nahas-mahasa duela, eta ez dute ulertzen zer egin behar duten edo zer adierazten den, edo nor den horren arduraduna. Horrenbestez, zer gertatzen da? Udalak ez duen betebeharrak bat azkenean Udalarentzat "marroi" bat dela. Halako zer bait egin behar badugu, eta horregatik diotsuet gomendio modura har dezazuela, asmo onez, ongi egin dadila. Izan ere, azken batean bidalitako gutunean ez da azalpen gehiegirik ematen, eta esaten zaie "zuen eskura gaude edozein zalantza erantzuteko". Ez, edozein zalantza argitzeko prest Eusko Jaurilaritza egongo da, eta deia hartu behar duen Sailaren telefono-zenbakia atxikitzen zaie eta deitu nahi baduzu hara deitu. Azken batean gertatzen ari baita jendeak sekulako saltsa duela, uste du Udala dela honen jarraipena egiten ari dena, ez dakit, niri galdetu egin zidaten, Udala ote den hau ordaintzen duena... Esaten zidaten, zergatik ez du Udalak ipintzen zein arkitektoari deitu behar zaion? Jakina, bada jende nagusia, orotariko jendearengana iristen da hau eta esaten du, hau zer da? Azkenean udaletxera etortzen da, behean galdetuz, han gaiaren inguruan ezer ez dakiten arren, teoriarik dakien bakarrik aparejadorea da, aparejadorea oportetean da, beraz datorren asteazkenean arte ez dago, beraz jendeak zituen zalantza horiek guztiak ebazteke geratzen dira. Ongi dago hau egitea, ados ez da betebeharrak bat, ez da eskumen bat, baina ongi egin dadila. Izan



ere, azkenean, eta gauza gehiago gertatzen dira eta marroiak udaletxera datoz azkenean, ondoren informaziorik ere ez dutenean. Orduan herritarrak etortzen dira eta esaten dute "ez, salbuetsita daude era berean bidera edo espazio publikora fatxadarik ez duten isolatutako familiabakarreko erakinak", hots, edozein baserri, auzoen zonaldean... ez dira sartzen.

Alkatea: ez dakit hori indargabetuta dagoen ala ez.

Inmaculada Vivanco Retes: hori indargabetuta dago.

Alkatea: indargabetuta dago, indargabetuta egon behar da.

Joseba Vivanco Retes: bada han jarraitzen du, legeen tokian.

Joseba Elejalde Ribacoba: barkatu Joseba, nik atzo arkitekto batekin hitz egin nuen, izan ere, jakina nik postontzitik hartu nuen Udaletik igorri zitzaigun gutuna, eta nik Erretan dudan baserria familiakoa da, eta arkitekto batekin hitz egin nuen atzo eta jakinarazi zidan, lehendabiziko gauza esan zidan ea partzela bideren batekin mugakide ote zen, esan nion baietz jakina, esan zidan ez bazen mugakide, eta hau hori maiz egiten ari den arkitekto bat da, ez bazen mugakide espazio publikoarekin edo bideren batekin ez zuela egiteko betebeharririk. Hori esan zidan atzo arkitekto batek. Horregatik diotsut egiaz ez baldin badago arauaren barnean, arkitektoek ere izango dute beren saltsa araudiaren barnean egin ahal izan diren aldaketekin. Nik esaten dizut atzo goizean arkitekto bati deitu niola baserritik igaro zedila eskatuz mesedez txostena egin zezan, edo ikuskapen teknikoa, eta hori izan zen egin zidan lehen galdera. Ea egiaz mugakide ote zuen, edo partzelaren baten barruan ote zen... eta mugakide zenez, orduan egiteko betebeharra dut.

Inmaculada Vivanco Retes: nik ez dut inolako teknikarirekin hitz egin gai honi dagokionez, baina azken batean kontu honek udalerrri guztietan du eragina eta atzo hain zuzen adiskide batzuekin aipatzen, batzuk Amurriokoak beste batzuk Urduñakoak, Urduñak ere igorri zuen oroitzapen hori, Amurriokoa aldiz oso nahigabetuta sentitu zen, izan ere, Amurriok ez zuen kudeaketa hori egin, bederen bera bizi den lekura ez zen informazio hori iritsi, eta nik esan nien kontu hori, hots, ea bide publikora ematen ote duen ala ez. Urduñako adiskideak esan zidan berak Udalean galdetu zuela eta arkitekto batekin ere hitz egin zuela, berez enkargatu egin zuela, eta artikulu hori indargabetuta omen zegoen. Ezetx esan ziotela, hori hor zegoela baina legeren batean, izan ere, gero informazioa begiratzan aritu ginen eta artikuluen interpretazioa den modukoa da, baina zalantza horrekin geratu ginen, indargabetuta ote dagoen ala ez. Urduñako adiskideak aipatu zuena da, Udalarekin eta EIT ikuskapenaren txostena egiteko arkitektoarekin hitz egin ondoren, indargabetuta zegoela. Berez bere etxea etxe individuala baita, lorategiz inguratua dagoena, eta fatxadak ez du bide publikora ematen.

Alkatea: edozein modutan kontu honekin Joseba, arrazoia eman behar dizut. Hori Eusko Jaurlaritzak onartu duen araudi bat da, baina ondoren pilota udaletxeetara iristen zaigu.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina hona iristen zaigu baina ondoren ez dugu ongi jarduten.

Alkatea: ez, ez da erortzen, ongi ala gaizki egin. Izan ere, gutuna bidaltzeko esan zutenean nik pentsatu nuen guk bidali behar al dugu gutuna hau Jaurlaritzari dagokion zerbait denean? Bidali beharrean gaude bai ala ez? Informazio modura bidaltzen da, agian idazketa ez da egokiena izan, baina gutunarena berarena planteatzea ere, Jaurlaritza baldin bada eskumena duena, Jaurlaritzak igor dezala, hots, ez gaitzala gu saltsatan sartu. Bada, beti sartzen digu, izan ere, ondoren Udalak du erregistroa eramateko betebeharra, kontrolatu eta hemen jasotzen diren



EIT ikuskapenak igortzearena.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina esaten dut urrats hori ematen dela, Urduñak eman egiten du, Amurriok ez du ematen, bakoitzak nahi duena egiten du, eman egiten da, bikain, herritarrak informatu egiten dituzu, ez da zure eskumena baina oroitarazten diezu, "aizu, adi, hau amaitzear da". Jakina, baina azkenean beti berdin amaitzen dugu. Pilota hona iristen da, zergatik? Tira, hau egiten baduzu, bederen beheran arretan dagoen jendeak, zalantzekin etorriko baitzaizkie, gutxieneko ezagutza izan dezala esateko "aizu, begira, hau horrela da, eta hori horrela, edo ez da horrela eta ezta horrela ere", eta argi utziz hau Jaurlaritzari dagokion zerbait dela. Bada Udalean erregistratu den idatziren bat hori aipatzen duena eta Udalari eskatu edo erregutzen zaio izan dezala ez dakit zein magnanimitate edo ez dakit zer, ez... Udalari hau bost. Eusko Jaurlaritzak segi, baina azkenean gauzak egiten ditugu, gauzak ongi egin nahi ditugu, eta azkenean hala nola egiten ditugu...

Alkatea: eta gainera Udalak berak ematen duen lanarekin aski lan dugu Jaurlaritzarena ere egin behar izateko.

Joseba Vivanco Retes: bada horixe, askotan nahastu egiten gabela kontu hauekin, dagoeneko badaudenetik harago lan gehiago hartuz, eta hori ere ez da kontua. Are gehiago, nik uste dut, ideia on modura, bilkura bat egin zitekeela, agian herrigunean, bertan baitaude berrogeita hamar urtetik gorako eraikin horietako gehienak, bilkura bat egin zitekeen, aparejadorea joango zatekeen, edo norbait, baldintzak apur bat azaltzera, jendeak uler dezala eta ondoren bada, kito, gutuna igortzea baino hobe izango zatekeen.

- Joseba Elejalde Ribacoba: nik duela bi urte, 2016ko abuztuaren 9an, idatzi bat sartu nuen, honakoa zioena: "joan den larunbatean p2 362 partzelan egon nintzen (1. plano) Mendietara igotzen den bidearen alboan, Toño Garciaren jabetzakoa dena. Aipatu bidearen ezkerrean ez dagoela arekarik egiaztatu ahal izan nuela (3. argazkia). Euria egiten duenean bidetik jaisten den ura p2 362 partzelan sartzen dela, ezpondan kalteak sorraraziz, atxikitako argazkietan ikusten den moduan (1. eta 2. argazkiak). Eskuineko areka nahikoa zikin dagoela eta garbitzeko premia dagoela ura behar bezala jaria dadin, kutxatila sastrakek tapatuta dago ia osorik". Txosten tekniko bat egin zedila eskatzen nuen, txosten hori hirigintzako batzordean jorra zedila, ura eskuineko arekara bideratzeko beharrezkoak diren obrak egin zitezela egoera hori ekiditeko bidearen ezkerrean kutxatila bat ipiniz, hartatik hodi bat gurutzatuz eta lehendabiziko kutxatila bigarrenarekin konektatuz (4. argazkia), hura baita ura Arteko errekastora eramaten duena, eta jabedunari jakinarazi ziezaiola hartutako erabakia. Esan dudan moduan hori 2016ko abuztuaren 9an izan zen. 2016ko irailaren 26an dagokion teknikariaren txosten bat dago, zera dioena: "Oharrak: ikuskapenerako bisita burutu da adierazitako lekura azalduko gorabeherak egiaztatzeko honakoak hautemanen: "idatzi honetan adierazten den moduan, bideak ez du arekarik ezkerrean, Mendietarako noranzkoan. Era berean, bihurgunearen zonaldean bidetik datozen urak, bere inklinazioa dela medio, ezkerredera doazela ikus daiteke, eta alde horretan ez dago kanalizaziorik, 2-362 partzelan gainezka eginez. Partzelako ezpondan aipatutako kalteei dagokienez, kanpoaldetik ez dira ikusi partzelan euri-ura isuri izanagatik kalterik. Adierazi, era berean, jabedunek egindako ezpondak gehiegizko inklinazioz eginda daudela eta, horrenbestez, ziurren kalteak izango direla eragin meteorologikoen ondorioz, aipatutako uren isuria kontuan hartu gabe ere. Ondorioak: aurrekoa ikusirik, bidetik 2. industrialdeko 362 zenbakidun partzelara isurtzen diren euri-uren arazoa konpontzeko, ezinbestekoa izango da bidearen bihurgunearen



zonaldean ezkeraldeko areka eskuinaldekoarekin konektatzea nahikoa diametro izango duen tutu batekin, modu horretan urak desbideratu eta partzela horretara isurtzea ekidinez. Halaber, arekak garbitu egin beharko dira, horien funtzioa eraginkortasun handiagoz bete dadin". Beno, bi urte igaro ondotik handik pasatu naiz berriro gaur goizean, banekien egin gabe zegoela, baina arekak zer-nola zeuden ikusteko. Urak bideratzeko obra hori egiteke dago oraindik, eta arekak zikinak ez, hurrengo, hori esaten den moduan. Lotsagarria da, urak partzela horretara isurtzen dira oraindik, ez da obra egikaritu, txosten tekniko batek abalaturako obra bat da, eta nik bada lñigori, udalerrri honetako Alkateari galdetzen diot, zergatik bi urte igaro ondoren obra hori egin gabe dago? Obretako brigadek gehiegizko lana dutelako ote da hori ere? Zegatik ez zaie kasurik egiten txosten teknikoei? Zergatik Gobernuko taldeak eta Alkateak ez dute gutxieneko errespetu bat erakusten beste taldeetako zinegotzi batzuek egindako lanaren aurrean? Lehen mailako eta bigarren mailako herritarrak al daude herri honetan? Hots, ni, azken batean, lan egiten dudan pertsona bat naiz, hemen gaudenon beste asko bezalaxe, nire ordu libreetan edo nire lan-orduetan Udalera etortzen naiz udalerrriaren alde lan egiten jarraitzera, gustatzen zaidan moduan egiten dudalako, eta betetzen dudan karguak hala agintzen didalako. Baina urtez urte ikusten dudanean nire lanari garrantzia kentzen zaiola, edo ez zaiola baliorik ematen eskatzen ari naizela abalaturako duen txosten tekniko bat dagoenean, ez dena bidezkoa da bi urte geroago Udal honi eskatu behar izatea mesedez arekak garbi ditzala, kutxatila egin dadila, hodia sar dadila, eta bide horretatik kontrolik gabe isurtzen diren urak finka partikular batera joatea, horrek dituen ondorioekin, ekidin dezagula. Izan ere, txostenean aipatzen da ezpondak oso malkartsuak direla. Jakina izan daiteke arrazoi izatea, baina era berean egia da ezponda bati, gainera inklinatua dena, ura isurtzen badiozu, bada azkenean okerra bikoitza da. Horrenbestez, azkenean partzela horren jabeari ezponda bat erortzen bazaio edo Udalari erantzukizuna eskatzen badio, ea zein irtenbide ipintzen dugun, edo epaiketara eramaten gaituen Epaileak egiaz zer erabakitzen duen ikusteko. Uste dut bi urtetan denbora aski izan dugula obra hori eta azpiegitura hori gauzatzeko. Erantzun ahal didazu nahi baduzu lñigo.

Alkatea: ezin dizut ezer esan, egia baita hori egiteke dagoela.

Unai Gotxi Kastrexana: Joseba ez zaitez kexatu, ni 2015. urtetik bainago espaloien kontuarekin zain, eta gainera txostena ere ez didate egin. Zuk txostena daukazu bederen. lñigok ematen didan erantzuna da txostenaren zain egon behar dugula zer egin jakiteko. Ni 2019. urtera ez, 2025. urtera joango naiz.

Alkatea: ezin dizut ezer esan Joseba, egia baita hori egiteke dagoela.

- Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren Gure Esku Dago plataformari buruz ere galdetuko dizut, Gure Esku Dago plataformari lokal publikoren bat laga al zaio sinadurak biltzeko?

Alkatea: sinadurak biltzeko? Ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: Gure Esku Dago plataformak baimena eskatu al zion Udalari bide publikoan sinadurak jaso ziren karpa bat ipintzeko?

Alkatea: bada, ez dut gogoan.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez duzu gogoan, ados. Galdera horiek hurrengoak bultzatuta datoz. Badago plataforma horrek herrian ipini zuen kartel bat, eta zera irakur daiteke: "Gure Esku



Dago plataformak herriaren atean maiatzaren 6ko sinadura bilketa iragartzen zuen kartelean apirilaren 27an, ostiralez, bozkatzeko aukeraren berri ere ematen zen, 18:30-20:30 bitartean, udaletxe zaharrean". Eraikin hori Udalarena da. Oraintxe esan didazu ez dela espazio publikorik laga, ez dakit kalean egingo ote zuten, eraikinaren behealdean egingo ote zuten, hori ere udal espazioa baita, edo non egingo zuten. Nik egia esan zure ezezko erantzun biribilarekin badituz nire zalantzak, ez dakit egun hartan jendeak non bozkatuko zuen, ez dakit. Baina tira, lehen galderak zalantzak sortzen dizkit erantzun didazun ezezko biribilarekin. Ez zarela gogoratzen erantzun izan bazenidan egoeratik irtengo zinatekeen bigarren galderan bezala.

Alkatea: ez, ez, Gobernuaren Ordezkariek eskatu du eta erantzun diot ezetz. Horregatik dakit.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, baina tira, baina non egin zen bozketa edo sinadura-bilketa? Ez dakit, lekua aldatu al zuten?

Inmaculada Vivanco Retes: bada, plataformari galdetuko diot.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, plataformari galdetu behar zaio Alkatea ez delako gogoratzen Udalari baimena eskatu ote zioten karpa herriaren atean ipintzeko, antzinako Bilboko Aurrezki Kutxa zenaren aldamenean.

Alkatea: bada, ez dut gogoan, baina egiaz galdera "bide publikoaren okupazioa" baldin bada, uste dut egin den Euskadiko leku guztietan bide publikoan egin dela.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dakit Euskadiko udalerrri guztietan zer egingo zuten eta zein erabaki hartu behar izango zuen Alkateak, oposizioak edo... ni Artziniegaz ari naitzaizu hitz egiten, eta Artziniegan plataforma maiatzaren 6an espazio publikoa inbaditzen ari zen, Udalaren baimenarekin izan baldin bazen, bikain, baina Udalaren baimenik gabe izan bazen, bada arazo bat dugu. Eta zuk bat oso larria. Bigarren galdera zen...

Alkatea: Arazo bat? Arazo larri bat nik?

Joseba Elejalde Ribacoba: arazo oso larri bat dugu, edozein herritarrek inbadi dezakegu espazio publikoa Alkateak horren berri izan gabe eta Udalak oniritzia eman gabe? Bada uste dut ezets, izan ere, edozein herritarrek edo Elkartek bide publikoa okupa badezake formalki eskatu gabe, bada hemen asteburuetan nahi duguna antola dezakegu, eta Udaletik ezingo dugu kontrolatu edo ezingo diegu hauei baietz esan eta horiei ezetz. Halaxe da. Bi galdera baino ez dizkizut egin, bati ezetz erantzun diozu eta bestean ez duzula gogoan, eta gogoan ez duzun horri buruz, bilketa noiz egingo zen adierazten zuen kartelean...

Inmaculada Vivanco Retes: ez, oker zabiltza, Joseba, zu zeu. Esan duzu ezetz erantzun dizula eta pipertu egin zara ezezko biribila erantzun dizulako. Hori esan duzu.

Alkatea: galdera baldin bada eraikin publikoren bat erabili ote den Gure Eskuk boto delegatua jaso dezan erantzuna ez da.

Joseba Elejalde Ribacoba: ezezkoa bada nik esaten dizut orduan non egin dute?

Alkatea: bada, Gure Eskukoiei galdetu mesedez, ea non jaso duten bozka delegatu hori.

Joseba Elejalde Ribacoba: ados, bikain. Eta bide publikoari buruz? Bide publikoari buruz ez duzu gogoan?



Alkatea: bada ez dugu gogoan eskatu duten ala ez. Badakit materialen bat eskatu zutela eta ez zaiela materiala eman.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada mesedez eskatzen dut egin dadila txosten bat adieraziz bide publikoa okupatzeko baimena eskatu den ala ez.

Alkatea: bada begira, sarrera-erregistroa dugu, mesedez, hor daude kontsultak eta aurkeztu diren idatzi guztiak.

Joseba Elejalde Ribacoba: berrikusiko dut, bikain, ez zaitetz kezkatu. Nahi dudana da jasota gera dadila Alderdi Popularreko bozeramaileak gaiari buruzko txostena eskatu duela. Kito. Ondoren sarrerak berrikusi behar badituz, berrikusiko dituz.

Alkatea: egingo dugu txosten bat eskatu ote den ala ez adierazteko. Gure Eskutik egon diren idatzi guztiak helaraziko dizkizuegu... eta tira.

- Joseba Elejalde Ribacoba: Aiaraturreko kontuari buruz. Guztiok dakigun moduan, Aiaratur sozietate publiko-privatuak bere jarduna bertan behera utzi zuen iaz, 2017an. Han zegoen langilearen aurka epai bat eman da. Zein da Paula Bilbao langilearen salaketari buruzko epaia? Zenbat diru dago soberakinean sozietate honen kontuan? Dakidanez 100.000 eurotik gora. Diru hori erabiliko al da Paula Bilbao andreaki ia 65.000 euroekin indemnitzatzeko kondena ordaintzeko? Eta zer egingo da gainerako diruarekin? Sozietateak desegin ostean edo desegiteko epealdian zehar kobratu zuen dirua da. Gainerako dirua GKE erakunde bati entregatuko zaio estatutuetan jasota dagoen moduan ala udalei itzuliko zaie haiek beren ekarpenak egiten zituzten modu berean? Bitxia da sozietate bat desegitea eta soberakinean ehun eta hainbat mila euro izatea edo kopuru hori izatea gastatu gabe, 2017an udal ezberdinen kobratuz joan zena, eta ez dakit zergatik ordaindu ziren kopuru horiek Aiaraturrek bere jarduna etengo zuela gauza jakina baldin bazen, baina tira. halaxe egin zen. Ez dakit, Kuadrillan ez nagoelako, Paula Bilbao langileari buruzko epaia.

Alkatea: Joseba, nik ezin dizut erantzun, ez bainago Aiaraturren sozietate likidatzailean.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, baina zuk Alkate modura horren berri izan beharko zenuke, edo Aiaraturren egiaz gertatzen denaren berri, izan ere, zu zuzendaritza organoaren barnean zaude udalerrri honetako Alkate modura. Zuk jakin beharko duzu, eta jakin ez baduzu orduan defizit bat daukagu...

Alkatea: berriro diot, emango digute informazioa, baina gaur egun ez digute informaziorik eman inolako bidetatik, egoera horretako organismo bakar batek eta, berriro diot, ni ez nago Aiaraturren sozietate likidatzailean. Orduan esaten didazu, indemnitzatuko al den, ez ote den indemnitzatuko, soberakinarekin egingo ote den, bada oraindik hori ez da erabaki.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada, eskatuko nizuke osoko bilkura honetara, hurrengoan, beranduenez, galdetu ahal baduzu, galde dezazula eta erantzuna ekartzea niri.

Alkatea: galdetuko dut.



- Joseba Elejalde Ribacoba: Artziniegako Hondakinen Uren Araztegiari dagokionez, eta berriro dakarkit kontua, badakit joan den hilabetean jorratu zela, eta beno beste behin eztabaidatu zen, eta erantzun zenidan Urako zuzendariarekin hitz egingo zenuela, Martinez de Cabredo jaunarekin.

Alkatea: Ernesto Martinez de Cabredo.

Joseba Elejalde Ribacoba: Izan al duzu bilkura berarekin?

Alkatea: sentitzen dut baina bilkura joan den astearterako nuen aurreikusia eta astelehenean atzeratu egin didate.

Joseba Elejalde Ribacoba: Beste bilkurarik izan al duzu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuarekin, Arriola jaunarekin, edo beste teknikariren batekin?

Alkatea: ez Ingurumen sailburuarekin, Arriola jaunarekin, ez dut inolako bilkurarik izan. Joan den urtean bilkura bat izan nuen Ernesto Martinez de Cabredorekin, uste dut martxoan izan zela, eta alde z aurretik, izan ere, Ernesto Martinez de Cabredo jauna 2016. urteaz geroztik dago edo 2017ko urtarrilaz geroztik Urako gerente modura, Urako aurreko zuzendariarekin, Iñigo Ansolarekin, bilkura ugari izan nituen. Datak ez dauzkat adierazita, egia esan ez ditut gordetzen dauzkadan bilkuren datak, eta beno, aipuren bat izan dezaket dauzkadan oharretan baina ez dakit noiz den. Baina bilkurak izan ditut, bai Urako aurreko zuzendariarekin eta baita berriarekin ere. Berriarekin behin, aurrekoarekin asko.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada, ondo legoke osoko bilkura honetara, edo batzorderen batera, noizean behin jakinaraziko bazenigu zertaz eztabaidatzen den, izan ere, osoko bilkura batean galdetzen bazaizu eta ez dakizula ezer esaten baduzu, eta datozen egunetan edo astetan zuzendari batekin edo x pertsona batekin elkartuko zarela, bada jakinarazi ondoren bilkura horretan hitz egindakoa, modu horretan oposizioak jakin dezagun zein egoeratan gauden..

Alkatea: ez, hori izango duzue, baina niretzat ere tamalez bilkura atzeratu egin didate uztailaren 5era.

Joseba Elejalde Ribacoba: esaten ari zara ordea joan den urtean jadanik bilkura bat izan zenuela. Martinez de Cabredo jaunarekin eta ez dakigu zein den egoera, edo zertan hitz egin zen bilkura horretan, bada beno, Artziniegako Hondakin uren araztegiaren gaiarekin ere bueltaka gabiltza.

Joseba Elejalde Ribacoba: hurrengo galdera, jakinarazi al die Artziniegako Alkateak Hondakin Uren Araztegi bat edo Gueñeseko Hondakin Uren Araztegiara arte kolektoreak eramateko premia bizia inplikaturako administrazioei? Defendatu al ditu Artziniegako Alkateak herri honetako herritarren interesak?

Alkatea: jakina, nik ahal den heinean aurreratu egiten dut.

Joseba Elejalde Ribacoba: Bereziki aipatu diozu Iñigo, bereziki aipatu diozu Arriola jaunari?

Alkatea: Arriola jaunarekin ez naiz egon.

Joseba Elejalde Ribacoba: Edo beste teknikariren bati Artziniegako Hondakin Uren Araztegia hitzartuta zeuden epeetan egikaritzeko premia?

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Alkatea: Zuk zer uste duzu?

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dakit, nik galdetu egiten dizut.

Alkatea: Zuk zer uste duzu? Ahalik eta gehien atzera dadila esaten dudala?

Joseba Elejalde Ribacoba: zuk hori egiteko premia biziaren berri eman baduzu eta Artziniegako herritarren interesak defendatu baldin badituzu, erantzuna baiezkoa bada, eta baietz ari zatzaizkit esaten, azal diezaiekezu herritarrei eta gainerako udal taldeei zein egoeratan dagoen Artziniegako Hondakin Uren Araztegiaren edo kolektoreen proiektua? Noiz aurreikusten da obrei ekitea eta zein da egikaritze-epea? Baietz esaten ari zatzaizkit, Artziniegako interesak defendatu dituzula. Nik Artziniegako interesak defendatu behar baditut egunen batean azalpen bat eman beharko didate, telefonoz edo berariaz bilkura batean. Kasu honetan esan didazu iaz bilkura bat izan zenuela Ernesto Martinez de Cabredo jaunarekin, baina ez duzu adierazi han zer...

Alkatea: galdetzen ari bazatzaizkit zergatik Artziniegako saneamenduaren esparru-akordioan proiektua 2021-2027 epealdian dagoen, nik ere zuk bezalaxe gaizki ikusten dut epealdi hori, nik ere lehenago egotea nahi nuen eta. Baina ez dago. Negoziazio horretan Eusko Jaurlaritzak sinatzen du eta Aldundiak sinatzen du. Nik zoritxarren ez dut parte hartu esparru-akordio horren negoziazioan. Izan ere, zalantzarik gabe esparru-akordio horretan negoziatzeko aukera izan banu, aurreratu egingo nukeen, Legutioko Alkateak egingo zuen bezalaxe. Edo gauza bera Aguraingo Alkateak, eta Oiongo Alkateak, oso pozik egongo lirateke lehen plangintzan sartu izan balituzte. Baina ni ez naiz negoziazio horretan egon.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada, egon egin behar da. Nik ez dizut esaten negoziazioan egoteko. Esaten dizudana da zure alderdiko ordezkari politikoarekin egon behar zarela, Eusko Jaurlaritzan Arriola jauna dena, azpimarratuz mesedez premia dagoela...

Alkatea: Arriola jauna sailburua da, ez da nire alderdiko ordezkari politikoa.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada beno, barkatu, baina azken finean Arriola jaunarekin premiari buruz...

Alkatea: Urako lehengo zuzendaria nire alderdiko ordezkari politikoa zen, Iñigo Ansola bai zen. Orain dagoena ez da.

Joseba Elejalde Ribacoba: zuzendu egiten dut.

Alkatea: eta, bide batez, kolore berekoak izateak ez du esanahi Artziniegarekin lehentasunezko jokabidea izango duenik.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni ez naiz eskatzen ari kolore berekoak izateagatik lehentasunezko jokabidea izateko, baina bai mesedez, Artziniegako Udala ez dezatela azken lerroan utzi. Beno, jarraitu egingo dut, Ezagutzen al du Artziniegako Alkateak aurtengo maiatzaren 11n sailburuak Alderdi Popularrak gai horri buruz egindako galderari emandako erantzuna Eusko Legebiltzarrean? Ezagutzen duzu galdera eta ezagutzen duzu erantzuna?

Alkatea: bada bai begira, jakin nuen zerorrek esan zenidalako.

Joseba Elejalde Ribacoba: halaxe da, nik hona ekarri nuelako. Izan ere, joan den hiletik hile



honetara Udal honek eta Alkateak ez du ezer egin Artziniegako Hondakin Uren Araztegiarekin lotuta, aitzitik oposizioak galdera bat luzatu dio sailburuari eta erantzun bat eman digu, eta sailburuak eman digun erantzuna egia esatera bortitza da. Bortitza.

Alkatea: baina berriro diotsut, martxotik ari naiz bila, Urako zuzendariarekin bilkura bat eskatzen ari naiz, martxotik. Agian Legebiltzarrean zortekoak zarete eta kasu gehiago egiten dizuete, baina martxotik ari naiz eskatzen bilkura bat Urako zuzendariarekin, planteamendu batekin, ahal den neurrian epeak aurreratzeko, hala desjabetzetan nola kolektoreen egikaritzean. Izan ere, behin betiko irtenbideak ez du horrenbeste kezkatzen, baina kolektoreak orain isuriaren zonaldea dugun zonaldera arte egikaritu daitezkeela, araztegia edo kolektoreak egin beharrik gabe, hori egin dezakegu. Eta hori da eramaten nion planteamendua, Urako zuzendariari eraman nahi diodana. Lurrak desjabetzeko hitzarmen bat dugu 2015az geroztik eta oraindik ez da gauzatu.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, bada nik hemen, gaur denbora daukadanez, 12:30ak arte ez baitut...zehazki irakurriko dut jendeak...

Alkatea: Joseba Gobernu batzarra dugu 11:00etan eh?

Joseba Elejalde Ribacoba: ados bada ongi, oso ongi iruditzen zait, orduan beno, ez duzu arazorik eta nik benetan gertatzen ari dena azalduko dut, eta herritar eta politikari gisa nire buruari egiten dizkiodan galderak. Eta ondoren dauden herritarrek jaso dezatela, eta uste baldin badute esaten ari naizena oso normala dela eta egokiena dela, edo esan dezatela kontrakoa entzungo didatenaren arabera. "Joan den maiatzaren 7an Mari Carmen Lopez de Ocariz Alderdi Popularreko legebiltzarkideak honako galdea luzatu zion Ingurumen eta Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburu jaunari Artziniegako saneamendu eta arazketaren irtenbideari buruz, Zein da Ura Agentziak Artziniegako saneamendu eta arazketari irtenbidea emateko proiektua egikaritzeko duen irizpidea? Maiatzaren 11n egin zen saioa legebiltzarrean. Saio hartan Lopez de Ocariz andreak agerraldia egin zuen 2017ko uztailaren 11n Arabako Foru Aldundiak eta Ura Euskal Agentziak erdietsitako esparru-akordioari buruzko azalpen bat eginez. Arabako lurralde historikoan azpiegitura hidraulikoak egikaritzeko esparru-akordio horretako bi horizonte edo bi fase ikusten dira, 2016-2021 eta 2021-2027. Hitzarmen horretan berriro atzeratu egiten da 10 urtez Artziniegako saneamendu eta arazketari irtenbidea emateko horizonte 2021-2027 proiektua, nahiz eta Artziniegako Udaleko udalbatzak aho batez, EAJ, Bildu eta PP 3 taldeekin, mozio bat onartu zuten URA agentziari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzeko udalerriak saneamenduarekin lotuta pairatzen duen arazo larriari irtenbide bat emateko, urte askoan egonkor baitirau. Lopez de Ocariz andreak galdera hauek luzatu zituen bere agerraldian, Zein dira horizonte 2021-2027 atzeratzeko erabakia abalatzten duten irizpideak? 2013ko proiektuak indarrean jarraitzen du ala beste irtenbide bat ari dira lantzen? Erantzuteko bere txandan Arriola sailburu jaunak adierazi zuen obra hau barneratzea, denbora-horizonte hori barneratzea, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak partekatutako bi irizpideren baitan dagoela. Bat lehentasunekin lotua eta bestea erabilgarri dauden baliabideekin lotua. Horregatik, esparru-hitzarmen horretan lehendabizi egin beharreko esku-hartzeak adostu ziren, hots, Agurain eta Oiongo Hondakin Uren Araztegia, eta hurrengo epealdirako beste zenbait proiektu planifikatu ziren, horien artean Artziniegakoa. Halaber, adierazi zuen saneamendua eta hornidura udal eskumenekoak direla, ez da Eusko Jaurlaritzaren eskumena, ezta URA agentziarena ere, eta URA agentziak sarritan esku hartu duela uraren kalitatea hobetzeko xedez. Bere erantzunean Lopez de Ocariz andreak sailburuari esan zion beti gauza bera errepikatzen duela, berak ez



duela eskumenik, egungo kasuak orotarazten ditu, bere sailak konpromisoa hartu duela, izan ere, dokumentu ezberdinak sinatu ditu eta beraz kontua uzteko, izan ere, bera da hitzarmen batean sinatu dituzten obrak egikaritzeko ardura duena. Hori erantzun zion Lopez de Ocariz andreak. Artziniegako Udalak, 1.900 biztanlerekin urtero ia 18.000 euro ordaintzen dituela ur eta isuriaren kanonean, ez dela ahuntzaren gaueko eztula, guk 15.000 euroko kanona ordaintzen dugu Artziniegako errektora hondakin uren isuriagatik. Eta jarraitzen du galdetuz "zuek inbertsio publikoaren kostu/etekin balizko balantzeaz hitz egiten duzuenean, zertaz ari zarete hitz egiten? Udalarentzat kostua argia baita? kostua urtez urte oso argia da, duela 20 urte baino gehiagoz geroztik burutzeke dagoen obra hori ez egikaritzearen kostua 18.000 eurokoa da. Etekin modura ulertzen dut egoera ekologikoaren gabezien zuzenketa, eta kontuan al duzue, esaten nuen moduan, azpiegitura ez egikaritzeak Udalari eragiten dion kostua? Bere erantzun edo kontra-erantzunean Arriola jaun sailburuak dio berak esan duen bakarra dela eskumena izan gabe Udalei edo mankomunitateei laguntzeko obra honen eta beste obra batzuen egikaritzea guregan hartu dugula, saneamenduari lotutako irtenbideaz hitz egiten ari direla, balizko bi irtenbide daudela. Bat irtenbide autonomoa eta bestea kolektore bidez Gueñeseko araztegiarekin lotzeko, hau da, 2005. urtera itzultzen gara berriro, 2018an oraindik ez dakigu Hondakin Uren Araztegia ote den sistema onena Artziniegako hondakin uretarako, edo kolektore bidez izango ote den Gueñesera arte. Zalantza hori argitzen denean, bada agian lan egingo dute eta egikaritzea 2021. eta 2027. urteen aurretik izateko zortea izango dugu. Ura agentziaren ikuspegitik irtenbide onena Gueñesera kolektore bidez konexioa egitea da, baina behin betiko txostena idatzi behar dela, eta Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena garatuz egin beharko da era berean, eta jakina zuk esaten didazu hau 2027 horizontera doala, bai noski, urte horretara doalako, Ura agentziak hitzarmena ez betetzeak berekin ekarri duen istorio honetatik datozen konpromisoez ari gara hitz egiten, eta zuk zer nahi duzu? berriro plangintza bat ezar dezagula berriro ez betetzea eragingo diguna zu tribuna honetara etor zaitezten Urak bere konpromisoak ez dituela betetzen esatera?" Hau da, azken batean hemen esaten ari zarena da, legebiltzarkide bati ari zara aurpegiatzen galdetzea zergatik ez diren bete esparru-hitzarmen batzuk, edo esparru-akordio batzuk, hots, 2004-2008 y 2008-2012 akordioak. Behin Lopez de Ocariz andreak egindako galderak eta sailburuak emandako erantzunak irakurri eta aztertuta, nik galdera hauek egiten dizkiot nire buruari: zer gertatu da bi administrazioek sinatutako 2004-2008 eta 2008-2012 esparru-akordioekin? Bada tira, gutxi gorabehera argi utzi didazu finantzaziorik ez zegoela edo garrantzitsuagoak ziren beste gauza batzuk zeudela egiteko. Zergatik ez da egikaritu duela 20 urte baino gehiagoz geroztik proiektua burututa zuen eta ustez finantzazioa zuen planteatutako azpiegitura? Ez didazu erantzun. Nork du ardura hondakin urak Gueñeseko Hondakin Uren Araztegiara arte kolektore bidez eramatearen bideragarritasun-txostena idazteko? Ez dakigu. Nola da posible 2005. urtetik txosten hori egin gabe eta Artziniegako Udalean aurkeztu gabe egotea? Uste dut urte hartan eskatu zela. Zer egin du EAJ udal taldeak egoera hori iraultzeko? Ez dakit. Noiztik izan ditu bilkurak XXXX udal Gobernuko taldeak gai hori jorratzeko Ura agentziako teknikariek, sailburuarekin edo sailburuordearekin? Esan berri didazu iaz bat izan zenuela, baina ez duzula gogoan zer joratu zenute, edo gogoan baduzu ere...

Alkatea: bai, bat Urako egungo zuzendari gerentearekin, aurrez beste batzuk izan ditut Urako aurreko gerentearekin, izan ere, legealdi honetan bi ezberdin egon dira.

Joseba Elejalde Ribacoba: ongi, Oion eta Aguraingo Hondakin Uren Araztegiak Artziniegakoak baino lehenagokoak al dira? Hori ere ez duzu jakingo. Ez.

Alkatea: jakina, esan dizut ez naizela egon hitzarmenaren negoziazioan.



Joseba Elejalde Ribacoba: galdetu, landu eta azaldu egin beharko litzateke zergatik dauden batzuk aurretik, zergatik egon behar duten beste batzuk atzetik, edo zergatik jarraitzen duen Artziniegak Hondakin Uren Araztegirik gabe, edo zergatik jarraitzen duten konpondu gabe hondakin urekin dauden arazoak eta hitzarmeneko azken faserako zergatik uzten gaituzten. Zergatik dute lehenasuna azpiegitura horiek Artziniegakoaren aurretik? Bada, niri hori ere jakitea gustatuko litzaidake, zergatik gauzatuko diren bi horiek Artziniegako Hondakin Uren Araztegia baino lehenago. Zergatik adierazten du sailburuak, Arriola jauna, uren tratamendua Eusko Jaurlaritzaren eskumena ez dela bere burua zuritzeko? Eusko Jaurlaritzarenak diren zenbat eskumen konpentsatu edo egikaritzen dira sarritan Tokiko Erakundeen eskutik, akordio edo lankidetzara bidez. Hemen harria bota eta lasterka irteten gara. Zergatik egon behar du Artziniegako Udalak beti eskean gure herritarrentzat bizi-kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren azpiegiturak izateko? Hori ere ez dakit bada, izan ere, hemen, urtez urte, arazo eta kontu berdinez hitz egiten jarraitzen dugu. Joan den hilean bilkura bat izango zenuela esan zenidan. Tamalez bilkura hori atzeratu egin da oso urrunekoa izatea espero ez dudan etorkizun batera...

Alkatea: uztailaren 5era.

Joseba Elejalde Ribacoba: ... nik espero dut, espero dut hemen jaso dudana, ez dezazula zure aurka hartu, baina bai kontuan izan dezazula, izan ere, uste dut Artziniegak ez duela merezi Eusko Jaurlaritzatik edo Aldunditik ematen diguten tratua, kasu honetan azpiegitura hau Eusko Jaurlaritzari legokioke egikaritzea. Uste dut ez dugula merezi egiten ari zaizkiguna. Uste dut Artziniegako Hondakin Uren Araztegia edo kolektoreak egikarituta behar zutela dagoeneko. Mari Carmen Lopez de Ocariz andreak bere planteamenduan ongi adierazten duen eran, 2013ko proiektuari dagokionez, galdera zen ea indarrean jarraitzen zuen edo beste irtenbideren bat ari zen lantzen. Irtenbidea izan daiteke kolektoreak izatea efizienteena eta merkeena ondoren azpiegitura mantentzeko, baina egiaz, sailburuaren agerraldiaren ondotik eta nik hitz guztiak jasotzen ditut eta zalantza horiekin guztiekin geratzen naiz, erantzunik gabeko galdera horiekin guztiekin, eta ikusten dut Artziniegak, zortea badu, zorte handia badu, akaso 2027. urterako Hondakin Uren Araztegia edo kolektoreak eginda izango dituela, zorte handia badu, guztia urtean sinatutako esparru-akordioan adostuta bezala joaten bada.

Alkatea: gauza bat utzi duzu aipatzeke amaieran. Arriolarekin bilkura bat eska dezala eskatzen duzu, eta uste dut ona dela hori eskatzea.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik esaten dizut Arriolarekin... zuk esaten badidazu Urako zuzendariarekin izango duzula... bada beno, Urako zuzendariarekin, Arriolarekin eta jorratu behar denarekin.

Alkatea: ni Urako zuzendariarekin egongo naiz, baina beharrezkoa bada Arriola sailburuari ere eskatuko diogu.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamaikak eta hogeita hamar minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.

Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)



Artziniegako Udala
(Araba)